



PROIEKTU-LURRALDE  
BAT, PROIEKTU BAT  
IPAR euskal  
HERRIARENTZAT



 Pays  
Basque  
euskal  
Herria

COMMUNAUTÉ  
D'AGGLOMÉRATION  
—  
HIRIGUNE  
ELKARGOA



# EDITORIALA



## Gure etorkizuna elkarrekin eraiki

Euskal Elkargoa, hautetsiak eta jendarte zibila biltzen dituen engaiamendu kolektiboaren emaitza da. Engaiamendu horrek, beste frankok bezala Ipar Euskal Herrian, itxura bat baino gehiago hartu ditu: mobilizazioak, tresna bereziak eta espezifikoak, eta ere prospektiba. Gure lurralde-proiektua apailatzeko tenorean interesgarri da Euskal Herria 2020 berriz irakurtzea, 2006an Ipar Euskal Herriko Hautetsien Kontseiluak eta Garapen Kontseiluak onarturiko prospektiba dokumentua. Euskal Elkargoak, orduan identifikatu ziren desafio eta proiektu nagusiak altxatu edo abiatu ditu, 5 urte eskasetan: baliabideen zaintzea, ekonomia produktiboa, gure kalitatezko laborantzaren sustengatzea, Ipar Euskal Herriko Campusa, mugikortasun-sarea, hirien eta herrien dinamizatzea Ipar Euskal Herria bizi-bizirik izateko eta jendea bertan bizitzeko... Gai horien kariatara sekula baino dokumentu estrategiko inportanteak egin dira eta ekintza zehatzak obratu.

Gure etxe komuna sendoa da dokumentu estrategiko horiei esker, zeinak politika-koprodukzio lan baten, eztabaiden eta trukaden emaitza baitira. Hautetsiak beti izan dira lan horren erdian, gure zerbitzuen bikaintasunak bermaturik. Alor asko mobilizatu dira: batzordeak, Gidaritza Batzordeak, lurralde eremuak, konferentziak. Badu 5 urte Hazparneko tailerren izpiritu berean ari garela, adostasunera heltzeko elkarriketan ari izanez, hori baita gure egiteko manera. Beraz, Ipar Euskal Herriari existentzia juridikoa eta onarpen instituzionala emateaz gain, lurraldeari dimentsio politikoa eman diogu, eta hori da garrantzitsuena, behar bada. Dimentsio hori ondare partekatu eta proiektu komunaren emaitza da, horietarik batzuk utopikotzat jotzen ahal baziren ere lehen idazketa egiterakoan.



Ez pentsa triunfalismoan erortzeko asmorik dugunik, ohartzen gara egitekoa den bidez. Gainera 2006an betebeharrak ekologikoa eta energetikoa hor bazen, zorrotasun gutiagorekin ageri zen. Gaur egun behartzen gaitu sail guzietan lasterrago joatera, akitu gabe, eta elkarrekin aritzera. Larrialdi ekologikoa, soziala eta demokratikoa iragaten ari gara. Maila guzietan gure jendarteek eta gure ingurumenak jasan dezaketenaren mugak gainditzeko arriskua dugu. Eta maila guzietan beharko ditugu erantzun koherenteak eta iraunkorrak eman, eta gure erakundearen modeloa ere berriz pentsatu beharko da.

Hautetsiekin eta lurraldeekin eraiki den lurralde-proiektu honen zentzua da. Hiru ardatzen inguruan eraikia da –gure baliabideen zaintzea, hirien eta herrien dinamizatzea eta gure garapen modeloen berriz asmatzea– eta honi esker manera eraginkorrean eta ernean ihardetsi behar diogu erronka klimatikoari eta gure gazteei etorkizun iraunkorra eta desiragarria eskaini. Segi dezagun Ipar Euskal Herria lurralde aitzinatua bihurtzen, bere nortasunari uko egin gabe, desafio garaikideei aurre egiteko gai dena bere baloreak arriskuan ezarri gabe, zalu eta nahikeriaz aritzeko gai dena, epe laburkeriaren tranpan erori gabe. Ikuspegia, baloreak, nahikeria eta zalutasuna. Eginkizun zail bezain pizgarri horretan, gure fundazio komunetan berma gaitzeko, gure etxe komunean eta proiektu komun honetan.

# ÉDITO



## Construire notre avenir ensemble

La Communauté Pays Basque est le fruit d'un engagement collectif réunissant élus et société civile. Cet engagement, comme de nombreux autres au Pays Basque, a pris différentes formes : mobilisations, outils singuliers et spécifiques et, aussi, prospective. Il est intéressant au moment d'élaborer notre projet de territoire de relire Pays Basque 2020, document de prospective adopté en 2006 par le Conseil des élus et le Conseil de développement du Pays Basque. La plupart des défis et projets majeurs identifiés à l'époque ont été relevés ou engagés, en moins de 5 ans, par la Communauté Pays Basque : préservation des ressources, économie productive, soutien à notre agriculture de qualité, Campus Pays Basque, réseau de mobilité, dynamisation des villes et villages pour un Pays Basque en tout point vivant et habité... Toutes ces thématiques bénéficient de documents stratégiques d'ampleur inédite et de réalisations concrètes.

Notre maison commune est solidement charpentée par ces documents stratégiques, résultant d'un travail de coproduction politique, de débats et d'échanges. Les élus ont toujours été au centre de ce travail, appuyés par l'excellence de nos services. De très nombreux espaces ont été mobilisés : commissions, COPIL, pôles territoriaux, conférences. Nous avons, depuis 5 ans, perpétué l'esprit des ateliers d'Hasparren dans un dialogue favorisant la recherche du consensus, notre marque de fabrique. Ainsi, au-delà d'avoir donné une existence juridique, une reconnaissance institutionnelle au Pays Basque, nous avons, et c'est peut-être le plus important, donné un relief politique au territoire, issu d'héritages partagés et de projets communs qui, pour certains, pouvaient apparaître comme utopistes au moment de leur rédaction initiale.

Il n'est pas question ici de faire preuve de triomphalisme, nous sommes tous très conscients du chemin qu'il faut continuer à parcourir. D'autant qu'en 2006, l'impératif écologique et énergétique, s'il n'était pas inexistant, apparaissait avec moins d'acuité. Il nous oblige aujourd'hui à accélérer dans tous les domaines, à agir inlassablement et ensemble. Nous traversons une triple crise écologique, sociale et démocratique. Sur l'ensemble de ces plans, nous risquons de dépasser les limites de ce que nos sociétés et notre environnement peuvent supporter. Et sur l'ensemble de ces plans, nous devons, y compris en réinterrogeant le modèle de notre institution, apporter des réponses cohérentes et durables.

C'est le sens de ce projet de territoire, construit avec les élus et les territoires. Bâti selon trois axes -préserver nos ressources, dynamiser nos villes et villages et réinventer nos modèles de développement- il doit nous permettre de répondre avec efficacité et sagacité au défi climatique et d'offrir un avenir soutenable et désirable à nos jeunes. Tels des passeurs, continuons à faire du Pays Basque un territoire capable d'avoir un temps d'avance sans rien renier de son identité, capable de répondre aux défis contemporains sans compromettre ses valeurs, capable d'agir vite et avec volonté sans céder aux sirènes du court-termisme. Vision, valeur, volonté et vitesse. Nous pouvons compter, dans cette mission, aussi ardue que stimulante, sur nos fondations communes, sur notre maison commune et sur ce projet commun.

# EDITO



## Bastir lo nòste aviéner amassa

La Comunautat País Basco qu'es lo frut d'un engatjament collectiu amassant elejuts e societat civila. Aqueth engatjament, com un haish d'autes au País Basco, qu'a pres diferentas fòrmas : mobilizacions, atrunas singularas e especificas e, tanben, prospectiva. Qu'es interessant au moment d'elaborar lo nòste projècte de territòri de tornar léger País Basco 2020, document de prospectiva adoptat en 2006 peu Conselh deus elejuts e lo Conselh de desenvolopament deu País Basco. La màger part deus desfís e projèctes màgers identificats en aqueth temps que son estats relhevats o engatjats, en mensh de 5 ans, per la Comunautat País Basco : preservacion de las ressorsas, economia productiva, sostien a la nòsta agricultura de qualitat, Campus País Basco, hialat de mobilitat, dinamizacion de las vilas e vilatges entà un País Basco beròi viu e abitat...Totas aqueras tematicas que beneficien de documents estrategics d'amplor inedita e de realizacions concrètas.

Lo nòste ostau comun qu'es de heitura solida per aqueths documents estrategics, resultant d'un tribalh de coproduccion politica, de debats e d'escambis. Los elejuts que son tostemps estats au centre d'aqueth tribalh, apiejats per l'excelléncia deus nòstes servicis. De plan nombrós espacis que son estats mobilizats : comissions, COPIL, pòles territoriaus, conferéncias. Qu'avem, despuish 5 ans, perpetuat l'esperit deus talhèrs de Hasparn dens un dialògue favorizant la recèrca deu consensus, la nòsta mèrca de fabrica. Atau, au delà d'aver balhat ua existéncia juridica, ua reconessença institucionau au País Basco, qu'avem, e qu'es dilhèu lo mei important, balhat un relhèu politic au territòri, gessit d'eretatges partatjats e de projèctes comuns qui, entà daubuns, e podèvan aparéisher com utopistas au moment de la lor redaccion iniciala.

N'es pas question ací de har pròva de triomfalisme, qu'èm tots plan conscients deu camin que cau contunhar a har. D'autant qu'en 2006, l'imperatiu ecologic e energetic, si n'estosse pas inexistent, qu'apareishè dab mensh d'acuitat. Que ns'obliga uei a accelerar dens tots los maines, a agir shens paus ni cès, e amassa. Que traversam ua tripla crisi ecologica, sociala e democratica. Sus l'ensemble d'aqueths plans, que riscam de despassar los limits de çò qui las nòstas societats e lo nòste environament e pòden suportar. E sus l'ensemble d'aqueths plans, que deuram, i comprés en tornar interrogar lo modèle de la nòsta institucion, portar responsas coèrentas e duradissas.

Qu'es lo sens d'aqueth projècte de territòri, bastit dab los elejuts e los territòris. Bastit segon tres èishs -preservar las nòstas ressorsas, dinamizar las nòstas vilas e vilatges e reïnventar los nòstes modèles de desenvolopament- que'ns deu perméter de respóner dab eficacitat e sagacitat au desfís climatic e d'auherir un aviéner sostenible e desirable aus nòstes joens. Taus deus passaires, que contunham a har deu País Basco un territòri capable d'aver un temps d'avança shens arren renegar de la soa identitat, capabla de respóner aus desfís contemporanèus shens comprométer las soas valors, capabla d'agir lèu e dab volontat shens ceder a las serenas deu cort-termisme. Vision, valor, volontat e velocitat. Que podem comptar, dens aquera mission, autant esquèrra com estimulanta, sus las nòstas fondacions comunas, suu nòste ostau comun e sus aqueth projècte comun.



# PROIEKTU-LURRALDE BAT

## PROIEKTU BAT IPAR EUSKAL

### HERRIARENTZAT



Euskal Elkargoa 2017ko urtarrilean sortu zen, 158 herri eta 315.000 biztanle ditu eta lurraldeak aniztasunez aberats den etorkizun komuna ukaiteko xedea irudikatzen du. Bost urtez, eztabaidatuz eta erabakiak hartuz, Elkargoak, bere ekintzen bidez, konkritu egiten lortu du hautetsiak eta jendarte zibila biltzen zituen aspaldiko aldarrikapen instituzionala. Orain erakundeak 1.200 langile baditu, Ipar Euskal Herri osoan banatuak, Elkargoko Kontseiluko hautetsiek aho batez erabaki 21 politika publikoen zerbitzuko ari direnak.

Eraikuntza komuna osatzekoa da, baina erakunde horri lurraldetik askoz haratago so egiten zaio eta tokiko ekintza publikoaren eragile bazterrezina da, baita ideia-laborategia ere. Herri elkargo horretarako hautaturiko modeloak ekintza estrategikoa eta hurbilekoa bermatzen du Ipar Euskal Herri osoan. Proiektu kolektiboa da, originala eta anbiziotsua, lurralde osoan gauzatzen dena, eta elkargoko zerbitzuen ekintzen bidez hedatzen da, tokiko errealitatea kontuan hartuz. Langileen % 70k zerbitzu deskontzentratuetan lan egiten dute egunero eta elkargoren hurbileko ekipamenduen kudeaketa lurralde eremuen esku utzia da.

#### Ipar Euskal Herri batua eta engaiatua desafio klimatikoaren altxatzeko

Funtsezko puntua da hau, eta Ipar Euskal Herriak lortu du federatzen eta antolatzen lurraldeak erronka erabakigarrien aitzinean diren orduan. Alabaina, nehorik ez dezake alde batera utzi klima izigarri laster aldatzen ari dela, baliabideak ttipitzen ari direla, ura eskasten eta airearen kalitatea manera kezkarri apaltzen. Duda izpirik gabe eta lehenbiziko aldiz, Klima-aldaketari buruzko Gobernuarteko Taldearen (IPCC) 6. txostenak lurraren berotze klimatikoa jendeen jardueren gain eman du. + 1,5°C-ko muga 2030ean gainditu liteke, hots, zientifikoaren aitzineko estimazioa baino 10 urte goizago. Euskal Elkargoa parada historikoa da erronka klimatiko horri aurre egiteko, eta aurre egin behar du. Alabaina, bere ondareak, batasunak eta fisionomiak, lehengo hamar herri elkargoek eta herriarteko sindikatuak baino askoz indar eraldatzaile handiagoa ematen diote. Horretan du lurralde-proiektuak garrantzia berezia hartzen. Ipar Euskal Herriaren geroaren aldeko engaiamendu kolektiboaren marka izanen da.

#### 3 ardatzetan bermatzen da, eta 21 politika publikoak lotzen ditu:

- Ipar Euskal Herri erresiliente baten alde: gure baliabideak zaindu;
- Herritarrez beteriko Ipar Euskal Herri bizi baten alde: gure hiri eta herriak bizkortu;
- Ipar Euskal Herri engaiatu baten alde: gure garapen ereduak berriz asmatu.

Proiektuaren oinarria, 1. ardatza, lurraldeko baliabideek osatzen dute: laborantza eremua, oihana, naturaguneak, ur baliabideak, bioaniztasuna eta paisaiak zaindu behar dira. Ez fantasiako Ipar Euskal Herria santuarizatzeke, baina klima aldaketari egokitzeak hala inposatzen duelako. Zinezko abantaila da hori, hazi behar den kapitala, eta politika publiko oro eraman aitzin zaindu beharrekoa.

2. ardatzaren xedea da Ipar Euskal Herriko lurraldea bizi-bizia izan dadin, lo-hirien eta hirien hedatzearen kontra borrokatuz. Hauek ere aintzinetiko baldintzak dira gizarte eta ingurumen arloetan. Hiriak eta herriak dinamizatuz, Ipar Euskal Herria saretua dela erakusten du, egiazko jendarte eta lurralde kohesioaren bermea. Hori da Euskal Elkargoren ekintza frankoren zentzua, lurraldearen oreka arras manera berrian aurreikusten

baitute: Tokiko Bizileku-Programa; Biharko Hiri Ttipien Programa; Euskal Mendia Eskualdeko Parke Naturala; lurraldean zehar sareak sortzea kirol-, kultura- eta herritarrendako zerbitzu-ekipamenduetarako; sareak sortzea baliabide numerikoetarako, abiadura handiko interneterako, kontseilari numerikoak ukaiteko, baita ere hiri-politikarako, mediku eskasiaren kontrako borrokarako edo herriei ingeniarietza eskaintzeko. Hizkuntza politika lurraldearen berezitasuna eta oinarria izanik, zerbitzu publiko eleaniztunen aldeko eta eremu publikoan erabilitako hizkuntza bizien aldeko dinamika horren baitan sartzen da.

3. ardatza bi lehen ardatzetan bermatzen da –lurraldearen baliabideak eta bere hiri eta herrien bizitasuna– Ipar Euskal Herriko garapen ereduak (berriz) asmatzeko, gaur egungo erronkei begira eta mugaz gaindiko anbizio jarraikiarekin. Elkargoak bi politika nagusi eta osagarri ditu, garapen ekonomikoa eta goi-mailako irakaskuntza. Ikerketaren eta berrikuntzaren alde egiten du hautaturiko aktibitate-eremuetan, lurralderako tira handikoak, eta horren bidez lanean ari da beharrezkoa den trantsizio ekologiko eta energetikoarekin loturiko formakuntza-perspektibak eta enplegu kalifikatuak gazteei eskaintzeko. Aterabide berrietan bermatzen da hondakin gutiago ekoizteko eta hauen balorizazioa hobetzeko. Halaber, karbonorik gabeko mugikortasun aterabideen alde ere engaiatzen da, auto indibidualari alternatiba eraginkorra eskaintzeko. Bestalde, politika turistikoaren xedea da joan-etorriak urte osoan zehar hedatzea eta lurralde osoan, turismo iraunkorrari buruz engaiatzeko.

Beti beharrezkoa den trantsizio ekologikoari dagokionez, Euskal Elkargoa lanean ari da tokiko eta kalitatezko elikadura biztanleei proposatzeko eta laborarien irabaziak emendatzeko.

## **Lurralde-proiektua: Gobernantza-itunaren, Urte aintzeko Inbertsio-Planaren eta Fiskalitate- eta finantza-itunaren korolaria**

Elkargoko lehendakariak, lehendakariordeek, gaikako eta lurraldeko kontseilariak, kontseiluek eta batzordeek lurraldearen alde eramatea engaiatzen diren ekintza publikoari zentzua ematen dio. Dokumentu honek laburbiltzen ditu eta lotzen jadanik eskema estrategikoetan eta aurrekontuetan diren eta bozkatu diren xede guztiak. Euskal Elkargoak asumitzen dituen 21 politika publikoetarik bakoitzean eraman ekintzak eta engaiamenduak erakusten ditu.

Agintaldi honetarako balio du, eta egoera edozein izanik ere, herrien eta Euskal Elkargoaren ekintza komunaren oinarriez xedatzen du. Partaide instituzionalekin loturiko hitzarmenak errazten dira, hauek ere biziki aldatzen diren testuinguruen eta erronken arabera berrikusketa estrategikoak egiten baitituzte. Dokumentu honek aipaturiko kontratuzko dokumentuekin bat etortzea du xede, beraz.

Lurralde-proiektua 2020an onartu gobernantza-itunaren jarraipena da eta denbora berean apailatu bi dokumenturen ondorio: Urte aintzeko inbertsio plana (PPI) eta Herriarteko fiskalitate- eta finantza-ituna. Horregatik da dokumentu hau programatikoa eta horregatik ez ditu neurriei loturiko zenbaki eta finantzamenduak aletzen. Lurralde-proiektuko operazioen zenbatekoak, Fiskalitate- eta finantza-itunean, Urte aintzeko Inbertsio-Planean eta urtero bozkaturiko aurrekontuetan izanen dira irakurgai.

## **50 engaiamendu, 90 ekintza**

Lurralde-proiektu honek bi bilduma osagarri baditu.

1. bildumak Euskal Hirigune Elkargoaren xede estrategikoak aurkezten ditu. 50 engaiamendu eta 90 ekintzen bidez, erakusten du biziki manera konkretuan zein diren Euskal Elkargoaren erantzunak lurraldeak dituen desafioen aitzinean, gauzatu eskumen bakoitzean.

2. bildumak, zeina lurralde bakoitza kontsultatu ondoan apailatu baita, Euskal Elkargoaren lurraldekako lan programa aurkezten du. 10 lurralde eremuetarako, eta politika publiko guzietarako, 2. bildumak azaltzen du Euskal Elkargoaren ekintza nola hedatzen den lurraldean. Urtero eguneratuko da aurrekontuen kariatara bozkaturiko diren ekintza berriak kontuan hartzeko.

Lurralde-proiektu hau beraz oinarrizko dokumentu bat da, baliabide bat, aldi berean proiektua, engaiamendua eta bide-orria. Erreferentzia bat izateko xedea du, hari nagusi bat, gauzatze pragmatikoak eta obratze kolektiboak inplikatzeko dituenak.

# UN TERRITOIRE DE PROJETS, UN PROJET POUR LE PAYS BASQUE



Créée en janvier 2017, la Communauté Pays Basque, forte de 158 communes et de plus de 315 000 habitants, incarne l'ambition pour ce territoire de porter un destin commun, riche de ses diversités. En cinq ans, de débats en décisions, la Communauté a réussi à rendre concrète par son action cette revendication institutionnelle ancienne rassemblant élus et société civile. L'institution intègre désormais plus de 1 200 agentes et agents répartis sur l'ensemble du Pays Basque au service de 21 politiques publiques décidées à l'unanimité par les élus du Conseil Communautaire.

Si la construction commune reste à parfaire, cette institution est observée bien au-delà du territoire et apparaît d'ores et déjà comme un acteur incontournable de l'action publique locale et un laboratoire d'idées. Le modèle choisi pour cette intercommunalité garantit une action à la fois stratégique et de proximité sur l'ensemble du Pays Basque. Un projet collectif original et ambitieux qui s'applique ainsi à tout le territoire et est déployé grâce à l'action des services communautaires au plus proche du terrain. 70% des agents œuvrent au quotidien en services déconcentrés et la gestion des équipements communautaires de proximité est confiée aux pôles territoriaux.

## Un Pays Basque uni et engagé pour relever le défi climatique

Point fondamental, le Pays Basque a su se fédérer et s'organiser à un moment où des enjeux cruciaux se posent aux territoires. Nul ne peut en effet ignorer que s'accroissent de façon brutale le dérèglement climatique, la diminution des ressources, que se précisent les pénuries d'eau ou encore des baisses inquiétantes de la qualité de l'air. Sans équivoque et pour la première fois, le 6ème rapport du GIEC attribue le réchauffement de la planète aux activités humaines. Le seuil de + 1,5°C pourrait être atteint en 2030 soit 10 ans plus tôt que la précédente estimation des scientifiques. La Communauté Pays Basque constitue une opportunité historique pour relever ce défi climatique autant que ce défi climatique l'oblige. En effet, son héritage, son unité et sa physionomie lui confèrent une puissance transformatrice bien supérieure aux dix anciennes intercommunalités et anciens syndicats intercommunaux. C'est en cela que ce projet de territoire revêt une importance décisive. Il sera la marque de l'engagement collectif pour l'avenir du Pays Basque.

### Il se déploie en 3 axes, articulant les 21 politiques publiques :

- Pour un Pays Basque résilient : préserver nos ressources ;
- Pour un Pays Basque vivant et habité : dynamiser nos villes et villages ;
- Pour un Pays Basque engagé : réinventer nos modèles de développement.

Le socle du projet, l'axe 1, est constitué des ressources du territoire : l'espace agricole, la forêt, les espaces naturels, la ressource en eau, la biodiversité, les paysages doivent être protégés. Non pas pour sanctuariser un Pays Basque fantasmé, mais bien parce que l'adaptation au changement climatique l'impose. Il s'agit là d'un atout majeur, d'un capital qu'il convient de faire fructifier et dont la préservation est un préalable indispensable à toute politique publique.

L'axe 2 vise à faire du Pays Basque un territoire en tout point vivant et habité en luttant contre les villes dortoirs et l'étalement urbain, là encore des prérequis environnementaux et sociaux indispensables. En dynamisant les villes et villages, elle porte une vision du Pays Basque en réseau, gage d'une véritable cohésion sociale et territoriale. C'est tout le sens de nombreuses actions de la CAPB qui prévoient de manière



totallement inédite un rééquilibrage territorial : Programme local de l'habitat, Programme Petites villes de demain, Parc naturel régional Montagne basque, maillage du territoire en équipements sportifs, culturels et de services à la population, en solutions numériques, en très haut débit, en conseillers numériques mais aussi politique de la ville, lutte contre la désertification médicale ou encore ingénierie aux communes. Particularité et ciment du territoire, la politique linguistique s'inscrit également dans cette dynamique pour des services publics plurilingues et des langues vivantes dans l'espace public.

Le troisième axe s'appuie sur les deux premiers – les ressources du territoire et la vitalité de ses villes et villages - pour (ré)inventer les modèles de développement du Pays Basque en réponse aux grands enjeux contemporains et avec une ambition transfrontalière constante. La Communauté porte ainsi deux politiques majeures et complémentaires, le développement économique et l'enseignement supérieur. Elle fait le pari de la recherche et de l'innovation dans des domaines d'activités choisis et porteurs pour le territoire et travaille ainsi à offrir aux jeunes des perspectives de formation et d'emplois qualifiés en lien avec la nécessaire transition écologique et énergétique. Elle s'appuie sur des solutions innovantes pour réduire la production de déchets et améliorer leur valorisation. Elle s'engage également pour des solutions de mobilité décarbonées permettant une alternative efficace à la voiture individuelle. La politique touristique prévoit par ailleurs de lisser les flux à l'année et sur l'ensemble du territoire pour s'engager dans la voie d'un tourisme soutenable.

Toujours sur le plan de la nécessaire transition écologique, la Communauté Pays Basque contribue à proposer une alimentation locale et de qualité aux habitants tout en améliorant les revenus des paysans.

## **Un projet de territoire corollaire du pacte de gouvernance, du Plan pluriannuel d'investissement et du Pacte fiscal et financier**

Il donne le sens de l'action publique que le Président, les Vice-présidents, les conseillers thématiques et territoriaux, et les conseils et commissions de la Communauté s'engagent à porter en faveur du territoire. Le présent document synthétise et articule l'ensemble des ambitions déjà inscrites et votées dans les différents schémas stratégiques et dans les différents budgets. Il donne à voir les engagements et les actions portés dans chacune des 21 politiques publiques assumées par la CAPB.

Inscrit sur le temps du mandat, il présente l'intérêt, quelle que soit la conjoncture, de disposer des fondamentaux de l'action conjointe des communes et de la Communauté d'agglomération. Les contractualisations avec les partenaires institutionnels, qui eux-mêmes procèdent à des révisions de stratégies au regard d'un contexte et d'enjeux qui évoluent fortement, s'en trouvent facilitées. Ce document veille donc à être en accord avec ces documents contractuels.

S'inscrivant en continuité du pacte de gouvernance adopté en 2020, le projet de territoire est le corollaire de deux documents élaborés dans la même temporalité : le Plan pluriannuel d'investissement (PPI), et le Pacte fiscal et financier intercommunal. C'est pourquoi ce document se veut programmatique et ne comporte pas les chiffres et le financement des mesures. Il conviendra de se reporter au Pacte Fiscal et Financier, au PPI et aux budgets votés chaque année pour retrouver les montants relatifs aux opérations inscrites dans ce projet de territoire.

## **50 engagements, 90 actions**

Ce projet de territoire se compose de deux cahiers complémentaires.

Le cahier 1 présente les ambitions stratégiques de la Communauté d'Agglomération du Pays Basque. Au travers de 50 engagements et 90 actions, il donne à voir de manière très concrète les réponses de la CAPB aux défis que rencontre le territoire dans chacune des compétences exercées.

Le cahier 2, fruit de la consultation de chaque territoire, présente le programme de travail territorialisé de la CAPB. Dans chacun des 10 pôles, et pour l'ensemble des politiques publiques, le cahier 2 illustre le déploiement de l'action de la CAPB sur le territoire. Il sera mis à jour chaque année pour prendre en compte les nouvelles actions votées dans le cadre des budgets.

Ce projet de territoire est donc un document cadre et ressource, à la fois un projet, un engagement, une feuille de route. Il se veut ainsi un repère, un fil conducteur qui implique une mise en œuvre pragmatique et des réalisations collectives.

# UN TERRITÒRI DE PROJÈTES, UN PROJÈTE ENTAU PAÍS BASCO



Creada en genèr de 2017, la Comunautat País Basco, hòrta de 158 comunas e de mei de 315 000 abitants, qu'incarna l'ambicion entad aqueth territòri de portar un destin comun, ric de las soas diversitats. En cinc ans, de debats en decisions, la Comunautat que s'i es escaduda a har concrèta per la soa accion aquera reivindicacion institucionau anciana amassant elejuts e societat civila. L'institucion intègra d'ara enlà mei de 1 200 agentas e agents despartits sus l'ensemble deu País Basco au servici de 21 politicas publicas decididas a l'unanimitat peus elejuts deu Conselh Comunautari.

Si la construccion comuna demora a complir, aquera institucion qu'es observada plan au delà deu territòri e qu'apareish d'ara enlà com un actor de compte har de l'accion publica locau e un laboratòri d'idèas. Lo modèle causit entad aquera intercomunalitat que garanteish ua accion au còp estrategica e de proximitat sus l'ensemble deu País Basco. Un projècte collectiu originau e ambiciós qui s'aplica atau a tot lo territòri e qu'es desplegat gràcias a l'accion deus servicis comunautaris au mei pròche deu terrenh. 70% deus agents qu'òbran au quotidian en servicis desconcentrats e la gestion deus equipaments comunautaris de proximitat qu'es hidada aus pòles territoriaus.

## Un País Basco unit e engatjat entà relhevar lo desfís climatic

Punt fundamentau, País Basco que s'a sabut federar e organizar a un moment on enjòcs cruciaus se pausan aus territòris. Arrés non pòt pas en efèit ignorar que s'accelèra de faïçon brutau lo desreglament climatic, la diminucion de las ressorsas, qui se precisan las penurias d'aiga o enqüèra de las baishas inquietantas de la qualitat de l'aire. Shens equivòc e peu purmèr còp, lo 6au rapòrt deu GIEC qu'atribueish lo rescauhament de la planeta a las activitats umanas . Lo lindau de + 1,5°C que poiré estar atenhut en 2030 sia 10 ans mei de d'òra que la precedent estimacion deus scientifics. La Comunautat País Basco que constitueish ua oportunitat istorica entà relhevar aqueth desfís climatic autant qu'aqueth desfís climatic l'obliga. En efèit, lo son eretatge, la soa unitat e la soa fisionomia que lo confereishen ua poténcia transformadora plan superiora a las dètz ancianas intercomunalitats e ancians sindicats intercomunaus. Qu'es en aquò qu'aqueth projècte de territòri revesteish ua importància decisiva. Que serà la mèrca de l'engatjament collectiu entà l'aviéner deu País Basco.

### Que's desplega en 3 èishs, articulant las 21 politicas publicas :

- Entà un País Basco resilient : preservar las nòstas ressorsas ;
- Entà un País Basco viu e abitat : dinamizar las nòstas vilas e vilatges ;
- Entà un País Basco engatjat : reinventar los nòstes modèles de desenvolopament.

Lo sòcle deu projècte, l'èish 1, qu'es constituït de las ressorsas deu territòri : l'espaci agricòla, lo bòsc, los espacis naturaus, la ressorsa en aiga, la biodiversitat, los paisatges que deven estar protegits. Non pas entà sanctuariser un País Basco fantasmé, mes plan pr'amor que l'adaptacion au cambiament climatic l'impausa. Que s'ageish aquí d'un atot màger, d'un capitau qui convien de har fructificar e dont la preservacion es un prealable indispensable a tota politica publica.

L'èish 2 qu'a per mira de har deu País Basco un territòri beròi viu e abitat en lutant contra las vilas dromiders e l'espandida urbana, aquí enqüèra deus prerequesit environamentaus e sociaus indispensables. En dinamizant las vilas e vilatges, que pòrta ua vision deu País basco en hialat, gatge d'ua vertadera coèision sociau e territoriau. Qu'es tot lo sens de nombrosas accions de la CAPB qui preveden de faïçon totaument inedita un

reequilibratge territorial : Programa locau de l'abitat, Programa Petitas vilas de doman, Parc naturau regionau Montanha basca, hialatge deu territòri en equipaments esportius, culturaus e de servicis a la poblacion, en solucions numericas, en hèra haut debit, en conselhèrs numerics mes tanben politica de la vila, luta contra la desertificacion medicau o enquèra engenhèria a las comunas. Particularitat e ciment deu territòri, la politica lingüistica que s'inscriu egaument dens aquera dinamica entà servicis publics plurilingües e de las lengas vivas dens l'espaci public.

Lo tresau èish que s'apièja suus dus prumèrs – las ressorsas deu territòri e la vitalitat de las soas vilas e vilatges - entà (tornar) inventar los modèles de desenvolopament deu País Basco en responsa aus grans enjòcs contemporanèus e dab ua ambicion transfrontalèra constanta. La Comunautat que pòrta atau duas politicas màgers e complementàrias, lo desenvolopament economic e l'ensenhament superior. Que hè la jòga de la recèrca e de l'innovacion dens maines d'activitats causits e portaires entau territòri e que tribalha atau a auherir aus joens perspectives de formacion e d'emplecs qualificats en ligam dab la necessària transicion ecologica e energetica. Que s'apièja sus solucions innovantas entà redusir la produccion de dèishas e melhorar la lor valorizacion. Que s'engatja egaument entà solucions de mobilitat descarbonadas qui permeten ua alternativa eficaça a l'auto individuau. La politica toristica que preved d'un aute costat de lissar los flus a l'annada e capvathl'ensemble deu territòri entà s'engatjar dens la via d'un torisme sostenible.

Tostemps suu plan de la necessària transicion ecologica, la Comunautat País Basco que contribueish a prepausar ua alimentacion locau e de qualitat aus abitants tot en melhorant los revienuts deus paisans.

## **Un projècte de territòri corollari deu pacte de governança, deu Plan pluriannau d'investiment e deu Pacte fiscau e financèr**

Que balha lo sens de l'accion publica qui lo President, los Vicepresidents, los conselhèrs tematics e territoriaus, e los conselhs e comissions de la Comunautat que s'engatjan a portar en favor territòri. Aqueste quite document que sintetiza e qu'articula l'ensemble de las ambicions dejà inscrivudas e votadas dens los diferents esquèmas estrategics e dens los diferents budgets. Que balha a véder los engatjaments e las accions portats dens cadua de las 21 politicas publicas assumidas per la CAPB.

Inscrivut suu temps deu mandat, que presenta l'interès, quau que sia la conjuntura, de dispausar deus fundamentaus de l'accion conjunta de las comunas e de la comunautat d'aglomeracion. Las contractualizatcons dab los partenaris institucionaus, qui eths medishs e procedeishen a revisions d'estrategias en espiair un contèxte e enjòcs qui evoluan hèra, que se'n tròban facilitadas. Aqueth document que velha donc a estar en acòrd dab aqueths documents contractuaus.

En s'inscriver en continuitat deu pacte de gouvernance adoptat en 2020, lo projècte de territòri qu'es lo corollari de dus documents elaborats dens la medisha temporalitat : lo Plan pluriannau d'investiment (PPI), e lo Pacte fiscau e financèr intercomunau. Qu'es pr'amor d'aquò qu'aqueth document e's vòu programatic e ne compòrta pas las chifras e lo finançament de las mesuras. Que convienerà de's reportar au Pacte Fiscau e Financèr, au PPI e aus budgets votats cada annada entà retrobar los montants relatius a las operacions inscrivudas dens aqueth projècte de territòri.

## **50 engatjaments, 90 accions**

Aqueth projècte de territòri que's compausa de dus quasèrns complementaris .

Lo quasèrn 1 que presenta las ambicions estrategicas de la Comunautat d'Agglomeracion deu País Basco. Per 50 engatjaments e 90 accions, que balha a véder de faïçon plan concrèta las responsas de la CAPB aus desfis qui encontra lo territòri dens cadua de las competèncias exercidas.

Lo quasèrn 2, frut de la consulta de cada territòri, que presenta lo programa de tribalh territorializat de la CAPB. Dens cadun deus 10 pòles, e entà l'ensemble de las politicas publicas, lo quasèrn 2 illustre lo desplegament de l'accion de la CAPB suu territòri. Que serà actualizat cada annada entà préner en compte las navèras accions votadas dens l'encastre deus budgets.

Aqueth projècte de territòri qu'es donc un document cadre e ressorsa, au còp un projècte, un engatjament, ua huelha de rota. Que's vòu atau ua mèrca, un hui conductor qui implica ua començada pragmatica e de las realizacions collectivias.

# aurkibidea

## **Ipar euskal herri erresiliente baten alde: gure baliabideak zaindu**

**P.14**

Klima airea energia / Bioaniztasuna

P.16

Ur zikloaren kudeaketa integratua

P.20

Itsasbazterra eta itsasoa

P.24

Hirigintza eta eremuen antolaketa

P.28

Elikamolde iraunkorra

P.32

## **Herritarrez beteriko ipar euskal herri bizi baten alde: gure hiri eta herriak bizkortu**

**P.36**

Bizilekua eta jende ibiltariak

P.38

Herriei eskainitako elkargo-ingeniari-tza, hiri- eta baserri-garapena

P.42

Kultur partaidetzak

P.46

Hizkuntza politikak

P.50

Lurraldeko antolaketa numerikoa eta erabilpen numerikoak

P.54

Mendia

P.58

Hiri-politika

P.62

Gizarte kohesioa

P.66

Kirol-, kultura- eta herritarrendako zerbitzu-ekipamenduak

P.70

## **Ipar euskal herri engaiatu baten alde: gure garapen ereduak berriz asmatu**

**P.74**

Garapen ekonomikoa

P.76

Goi-mailako irakaskuntza, ikerketa eta formakuntza

P.80

Azpiegitura eta mugikortasunak

P.84

Laborantza, elikagaigintza, arrantza

P.88

Mugaz gaindiko eta europar lankidetzak

P.92

Hondakinen prebentzioa, bilketa eta balorizazioa

P.98

Turismo iraunkorra

P.102

#Engaiamenduak

P.106













**IPAR euskAL  
HERRI  
ERRESILIENTE  
BATEn ALDE:**

**GURE BALIABIDEAK  
ZAINDU**

# KLIMA airea energia

## BIOaniztasuna



~ Klima larrialdiak mobilizatze errepikakor eta gero eta jendetsuagoak eragiten ditu mundu mailan bezainbat hemen ere. Lurralde bakoitzari bere ardurak hartzeko gomita luzatzen dio, klima-airea-energia estrategia boluntarista eta deliberatu bati jarraikiz. 2018tik aitzina, Euskal Elkargoko hautetsiak eta Ipar Euskal Herriko gizarte zibila elkartu dira eta lanari ekin diote 2021eko ekainaren 29an bozkatua izan den Lurraldeko klima plana apailatzeko.



### EUSKAL ELKARGOAK EKARRITAKO BALIO ERANTSIA

Euskal Elkargoaren sortzeari esker Ipar Euskal Herriak, zeina eskala koherentea baita kolektiboki antolatzen eta trantsizio ekologikorako giltzarriak diren palanken aktibatzen, Lurraldeko Klima Airea Energia Plana apailatzeko eta animatzeko eskumena duen HELEP bat badu eskuartean.

Eragileen mobilizazioa faboratzen duen Ipar Euskal Herrian, duela hamar bat urte abian ezarri lurralde mailako garapen iraunkor dinamika kolektibo bati jarraipena ematen dio Euskal Elkargoak.

Ipar Euskal Herriari, Hazkunde Berdearen aldeko Trantsizio Energetikoko Legeko (LTECV, 2015) Frantzia mailako helburuak eta Akitania Berrian SRADDET-en baitan finkatu eskualdeko helburuak kausitzeko, parte aktiboa hartzeko aukera eman dion ibilbide bat landu dute.

“

Apailatzeko garaian, ikuspegi ahal bezain zabalaren inguruan eraikia izan den Ipar Euskal Herriko Klima Planaren helburua da Ipar Euskal Herria energia mailan lurralde neurriduna eta ekologia eta sozial mailan erresilientea bilakatzea 2050 urteari begira.

”

# engaiamenduak

Ipar Euskal Herriaren onurako hiru xede egituratzaile finkatzen ditu Klima Planak 2050era begira:

- **Energia positiboko lurraldea bilakatzea,**
- **Denentzako karbono apaleko bizimodua eta aktibitateak ahalbidetzea,**
- **Denen osagarria eta ondare naturala zaintzen dituen lurralde erresilientea izatea.**

Euskal Elkargoari, nahasmendu klimatikoa mugatzea eta heldu diren aldaketei egokitzea laguntzen ahalbidetzen dioten hiru helburu konkreturen bitartez adieraz daitezke hiru nahikeri hauek.

## 1. engaiamendua:

### > **Energia positiboko lurraldea bilakatu**

**Energia urritasuna, eraginkortasun energetikoa eta energia berriztagarrien ekoizpena:** triptiko honen baitan kokatzen da Ipar Euskal Herriko estrategia. Energiaren erabilpen guzietan urritasun jarrerak orokortzeko eta enpoilketaren aurka borrokatzeko tresnak abian ezartzen ditu Euskal Elkargoak. Eraikinen eraginkortasun energetikoa, eta berezikiago bizitegiarena, bilatzen duten tresnak garatzen ditu, Tokiko Bizileku-Programarekin (TBP) loturan. Erreferentziako egoeran (2019) oinarrituz, 2030 urte bukaerako energia kontsumoaren % 16ko apaltzea du helburu. Bestalde ere, Ipar Euskal Herriaren energia fosilekiko dependentzia handia da. Klima Planari esker, tokiko sare energetikoetarako ekoizpen ahalmen desberdinak identifikatuak izan dira eta energia berriztagarrietan oinarritu ekoizpena bikoiztea du helburu 2030erako.

## 3. engaiamendua:

### > **klima-aldaketari egokitu, Ipar Euskal Herriko herritarrak, jarduerak eta baliabideak zaintzeko**

Bizi dugun klima-aldaketa hainbat seinaleen bitartez agertzen zaigu: tenperaturen goititzea, beroaldien emendatzea, izozte egunen apaltzea eta erregimen hidrikoen bilakaera. Itsasoaren mailaren goititzean, lurren idortzean, lur mugimenduen emendatzean ere eragina dute nahasmendu klimatikoek. Ipar Euskal Herrian, arriskuen intentsitatea kontuan hartuz eta landaredian, faunan, osagarrian dituzten ondorioak ikusirik, lurraldeak aldaketa hauei egokitu behar du.

Horretarako, Euskal Elkargoa engaiatzen da natura eta laborantzako guneak zaintzeko, uraren kudeaketa integratuari eusteko, lurraldearen erresistentzia areagotzeko biztanleriak arriskuez jabetzeko eta birkokatze ekintzak burutzeko.

## 2. engaiamendua:

### > **karbono apaleko eta gutiago kutsatzen duen lurraldea bilakatu**

Karbono apaleko bidean abiatzen da Euskal Elkargoa. Baliabide desberdinak hautemanak izan dira hemendik 2030era berotegi-efektuko gasak % 18z apalarazteko (2019ko erreferentziako egoerari konparatuz). Ipar Euskal Herri-Aturriko Mugikortasunen Sindikatuak (Mugikortasunen Sindikatua) gidaturiko eta 2021ean finkaturiko Mugikortasun-Plana sartzen da engaiamendu horretan, autoen zatia

% 70etik 52ra apalarazteko asmoarekin hemendik 2030era.

Lurraldeko karbono bahitze ahalmenaren garapena ahalbidetzea helburutzat finkatzen du bestalde Klima Planak, natura eta laborantzako eremuak babestuz bai eta Ipar Euskal Herriko soroak eta oihanak kudeatuz.

# ekintzak

Klima Airearen Energia eta Bioaniztasun politika publikoak oihartzun bat dauka Euskal Elkargoak eraman politika publiko guzietan. 2021-2026 Klima Planaren lehen programazioa ondoko 8 ardatzen inguruan antolatua da:



## >> KLIMA-ALDAKETARI EGOKITU

Natura-ondarearen eta bioaniztasunaren, ur baliabidearen eta arrisku naturalen prebentzioa eta kudeaketaren zaintza hunkitzen dituzte begiztaturiko ekintzek. Euskal Elkargoak lan egiten du arriskuaren kultura bat garatzeko eta itsasbazterreko arriskuen parean biztanleen laguntzeko arriskuen / gibel-egite ekintzen onargarritasunari buruz: Donibane Lohizuneko Ipar itsasbazterreko gunearen berrantolaketa Estatuarekin partaidetzan abiatutako ekintza programa baten bitartez.



## >> ENERGIA URRITASUNA ETA ERAGINKORTASUNA LAGUNDU

Ekintza hauek nagusiki bizilekuen berrikuntza energetikoa bilatzen dute. Herritar guzien informatzeko eta urrikako aholkuak ekartzeko Euskal Elkargoak bizilekuen berrikuntza energetikoaren plataforma sortuko du.



## >> ELIKADURA PRAKTIKA ETA LABORANTZAKO EKOIZPEN MOTA JASANGARRIEI LEHENTASUNA EMAN

Laborantzako ekoizpen praktika arduratsu eta askotarikoak sustatzea dute helburu ekintza hauek herritarrentzat elikadura sana eta kalitatezkoa eta baliabideak zaintzeko eta Berotegi-Efektuko Gasen (BEG) isurketen erregulazio beharrei eta ingurumen arloko erronkei erantzuteko gisan. Tokiko eskaerari erantzuten dioten elikadura sareen garapena eta egituratzea laguntzen du Euskal Elkargoaren Lurraldeko Elikadura Proiektuak.



## >> POST-KARBONO LURRALDEA PLANIFIKATU ETA ERAIKI

LuKE, hTHP motako planifikatze tresnak, klima-energia-erronkei erantzuteko baliabideak bilakatzea dute xede ekintzek. Lurraldeen erresilientzia eta karbono erreserba epe luzera atxikitzeko gisan, hTHPeke laborantza-lurrak eta natura gunek zainduko dituzte hemendik aitzina.



## >> OSAGARRIA ZAINTEKO, PRAKTIKAK ALDATU

Mugikortasun praktika berriak garatzea, mentalitateak eraldatzea, garraio publikoak areagotzea, mugikortasunaren nahaste-energetikoa deskarbonizatzea dute helburu ekintza hauek. Euskal Elkargoak eta Mugikortasun Sindikatuak lan egiten dute ibilgailu errotadunak karburazio sistema alternatiboekin ibil daitezen.



= Klima plana



## >> **BESTE MOLDE BATEZ EKOIZTU ETA KONTSUMITU**

Ekintza hauek hondakinen murriztea eta xahutzea saihestea dute xede, bai eta berriz erabiltzeko sareen eta birziklatzearen garatzea eta ekonomia zirkularren garatzea ere. Euskoaren garapena sustengatzen eta jarraitzen du Euskal Elkargoak, bai eta birziklatze/berrerabilera leku berri batzuen eraikitzea prestatzen ere ekonomia zirkularra bultzatzeko.



## >> **ENERGIA BERRIZTAGARRIEN EKOIZPENA EMENDATU**

Energia berriztagarrien garapena lurraldean laguntzea dute xede ekintza fletxatuek, hobiak begizatuz eta tokiko potentziala duten sareen garapena diruz sustengatuz. Berokuntza sareak garatzen ditu Euskal Elkargoak eta energia termikoei eskaini Lurralde kontratu bat animatzen ere. Lurraldeko Energiaren Agentzia bat sortzea aztertzen du Euskal Elkargoak, urritasun energetikoa eta energia berriztagarrien hedapenaren zerbitzuko izanen den diru eta teknika arloko ingeniari bat denen esku jartzeko.

### **PARTAIDE NAGUSIAK**


**Klima Planaren partaide nagusiak:** herriak, Departamendua, SDEPA, Eskualdea, Estatua, SDEPA, ADEME, Uraren Agentzia, Ipar Euskal Herriko Garapen Kontseilua, ganbera kontsularrak, lurraldeko elkarteak, enpresak, herritarrak.

> **Beste politika publiko guzietan loturan:** Hirigintza eta Eremuen antolaketa, Bizilekua, Garapen ekonomikoa, Uraren zikloaren kudeaketa integratua, Kirol-, kultura- eta herritarren zerbitzu- ekipamenduak, Azpiegiturak eta mugikortasunak, Laborantza, Elikagaigintza, Arrantza, Elikamolde iraunkorra, Turismoa, Gizarte kohesioa, Prebentzioa, hondakinen bilketa eta balorizazioa, Mendia, Itsasbazterra eta Itsasoa.

> **Urrunago joateko:** <https://www.climataction-paysbasque.fr/public/page/plan-climat-pays-basque-les-documents.8.html>







# URAREN ZIKLOAREN KUDEAKETA INTEGRATUA

Denen ondasuna izanki, baliabide baliotsua da ura, bai eta mehatxatua ere, eta ondorioz kudeaketa publiko eraginkor eta egonkor baten beharra du. Uraren politikaren gidaritzza baliagarria zaie inguruneen kalitatearen zaintzaren gisako osagarri publikoko eginbeharrei. Pertsonen segurtasunaren eta osagarriaren arloetan (uholdeak, itsasbazterreko arriskuak, ur masen oreka eta kalitatea) ekintza egituratzen duen pentsamoldea bilakatzen da arriskuen prebentzioa.



## EUSKAL ELKARGOAK EKARRITAKO BALIO ERANTSIA

Euskal Elkargoa sortuz, uraren zikloko osagai desberdinak aginte bakarraren pean ezarriak izan dira. Aldi berean, « uraren ziklo tipia » ere deitua den uraren etxeko zikloa (edateko ura, ur zikinak, euri-urak) eta « uraren ziklo handia » ere deitua den uraren ziklo naturala (uholdeen aurkako prebentzioa, ur inguruneen zaintza) kudeatzen ditu. Kudeaketa integratu honek ekintza koordinatuak eta koherenteak bermatzen ditu lurraldean, edateko uraren hornidura bermatzeko perspektiba berriak eskainiz (interkonexioz), dentsitate gutiko lurraldeetan obrak abian ezarriz, prezio harmonizatuak eskainiz eta prezio sozialak aurreikusiz.

## engaiamenduak

### 4. engaiamendua:

➤ **Denei kalitatezko edateko ura eskuratzeko aukera bermatu**

Uraren kudeaketaz eta saneamenduz arduratuz, erabilizaileentzako uraren ziklo osoa segurtatzen du Euskal Elkargoak. Edateko uraren banaketa segurtatzeko, ur gordina ingurune naturalean hartzen du kolektibitateak (lur azpitik edo zuzenean erreketan), edangarria bilakarazten du, garraiatzen du, eta biltegitratzen du dutxulura helarazi aitzin. Zainketa jarraikia eskaintzen zaio edateko ur horri. Lurraldeko ur baliabideei buruzko ikerketa bat burutzen du gaur egun Euskal Elkargoak, gune kritikoenetan edateko ur horren banatzeko baldintzak hobetzeko asmoz. Prezioen harmonizazio bat ere abian ezarria izan da eta, bere gizarte kohesio politikaren ildotik, prezio sozial bat proposatua izanen da.

Erabiliak izan ondotik, 117 araztegi-tako batera buruz bideratuak dira urak, saneamendu kolektiboko 1 940 km inguruko hodian bitartez. Beste aldetik, Ipar Euskal Herriko herritarren % 20 inguruk saneamendu muntadura ez-kolektiboa dute. Euskal Elkargoak muntadura horiek zaintzen ditu botakinek natura ingurunean buka ez dezaten.



## 5. engaiamendua:

### > Erreken kalitatea hobetu

5.000 km-ko erreka sare hidrografikoa atzematen da Ipar Euskal Herrian. Partaidetza urrats batean sartu da Euskal Elkargoa (laborariak, industriak, herriak) ur ingurune hauek molde iraunkorren babesteko asmoz. Azterketa bakteriologiko, kimiko (pestizidak) eta biologikoen bidez jarraitzen du erreken kalitatea. Ipar Euskal Herrian bost arro hidrografiko daude eta bakoitzaren erronkei egokituak zaizkie azterketen maiztasunak eta parametroak.



## ekintzak



### >> UHOLDEEN PREBENTZIO-OBREN ERAIKUNTZA ETA IRAUNKORTASUNA SEGURTATU

Uholdeen saihesteko lan egiten du Euskal Elkargoak (estazio meteorologikoen segipena, uraren goratasun zundak, uholdeen aitzin alerta zerbitzua).



### >> HIRIKO EURI-UREN KUDEAKETA BERMATU

2020az geroztik, Euskal Elkargoak du hiriko euri-uren kudeaketa segurtatzen Ipar Euskal Herri osoan. Lehenasunezko esku-hartzeak finkatu ondoan hauek dira eginkizun horren xede nagusiak: ondarearen ezagutza garatzea, sareak eta ekipamenduak mantentzea, eta bilketa-sareak, berritzea, azkartzea eta hedatzea.



### >> ABONATUEKILAKO KALITATEZKO HARREMANAK BERMATU

Euskal Elkargoak erabiltzaileei hurbileko harrera bat eskaintzen die (buruz-burukoa edo telefono bidezkoa), kontagailuen irakurketa segurtatzen du eta lotura-obrak antolatzen ere (bere agenteekin edo enpresa pribatuekin). Fakturazioaz arduratzen da ere zuzenean edo enpresa ordezkari-tz hartzaileen bidez).



### >> DATUEN KUDEAKETA

Ondare kudeaketa hobeki menperatzeko eta instalazioen gidaritza laguntzeko.



### >> ERAGILE GUZIAK LAGUNDU ARRO HIDROGRAFIKOEN KUDEAKETA OROKOR BAT SEGURTATZEKO

Ipar Euskal Herriko erreka gehienek mantentzea ez da Estatuaren gain, horrek erran nahi du ur bazterreko jabea (publiko edo pribatua) dela erreka bazterren mantentzearen eta uren isurketa onaren arduraduna. Euskal Elkargoak laguntza ekartzen die biztanle hauei haien mantentze eginbide horretan.




= Klima plana



## >> UREN KALITATEA SEGURTATU BALIABIDEA KONTROLATUZ

Uren kalitatearen zainketa sistema bat plantan ezarri du Euskal Elkargoak (edateko uraren kontsumoari zuzenduak diren ur gordinak eta natura ingurunera bota izan aitzin bilduak eta tratatuak diren ur zikinak). Kutsadura forma orori aurre egitea bilatzen du ere.



Kudeaketa modua	Zuzeneko kudeaketa	Ordezkaritza
158 herri hornituak	72 (%46)	86 (%54)
Hornituriko biztanleen %	%31	%69

### URAREN KALITATEA ZAINDU

**1 371**

edateko ur kontrola  
Frantziako Osasun Agentziaren eskutik

**%97,7**  
araberkotasun bakteriologikoa

**%98,8**  
araberkotasun fisiko-kimikoa

**1 026**

bilan 24 orenez  
trataturako ur zikin isurketetan

**%86,7**  
araberkotasun



## >> KALITATEZKO AZPIEGITUREN ALDE MASIBOKI INBESTITU

100 milioi euro inguru inbestitzen ditu Euskal Elkargoak urte guzietan urari lotu politiken alde (saneamendua, edateko ura, ur inguruneen kudeaketa eta uholdeen prebentzioa).



## >> SANEAMENDU EZ-KOLEKTIBOAREN ZERBITZU PUBLIKOA

Kolektiboa ez den saneamenduko 23.000 muntadura kontrolatzen ditu Euskal Elkargoak.



## >> OBREN AUTOZAINZTA HEDATU

Esku-hartze epeak laburtzeko eta beraz osagarrian (edateko urari dagokionez) edo ingurumenean (saneamenduari dagokionez) ukan eragina mugatzeko.




## >> SAREEN ETA BALIABIDEEN USTIAKETA MODERNO ETA AURREZTAILE BATEN ALDE LAN EGIN

Edateko ura eta ur zikinen garraioa eta banaketa ustiatzen ditu Euskal Elkargoak, bai eta edateko uraren ekoizpen guneak eta araztegiak ere.

### UR ZIKINEN ISURKETA MENPERATU

261 000 biztanle

152 000 abonatu



36,3 MILIOI M<sup>3</sup> BILDUAK

Kudeaketa modua	Zuzeneko kudeaketa	Ordezkaritza
123 herri hornituak	84 (%68)	39 (%32)
Hornituriko biztanleen %	%30	%60

Sistemen araberakotasunak		
Europakoa	103/115	%90
Tokikoa	31/66	%47

> Beste politika publikoekiko zeharkakotasuna: Lurraldearen antolaketa, laborantza, Garapen ekonomikoa.

### PARTAIDE NAGUSIAK

Aturri-Garona uraren Agentzia, Uren kudeaketarako antolaketa eskemekin.


Estatuko eta (ARS, DDTM) Departamenduko zerbitzuak

GIS



= Klima plana

# ITSASBAZTERRA eta ITSASOA



40 kilometro inguruko itsasbazterra du Ipar Euskal Herriak, hauetarik 30, 10 eta 70 metroko goratasuna duten itsaslabar arrokatsuz osaturik. Biztanleriaren % 40 hartzen du biziki urbanizatua den euskal itsasbazterrak, 140.000 biztanle, itsasbazterreko 8 herritan banatuak direnak: Angelu, Biarritz, Bidarte, Getaria, Donibane Lohizune, Ziburu, Urruña eta Hendaia.

## engaiamenduak

### 6. engaiamendua:

#### > Bainatzeko uren kalitatearen alde ekin

Euskal Elkargoak, itsasbazterreko herriein eraman partaidetzaren baitan, 35 bainatze guneen kudeaketa aktiborako tresna berritzaileak plantan ezarri ditu (azterketa lasterrak eta modelizazioa). Hauetaz esker, uren kalitatea kasik mementoan berean iragartzeko aukera eskainia da: informazioa hunkitu auzapezei helarazia zaie, hauek baitute hondartzak irekitzeko edo hesteko erabakitze ahala eta sarean ezarria da Kalilo aplikazioan. Horretaz bestalde, urte guzietz kolektibitateak dirutza bat eskaintzen dio bainatzeko uren kalitatea bermatzeko: saneamendu sareen berriztatzea, biltegirotze-tangen eraikitzea, sareen bereiztea, araztegien gaitasunaren eta tratamenduen hobekuntza eta saneamendu sistemak araudiaren arabekoak direla kontrolatzea. Bainatzeko zonalde guziaz « kalitate bikaina » edo « kalitate ona » gisa sailkatzen ditu Eskualdeko Osasun Agentziak, bainatzeari dagokion europar zuzentarauari jarraikiz. Uren kalitateari buruzko ikerketa egitasmo desberdinetan parte hartzen du ere Euskal Elkargoak Euskal Itsasbazterreko Interes Zientifikoko Batasunaren baitan. Itsasoko goroldioei buruzko ikerketa bat abian ezarria izan da aurten adibidez, euskal itsasbazterrean gertatzen ari diren itsas belarren ugaritzeaz burutuko diren ikerkuntzen gisara.

Azkenik, Bandera urdina lortu nahi duten herrien hautagaitza txostenak koordinatu ditu Euskal Elkargoak. Gaur egun 4 herrik (Angelu, Biarritz, Bidarte eta Hendaia) lortu dute 14 hondartzei dagozkien labelizazio hau.



### EUSKAL ELKARGOAK EKARRITAKO BALIO ERANTSIA

Zaindu beharreko eremu hauskorra den Ipar Euskal Herriko itsasbazterrearen kudeaketak baliabide zintifikokoak eta dirua eskatzen ditu, zeinak itsasbazter osoa estaltzen duen Euskal Elkargo bezalako instituzio batek errazkiago mobilizatzen ahal baititu. Bestalde, itsasbazterreko bainatzeko uren kalitatea lurralde osoan urari goiti burutu ekintzen emaitza da bai eta saneamendu arloko obra programena ere, hor ere Ipar Euskal Herriko eremuaren zilegitasuna frogatuz. Azkenik, Euskal Elkargoko Garapen Ekonomikoko Eskemaren jarduera estrategikoetarik bat da ekonomia urdina eta potentzial ekonomiko handia du, itsasbazterra eta itsasoaren onurako.

## 7. engaiamendua:

### > Higadura eta urperatze arriskuen aurka borrokatu

Higatze eta urperatze arriskuen menpe dago euskal itsasbazterra. Lur higidurak aleatorioak dira eta itsaslabarra ukaldika hamarnaka metroz gibelarazten dute, itsasbazterreko lerroa 10 metroz gibelatuko delakoan hemendik 2025era eta 25 metroz 2050era, iragarpen guzien arabera. Honekin batera, itsasoaren eraso errepikakorrek erregulariki orotarazten dute Ipar Euskal Herriaren ahultasuna urperatze arriskuaren aurrean. Ohar hau eginik, datozen 20 edo 40 urteetan klima gorabehera hauei egokitzeko ekintza programa bateratu bat plantan ezartzen dute Euskal Elkargoak eta itsasbazterrean kokatu zortzi herriek: « Itsasbazterreko arriskuen kudeatzeko tokiko estrategia ». Gainera, Euskal Hirigune Elkargoak, Donibane Lohizuneko hiriarekin lankidetzan, Antolaketa Partaidetza Egitasmo (PPA) bat hedatzen hasi da 2021eko urritik. Honi esker, dirua biltzen ahal da, orotara 6,4 milioi €, eta hauetarik

2,6 milioi € Estatutik, « France Relance » planaren baitan. Estatuak, Euskal Elkargoak, Mugikortasunen Sindikatua eta Donibane Lohizune hiria biltzen ditu beraz, 2021-2024 egutegi tinkian, 5 ardatz nagusiren inguruan lan egiteko: itsasbazterreko lerroaren gibelatzeari egokitu, itsasbazterra berriz naturatu, turismo eskaintza egokitu, mugikortasuna berriz antolatu, araztegia berriz kokatu.

Klima eta Erresilientzia Legearen baitan, Estatuak behartzen du gogoeta bat abiatzera ondoko 100 urteei begirako itsasbazterreko lerroari buruz. Hor ere, Euskal Elkargoak ikerketa hori eramane du Seignautzeko (frantsesez Seignaux) Herri Elkargoarekin eta LuKErekin. Itsasbazterreko arriskuak modelizatzea ahalbidetu duen Marea mugaz gaindiko proiektuaren buru izan da ere.

## 8. engaiamendua:

### > Bioaniztasuna zaindu

Lau gunez osatua den itsasbazterreko eta itsasoko Natura 2000 sareaz arduratzen da Euskal Elkargoa eta honela, espezie babestuen zaintzen ditu bere partaideekin batera (Estatua, herriak).

## ekintzak



### >> BAINATZEKO UREN KALITATEA HOBETU

Bainatzeko uren aldeko ekintzak eta inbertsioak segitzen ditu Euskal Elkargoak. 2019az geroztik, hainbat egitasmo egituratzaile abiatu dira eta gaur egun oraindik indarrean daude: Baionako San Bernart araztegia eta Senpereko araztegiaren handitzea, edota ere Donibane Lohizuneko Artxiloa araztegiaren hobetzea, Bidarteko araztegiaren optimizazioa. Hendaiko araztegia osoki berritua izanen da, bere hustubidearekin batera, eta ikerketa batzuk abian ezarriak izan dira obra hauei begira.

Bainatzeko urekin eta itsasbazterreko urekin loturan, Departamenduz ere osatua den Kosta Garbia sindikatu mistoaren gidaritza hartu Euskal Elkargoak eta honen biziarazteaz arduratzen da. Badu zenbait urte orain honek hondakin flotagarriak Euskal itsasbazterreko itsas zabalean, 300 itsas-metro eta 3 miliaren artean, biltzen dituen ontzi bat pleitatu duela.

Honen osagarri gisa, Euskal Elkargoak ADELI eta MIFEN gizarteratze elkarteei ahala eman die garbiketa mekanikoz garbitzen ahal ez diren Euskal itsasbazterreko hondartzak eskuz garbi ditzaten.



### KALILO

Euskal Elkargoak KALIKO sortu du, bainatzeko uren baldintzei buruzko aplikazioa.



= Klima plana



## >> ITSASBAZTERRA ETA ITSASBAZTERREKO LERROA HIGADURAREN AURKA BABESTU ITSASBAZTERREKO LERROAREN GIBELATZEAREN ONDORIOAK AITZINETIK IKUSIZ

Hunkituak diren eragile publiko guziak (herriak eta Departamendua, itsasbazterreko kontserbatorioa, Eskualdea...) biltzen dituen Euskal erlaitzaren -Ziburutik Abadiaraino- etorkizunari buruzko ikerketa bat eramaten du Euskal Elkargoak 2019az geroztik, bere itsasbazterreko arriskuen kudeatzeko tokiko Estrategiaren baitan.

Lur higadura jasaten dituzten itsaslabarretako guneei desberdin batzuen jarraipena segurtatzen du ere datuak helarazteko herriari, eta hala behar izanez gero eremu hauek segurtatzeko eta erabiltzaileei informazio guziaz eskaintzeko gisan. Itsasbazterreko dinamikan molde erregular eta iraunkorren lortu behaketa eta datu bilketa eginkizunak (itsasbazterreko lerroaren bilakaera, lur higadura, jalkinen erreserben jarrerak, etab.) segurtatzen dituen Akitaniako Itsasbazterreko Behatokiarekin (OCA) partaidetza lan bat abian ezarri du Euskal Elkargoak.

Herriendako zaintza eta aholku eginkizuna betetzen du Euskal Elkargoak itsasbazterreko arriskuak (itsasbazterreko lerroaren bilakaera hemendik 2023 eta 2043ra) hirigintza egitasmoetan (THP, hTHP, LuKE...) txertatuak izan daitezzen.

Berrikiago, Ipar Donibane Lohizuneko PPAren buru da, itsasbazterreko arriskuak jasaten dituen eremu hau berriz kokatzeko.



## >> NATURA INGURUNEEN ZAINZA BERMATU

Natura 2000 guneen baina ere erreken kalitatearen jarraipena eta kudeaketa, azterketa-kanpaina erregularrak burutuz Ipar Euskal Herri osoan.

Agertu kutsaduren jarraipen- eta kontrola-prozedura bat plantan ezarria izan da ere arduradunak abisatzeko, neurri zuzentzaileak fite har ditzaten.

« Itsasoa eta Itsasbazterra » natura 2000 guneei dagokienez, Euskal Elkargoak, zeinak 4 gune biltzen dituen DOCOBa eramaten baitu, lehentasunezko hainbat

ekintza burutzen ditu: aisialdiko arrantza akbitateek bizilekuen eta espezieen baitan duten eragina neurtu (klub eta elkarteekin loturan buruturiko inkesta).

Hondartzen arrazoizko kudeaketa faboratu (herrietako zerbitzu teknikoekilako lantaldea).

Kontzertazioa animatu babes azkarreko eremuak sortzeko asmoz (Estatuarekin loturan eraman urratsa).







## >> IKERKETA ETA BERRIKUNTZA LAGUNDU FENOMENOA ULERTZEKO ETA HONEN ONDORIOAK AURREIKUSTEKO

Euskal Elkargoa Euskal Itsasbaterreko Interes Zientifikoko Taldearen (IZT) buru da. Itsasbaterreko loturiko arazoak (itsasbaterreko arriskuak, uraren kalitatea, bioaniztasuna...) kudeatzeko eskumena duten mugaren bi aldeetako kolektibitate eta zientzia eragileak biltzen ditu. Ikerketa programa desberdinak abiatzen dira, beharago deskribatu EZPONDA adibidez.

Euskal itsasbaterreko itsaslabar arrokatsuen eta haien defentsa-obren andeatzearen eragile diren parametroak ikertzea da Euskal Elkargoak gidaturiko EZPONDA ikerketaren xedea. Krisien kudeaketa eta babesteko moldeen hedapena optimizatzeko aukera eskainiko du.

> **Zeharkakotasuna beste politika publikoekin:** Garapen ekonomikoa, Klima, Arrantza, Mugaz gaindikoa, Antolaketa eta Hirigintza.

> **Urranago joateko:** [https://www.communaute-paysbasque.fr/fileadmin/user\\_upload/mediatheque/Eau/A\\_telecharger/agglo-trait-cote-2017-70x60-versionweb.pdf](https://www.communaute-paysbasque.fr/fileadmin/user_upload/mediatheque/Eau/A_telecharger/agglo-trait-cote-2017-70x60-versionweb.pdf)

<https://www.communaute-paysbasque.fr/vivre-ici/leau/le-littoral>

<https://gis-littoral.communaute-paysbasque.fr/>

## PARTAIDE NAGUSIAK

**IZT** : Euskal itsasbaterreko Interes Zientifikoko Taldea partaidetza eta mugaz gaindiko tresna bat da. Euskal kostaldeko kolektibitate eta erakunde zientifikoak biltzen ditu ikerketa-proiektuak eraikitze eta obratzeko, euskal kostaldeko kolektibitateen beharrak uztartuz.

**Itsasbaterreko GIPk** (Interes Publikoko Elkargoa) Itsasbaterreko kolektibitateak laguntzen ditu haien proiektuak apailatzeko orduan, eskualde mailan finkaturiko esparruaren baitan, zeina elkarlanean eta antolaketa eta kudeaketa iraunkorreko printzipioetan oinarritua baita.

### MIRA/UPPA federazioa

Zientzia-eragile hauen artean aipatzen ahalko ditugu: **UPPA, Geologia eta Meategien Ikerketa Bulegoa (BRGM), Rivage Pro Tech, Casagec, AZTI, IFREMER,...**

**Akitaniako Itsasbaterreko Behatokia, BRGM operadore teknikoak,** Itsasbaterreko lerroaren bilakaeraren jarraipenerako ekintza-programa

**Itsasbaterreko eta aintzira-eremuetako kontserbatorioa**

**Aturri Garona Uraren Agentzia**

**Elkarte eragileak:** Euskal itsasbaterreko Ingurumenaren aldeko Ekimen Zentro Iraunkorra (CPIE), Water family, Surfider Foundation,...

**Departamenduko arrantzen batzordea**

**EUROPA** (diruztatzailleak)



# HIRIGINTZA eta eremuen ANTOLAKETA

Ipar Euskal Herria lurralde bizi-bizia da, demografia mailan bezainbat ekonomian ere. Horrela, azken bost urteetan, urte guzietan bana bertze 2.700 biztanle baino pixka bat gehiago irabazi ditu, 310.000 biztanlera heltzeko 2021ean.

Frantzia mailan egin prospektibei begira, hazkunde honek segitu beharko luke heldu diren urteetan baina ez da molde berean aplikatzen. Jadanik urbanizatua den itsasbazterren erakargarritasuna urrunago diren eremuetara baina ere hobekien konektaturiko barnealdeko lurraldeetara (Aturri eta Errobiko ardatzei jarraikiz) hedatu da, beti emendatuz doazen mugikortasun arazoekin. Dinamika desberdina da Ipar Euskal Herri barnealdean, bertan biztanleria egonkortzen baita, apaltzen ez delarik enpleguak eta herritarrak galtzen dituzten zenbait mendietako haranetan bezala. Joera hauen inflexio oso berri bat lot daiteke osasun krisiaren ondorioei (lurraren prezioaren emendatzea, bertan bizitzeko eskaera gero eta handiagoa lurralde osoan...).

Dinamika hauek hainbat ondorio dituzte: Ipar Euskal Herriko baliabide eta ondareak zein eremu eraikiak presiopean ezartzen dituzte eta erronka nagusiak pausatzen lurraldearen ekipamenduari dagokionez (sareak, herritarrei zerbitzuak, mugikortasuna, etab.).

<sup>1</sup> Etorrerak baina ere joateak kontutan hartzen dituen emaitza garbia da.

<sup>2</sup> 2021ean bozkaturiko Euskal Elkargoaren Lurraldeko Klima Airea Energia Plana

<sup>3</sup> Apailatzekotan den Lurralde Koherentzia Eskema



## EUSKAL ELKARGOAK EKARRITAKO BALIO ERANTSIA

Elkargoaren sortzearen funtsezko oinarria da Ipar Euskal Herriaren antolaketa integratua asmatzea eta obratzea. Ipar Euskal Herriaren eskala egokiena da hiriak eta herriak, itsasoa eta mendia, ondareak eta modernitatea, ekoizpen- eta erresidentzia-ekonomiak uztartzen dituen lurralde baten batasuna zaintzeko eta « berriz asmatzeko ».



Hirigintza eta eremuen antolaketa gaiak naturalki sartzen dira beraz trantsizio ekologikoko erronketan, Lurraldeko Klima Airea Energia Planak eta LuKEren lanek erakutsi bezala.



# engaiamenduak

## 9. engaiamendua:

### > Ipar Euskal Herriaren antolaketa eta bizkortasun orekatuen alde ekin

Euskal Itsasbazterrak eta kostalde ondoak jasaten duten presioa erregulatzea da proiektuaren xedea, aldi berean arrakasta gutiago duten eremuen erakargarritasunaren motorrak piztuz. Bizitegi eta ekonomia erakargarritasunaren banaketa hobea segurtatu behar du lurraldearen antolaketak.

Lurraldea egituratzen duten hiri ttipi eta herriburuen sarean bermatzen da Euskal Elkargoa, hurbileko zerbitzu eta ekipamenduen eskaintza azkartuz gizarte, kirol eta kultura arloetan (publikoarendako zerbitzu-etxeak eta France services). Mugikortasun eskaintzek indar ematen diote lurralde saretze honi: Proxi'bus, hiriarteko autokarrak, bizikleta-zerbitzuak... « Biharko Hiri ttipiak » dira (Hazparne, Hendaia, Maule-Lexarre, Donibane Garazi eta Donapaleu) besteak beste antolaketa politika integratu horren helburuak.

Lurraldeko ekonomiak, lan eremuen (ZAE) garapenaren bitartez, besteak beste, ekoizpen tresnak eta bizitegi ekonomia itsasbazterrean kontzentratzea saihestea du xede. Berdin gertatzen da Ipar Euskal Herri barnealdeko berpizte demografikoa laguntzen duten Tokiko Bizileku-Programako (TBP) helburuekin.

## 10. engaiamendua:

### > Engaiamendua: baliabideak eta ondareak zaindu

Ipar Euskal Herriko bazterrek honen mendeetako historia kontatzen dute eta zinezko baliabidea osatzen dute. Denen ondarea dira, kultura-ondarea dira eta bizi-ingurunea itxuratzen dute. Bazterrak, laborantza, uraren zikloa eta biodibersitatea bereizezinak dira. Bazterren baliabidearen eraikuntzaren erronka guziaz hautsi-mautsian datza beraz: ez balditu bazter zoragarriak (« karta postala ») eta ez ohiko bilakarazi bazter mirezgarriak, nortasun bat atxikitzeko. Hautsi-mautsi hori du lurralde proiektuak bilatzen.

## 11. engaiamendua:

### > lur-funtsen estrategia apailatu, lurralde-proiektuaren zerbitzuko

Lur-funtsen strategiaren bitartez, Elkargoak lur-funtsen arloan buruturiko bere politika eta bere ondare-kudeaketa hobetzen ditu. Honela, Ipar Euskal Herriko Lur-funtsen Erakunde Publikoarekin (EPFL) finkaturiko partaidetza hertsia baten bidez, bere politika publikoak plantan ezartzeko beharrezkoak zaizkion lurren erosketak aitzinetik ikusten ahalko ditu. Ekonomia sailari dagokionez, Lur-funtsen estrategiak geroko eremu ekonomikoen antolaketaren egingarritasuna identifikatuko eta kalifikatuko ditu. Molde orokorragoan, erronka izanen da ea lurraldeak gaitasun kolektiboa ukanen duen garapen politikak eta laborantza lurren zein bizi ingurunearen zaintzeko nahikeria uztartzeko.

## 12. engaiamendua:

### > Elkargoko eta herriko etxeetako politika publikoak plantan ezartzea ahalbidetzen duten hirigintza-dokumentuak finkatu

Hirigintza-dokumentuek (LuKE, hTHP) hainbat gauza ahalbidetzen dituzte: gaur egungo eta biharko beharrei erantzuteko lurraldearen antolaketa denboran proiektatzea, zoruen okupazioan oreka handiak bermatuz politika publikoak koherentzian ematea.

Konkretuki, hTHPek ondoko galderari erantzunak ekartzen dizkiete. Zer eta non eraiki? Ingurumena nola kontuan hartu (hiri-, arkitektura-, natura- eta paisaia-ezaugarriak)? Ekipamenduak eta sareak nola optimizatu eta aurreikusi?...

# ekintzak





## >> GURE LURRALDEKO HERRI GUZIAK PLANIFIKATZE DOKUMENTUEZ HORNITU

5 Herriarteko Tokiko Hirigintza-Plan (hTHP) finkatuak edo abian ezarriak izanen dira kargualdi honetan. Lehentasunezko hiru hTHPen preskripzioa bozkatua izan da 2021eko ekaineko elkargoko kontseiluaren kariatara eta barnealdeko lurraldeak hunkitzen ditu: Hego Baxenabarre, Amikuze eta Xiberoa. Ondotik etorriko dira, 2023an preskrituko diren Lapurdi Mendebaldeko (kostaldea) eta Ekialdeko (kostalde ondoa) bi hTHPak, 2024an onartuak izateko gisan.



2021

2026



hTHP 1 (Herriarteko Tokiko Hirigintza-Plana)

THP 1 (Tokiko Hirigintza-Plana)

53 elkargo-mapa

53 herri, hirigintza dokumenturik gabe

hTHP 5

## >> HIRIGINTZA BAIMENEI LOTURIKO ESKAEREN AZTERKETA SEGURTATU

Euskal Elkargoak hirigintza-baimenen instrukzio zerbitzu bat segurtatzen die herrien 2/3ei; zerbitzu honen hedadura handitzen ahalko da hTHPen onarpenarekin (Estatuak ez baitu gehiago segurtatzen hirigintza-dokumentu bat duten herrien instrukzioa).



## >> ONDAREA ETA PAISAIEN BABESA SEGURTATU

Hainbat leku Ondare Gune Ohargarri (SPR) gisa sailkatzeko urratsak abian ezarriak izan dira (Bastida, Donibane Garazi, Bidarte, Ezpeleta...). 2021ean ere abian ezarria izanen da, eremu publikoan publizitatea gutitzeko Ipar Euskal Herriko Tokiko Publizitate-Araudia (RLP).



## >> LURRALDE OSORAKO KOHERENTEA IZANEN DEN LUR-FUNTSEN ESTRATEGIA SEGURTATU

Kolektibitatearen lur-funtsen arloko beharrez eta gunez-guneko erosketa estrategien pikoan ezartzeaz bestalde (zaintza, negoziaketak, desjabetzeak...), geroko garapen ekonomikorako beharrezkoak izan daitezkeen guneen identifikazioan datza lan guzia.



### EUSKAL ELKARGOAK

« Biharko hiri ttipiak » izeneko 5 operazio abiatu ditu, lurraldea bizkortzen laguntzeko.



= Klima plana





## >> BIHARKO 5 HIRI TTIPIEN BIZIBERRITZE- PROIEKTUAK APAILATU ETA OBRATU

Bizilekuaren aldeko ekintzak helburutzat hartuko dituzte partaidetza askotariko egitasmo hauek, Bizilekuak Hobetzeko Eragiketa Programatu (BHEP) baten bitartez besteak beste, baina ere salgune eta zerbitzuena, eta ekipamendu eta eremu publikoena.

## >> GÉOBASQUE INFORMAZIO GEOGRAFIKO SISTEMAREN OBRATZEA SEGURTATU

Lurraldea xeheki ezagutzea ezinbestekoa da tokiko lurralde-antolaketa politikak plantan ezartzeko. Eskuragarri diren datu geografiko guztiak gurutzatzea du xede GéoBasque-k.

**Zeharkakotasuna beste politika publikoekin:** Bizilekua, merkataritza, lurralde ekonomia, mugikortasunak, klima.

> **Urrunago joateko:** [https://www.communaute-paysbasque.fr/fileadmin/user\\_upload/mediatheque/kiosque/Charte\\_d\\_amenagement\\_et\\_de\\_developpement\\_durables\\_Pays\\_Basque.pdf](https://www.communaute-paysbasque.fr/fileadmin/user_upload/mediatheque/kiosque/Charte_d_amenagement_et_de_developpement_durables_Pays_Basque.pdf)

## PARTAIDE NAGUSIAK

**Ipar Euskal Herri-Seignautzeko Lurralde Koherentzia Eskema sindikatu mistoak** LuKEa apailatzen du, haren eremuko 166 herrietan. Planifikatze estrategikorako dokumentu honek bere lurraldeetako antolaketaren orientazio handiak finkatzen ditu. Sindikatu mistoak Ipar Euskal Herri-Seignautzeko LuKEa 2024rako bururatu nahiko luke.

**Ipar Euskal Herriko Lur-funtsen Erakunde Publikoak** nahi duten kolektibitate guztiak laguntzen ditu haien lur-funtsen strategiak definitu eta plantan ezartzeko orduan. Tokiko kolektibitateek eramaten dituzten egitasmoen obratzeko beharrezkoak diren lur-funtsak (eraikiak eta ez-eraikiak) erosteko ekintza eta prozedura guztiak burutzen ahal ditu, kolektibitateen izenean. Azkenik, Ipar Euskal Herriko EPFLk tokiko kolektibitateekin hitzarturiko eramate aldi osoan bere jabetza dauden ondasun guztiak jarraipena segurtatzen du.

**Atlantikoa eta Pirinioak hirigintza agentziak** Elkargoa laguntzen du bere egitasmoen eta politika publikoen definizioan eta obratzean. Gogoeta prospektiboak animatzen ditu Agentziak eta diagnostikoak eta gaikako ikerketak burutzen ditu lurralde eremuekin eta lurralde eremuentzat (bizilekua, mugikortasunak, antolaketa, ekonomia, ingurumena...). Planifikatze dokumentuak apailatzeko « in house » ingeniari bat osatzen du.

**Arkitekturaren, Hirigintzaren eta Ingurumenaren Kontseilua (CAUE) eta Sites et cités elkarteak.**

**Tokiko Kudeaketarako Agentzia Publikoa (APGL)**

# ELIKAMOLDE IRAUNKORRA



Elikamoldea, gaur egun, Herritarren eta kolektibitateen arrangura nagusia da.



## EUSKAL ELKARGOAK EKARRITAKO BALIO ERANTSIA

Sortu denetik, Euskal Elkargoak bere « Denentzako elikamolde sano eta iraunkorraren sustapena eta sustengua » eskumenaren bitartez, politika boluntarista eta anbiziotsua eramaten du tokiko eta kalitatezko elikamolde iraunkor bat bermatzeko. Elikadura gobernantzari buruz irekitako lan sailaren baitan (2014-2016) Ipar Euskal Herriko Hautetsien Kontseiluak buruturiko lanetan bermatu da besteak beste.

Honela, beti eta luzeagoak diren elikadurakate batzuen aurrean eta muga gero eta irakurgarriagoak (osagarri arazoak, elikagaien xahutzea, kontsumo desberdintasunak, ingurumenean duten eragin txarrak, etab.) dituen laborantza industrialean oinarrituriko elikamolde sistema baten aurrean, elikamolde trantsizioak behartzen ditu lurralde bateko eragile guziak (kolektibitateak, herritarrak, elkarteak, enpresak) ekoizpen eta kontsumo ereduak elkarren artean eta sakonki berriz galdekatzera eta ekoizpen, transformatze, banaketa eta kontsumo pista berriak esperimentatzera.

Izpiritu honetan eta Elikadurarako Frantziako Programaren (PNA) ardatz nagusiekin osoki bat eginez (justizia soziala, gazteriaren elikadura-heziketa, elikagaien xahutzearen aurkako borroka...) du Euskal Elkargoak denentzako elikamolde sano eta iraunkorraren arloan duela zenbait urte abiatutako dinamikan segitu gogo.

Ipar Euskal Herrian, elikadurarako gastuen %62 saltegi handi eta ertainetan egiten da. Gaur egun, lurraldeko biztanleek kontsumitzen duten laborantzako mozkinetako tokikoaren zatia bazterrekoa da.

“

Fruitu, barazki edota zerealak hornitzeko gaitasun oso apala du Ipar Euskal Herriak. Adibidez, fruitu eta barazki ekoizpena 16 aldiz apalagoa da beharrezkoa daitekeen kontsumoari konparatuz.

”



# engaiamenduak

## 13. engaiamendua

### > Lurraldeko Elikadura-Proiektua obratu

2020-2023 garaian obratu beharreko 5 helburu eta hamabost bat ekintzen inguruan artikulatzen da 2020ko otsailean bozkatua izan den lehen Ipar Euskal Herriko Elikadura-Proiektua. Lehen Elikadura-Proiektu honen bitartez, elikadura-kate osoa, « sardetik sardexkara » hunkitzen duen estrategia bat hautatu du Euskal Elkargoak, beste politika publiko guzietan artikulatzen dena (ekonomia, numerikoa, osagarria, hirigintza...). Estrategia horren helburua da erantzun konkretuak ekartzea lurraldeko arazo eta erronkei laborantza eta elikadura arloetan. 2022ko bigarren urte erdian abiatu beharko lukeen bigarren ekintza plan baten asmoa dauka Euskal Elkargoak.

## 14. engaiamendua:

### > Herriak lagundu beren ostalaritza kolektiborako politika abian ezartzeko

Kolektibitate guzientzat eta berezikiago herriarentzat, ostalaritza kolektiboa zinez tresna interesgarria da laborantza biologikotik eta/edo tokiko sareetatik datozen mozkinak sustatzeko. Euskal Elkargoak 2018an egin herrien praktika eta beharrei buruzko inkestak, EGALIM legeak ekarri betebeharrei uztarturik, erakutsi dute herriei laguntza berezi bat ekartzeko behar bat badagoela. Animazio, tailer edota ere jantegietako langileei edo sukaldariburuei zuzendu formakuntza mota desberdinak proposatzen ditu Euskal Elkargoak.

## 15. engaiamendua:

### > Publiko zabala ongi/hobeki jateari sentsibilizatu

Nutrizio-gomendioetan bermatzen da usu elikamolde sano baterako sentsibilizazioa. Nahiz eta gomendio hauek egin, elikadura praktikak eta joerak ez dira igurikatu helburuei egokitzen: gainpisua, gizentasuna, elikamoldeari loturiko patologia berriak agertzen hasten dira.

Euskal Elkargoak erabaki du bere politikaren ardatz nagusia izanen dela elikamolde iraunkorrari sentsibilizatzea. Horretarako, eskolei sentsibilizazio-tailerrak, jantegiei elikagaien xahutzeari buruzko animazioak proposatzen dizkie, edota ere Elikadura desafio bat familiak laguntzeko haien elikatzeke usaien aldatzeko.



# ekintzak

Lehen Ipar Euskal Herriko Elikadura-Proiektua bost helburu nagusiren inguruan antolatzen da:



## >> ELIKAMOLDE IRAUNKORRA

**Elikatzeko joeren eta erosketa praktiken mutazioen ezagutza hobetu**

*Adibidez: Elikadura eskaera aztertu familien, etxetik kanpoko jateko praktiken, eta abarren ezagutzeko (PNA hitzarmenean fletxatu ikerketa - Burutzeko egutegia: 2021-2022)*

**Tokian defizitarioak diren ekoizpenak garatu** kontsumitzaileen behar eta igurikatzeei egokia zaien elikadura eskaintza bat proposatuz eta hau, planifikazio tresnetan bermatuz (LuKE, hTHP).

*Adibidez: Laborantzan plantatzea sustengatu hemen defizitarioak diren ekoizpenetan; Elikadurarako lur-funtsa babestu eta honen eskuratzeko bidea erraztu (Ipar Euskal Herri-Seignautzeko LuKEaren apailatze obren baitako Laborantzaren eta Elikaduraren Batzorde teknikoan parte hartuz – egutegia: bidean)*



## >> SARDETIK SARDEKARA, EKOIZLEARENGANDIK KONTSUMITZAILEARENGANA LOTURA ANTOLATU

Besteak beste ekoizleen salbideak areagotzeko ostalaritza kolektiboa edo komertzialaren bitartez.

*Adibidez: erosketa plataforma logistiko baten aukera aztertu (Territoires Conseils-ek lagundurik – burutzeko egutegia 2021-2022); ekoizleen eta etxaldeko mozkinen gidaliburu bat apailatu (langile ikasle baten hartzea 2022an)*



### EUSKAL ELKARGOAK BIDAXUNEKO

sukalde zentrala berria ireki du.



## >> ELIKADURA OSAGARRIA/INGURUMENA EGITASMO OROKOR BATEAN SARTU (TOKIKO OSAGARRI KONTRATUA)

Elikadura arloan, sozial eta osagarri mailako desberdintasunen kontra borrokatzeko.

*Adibidez: TOK-aren nutrizio-osagarria sailaren apailaketan parte hartuz (ekintza-fitxa bat apailatu – obratzeko egutegia 2021-2025); « janari saltegi sozial » motako tresnen bidez lurraldea estaltzeko aukera aztertu (EPN konbenioan fletxatu ikerketa – burutzeko egutegia: 2021-2022)*





## PARTAIDE NAGUSIAK

**Estatua**, Ipar Euskal Herriko Elikadura-Proiektuak Elikadurarako Frantziako Programaren baitan aurreikusitako helburuekin bat egiten duelako, **eta bere zerbitzu deskontzentratuak: DRAAF, EOA, ADEME**

### Herriak

Departamendu Kontseilua, Akitania Berria Eskualdea,

Laborantzako (hauen artean Departamenduko Laborantza Ganbera eta EHLG), ostalaritza kolektiboko, osagarriko eta gizarteko eragileak, kontsumitzaileen ordezkariak, etab.



## >> ESKAERA PUBLIKOA BATERATU ETA TOKIKO ERANTZUN AHALEI EGOKITU

Jantegien hornitze iraunkorrago batera buruz joateko (tokiko mozkinak, kalitatezkoak, etab.).

**Adibidez:** *Sarde-Sardexkak buruturiko sentsibilizazio-tailerrak eskoletan (9 talde 2021-2022 ikasturtean), herriak lagundu elikagaien xahutzeari buru egiteko Bil Ta Garbirekin (12 jantegi 2021-2022 ikasturtean);*

> **Zeharkakotasuna beste politika publikoekin:** Laborantza, hazkurri indutria, arrantza; hirigintza eta eremuen antolaketa; klima airea energia / bioaniztasuna, gizarte kohesioa, prebentzioa hondakinen bilketa eta balorazioa merkataritza, lurralde ekonomia, mugikortasunak, klima.

> **Urrunago joateko:** [https://www.communaute-paysbasque.fr/fileadmin/user\\_upload/mediatheque/kiosque/Projet\\_alimentaire\\_Pays\\_Basque.pdf](https://www.communaute-paysbasque.fr/fileadmin/user_upload/mediatheque/kiosque/Projet_alimentaire_Pays_Basque.pdf)



= Klima plana








# HERRITARREZ BETERIKO IPAR EUSKAL HERRI BIZI BATEN ALDE:

GURE HIRI ETA  
HERRIAK BIZKORTU





# BIZILEKUA eta JENDE IBILTARIAK

Ipar Euskal Herriko enplegu eta zerbitzu gehienak Itsasbazerrean kokatuak daude, etxetik lanerako joan-etorri ugari eraginez. Bizitegi-eskaera egoera honen ondorioa da, itsasbazerreko herriak tentsio handian emanaz eta aldi berean barnealdeko eremu batzuk biztanle apaltze bat jasaten dutelarik.



## EUSKAL ELKARGOAK EKARRITAKO BALIO ERANTSIA

Bizileku arloko dinamikek ausarki gairatzen dituzte herrien logikak. Politika publiko hau Ipar Euskal Herri mailan eramateak presiopean dauden kostaldeko zein kostalde ondoko zonaldeen eta abantaila baliagarriak dituen Ipar Euskal Herri barnealdearen artean ekintza osagarriak burutzeko eta azterketen egiteko aukera eskaintzen du. Lurraldearen antolaketa proiektuan bere harria ekartzen du honela politika publiko honek.

Euskal Elkargoak 2021ean bozkatu Tokiko Bizileku-Programa (TBP) Ipar Euskal Herri mailako lehen TBPa da. Erantzun egokiak proposatzen ditu, 158 herrietan antolatuz.

Eskaintza soziala nagusiki itsasbazerrean kokatua da (% 68) eta lagunduriko bizitegien eskaera azkarra da: 6 eskaerako bizitegi sozial 1 ematen da eta batez beste 22 hilabete igurikatu behar dira. Bizitegi sozial eskas honen aurrean eta « urte osorako » bizitegi-eskaintza eta aisialdiko eskaintzen arteko lehia dagoen testuinguruan, familien « bizitegi » ahalegin-tasa handia da. Baserrialdeko herrietan, bizitegiak eskuragarriagoak dira, baina alokatu daitezkeen bizitegiak urriagoak.

Merkatuaren erdia osatzen duten familia gazteentzat erakargarria da Ipar Euskal Herria. Jabegora heltzearen publiko nagusia diren familien etxerako tropismoak azkarra izaten jarraitzen du eta kostalde ondo edo Ipar Euskal Herri barnealdea bezalako eremu eskuragarriagoetara hedatzen da. Hala ere, Frantzia mailan bezala, buraso bakarreko familia-tasa oso esanguratsua da, zeina biztanleriaren zahartze fenomenoari gehitzen baita: gaur egun, biztanle kopuru bera hartzeko bizitegi gehiago behar dira, bizitegi tipiagoak eta familien diru sarrerei egokitzen direnak. Bizitegi parkearen ezaugarrietako bat da handiegia dela, familiek nagusiki T2 eta T3ak eskatzen dituztelako.

“

Bigarren bizitegi ugari (43.000) badira, bereziki itsasbazerrean eta mendian. Bizitegi hutsen arazoa zinezko erronka da Ipar Euskal Herri barnealdeko herri batzuetan, usu zaharberritzeko biziki kario diren etxe handi batzuekin.

”

# engaiamenduak

## 16. engaiamendua:

### > Lurraldeko familien diru sarreren araberako bizitegiak ekoiztu

Lurraldeko familiek diru mailan eskura ditzaketen bizitegiak ekoizteko, Euskal Elkargoak eta kide dituen herriek areagotuko dute alokatzeko eta jabegora heltzeko bizitegien ekoizpena, lurralde mailako banaketa orekatua segurtatuz. Ipar Euskal Herrian, **1.200 lagunduriko bizitegi** ekoiztuak izanen dira urte guzietan, erran nahi baita 2 bizitegitatik 1, guti gorabehera. % 50eko emendaketa batekin, kolektibitate diruztatzaileek eta ekoizten duten jabe alokatzaileek ondoko 6 urteetan obratu beharreko baliabideak ohiz kanpoko hedadura dute. Xede politikoa argia da: gizarte-nahasketa garatu SRU lege pean dauden 16 herrietan, eta kostalde ondoko herriak lagundu, baina baita baserrialdeko herriak, bereziki herriburuak, bizitegi eskaintza dibertsifikatzen, ekoizpenaren zati garrantzitsu bat hartuz aldi berean.

## ekintzak



### >> BIZILEKUAREN POLITIKA HEDATU

Bizilekuaren zinezko agintaritzaren antolatzaile gisa, eragile sare bat animatzen du Elkargoak, hauen artean lehenak instituzioetako partaideak eta jabe alokatzaile eta gizarte erakundeak direlarik, baina baita eragile pribatuak, promotoreak, etxebizitza agenteak, eraikuntza eta obra publikoetako eragileak ere. Publiko/pribatu partaidetza itun bat abian ezartzea gogoan du ere.

Euskal Elkargoak herriak laguntzen ditu Tokiko Bizileku-Programaren obratze operazionalan: bizilekuak hobetzeko operazio programatuak, hirigintzako araudien egokitzea, « urte osorako » bizitegiaren aldeko neurriak plantan jartzea (hala nola erabilpen aldaketari buruzko araudia edo alokairuen arautzea) proiektuak diruz laguntzea... Tokiko familientzat eskuragarriak diren bizitegi eskaintza baten ekoizpenari eskaini antolaketa operazio publikoen garapenaren erronkak « Pays Basque Aménagement » Tokiko Sozietate Publikoa (TSP) sortzera eramaten du Elkargoa, kide diren hainbat herrirekin eta Mugikortasunen Sindikatuarekin.

Herritar guzietan argibideak ematea eta diru laguntzak lortzeko bideak zein diren zehaztea eskatzen duten gizarte eta ingurumen arloko erronkak kontuan hartuz, Elkargoak bizilekuaren eta energiaren etxe baten proiektua eramaten du, zeina bizilekuari loturiko galderari ihardesteko lekua izanen bailitzateke.

## 17. engaiamendua:

### > Dagoen parke eraikia zaharberritu

Proiektu politikoaren bihotzean dago hiri hedatzearen kontrako borroka, laborantzako lurren eta zoruen irazgaietara mugatzeko, errepideetako trafikoaren saturazioaren aurka jotzeko eta herriburuak bizkortzeko. Dagoen parke eraikiaren hobekuntza eta berreskuratzea lehentasuna da beraz, bizitegi ez-duinaren eta prekaritate energetikoaren aurka borrokatuz eta zaharberritzea eta bizitegi hutsak berriz merkatura ekartzea faboratuz, eraikuntza berriak saihestuz. Bere lurraldeko familia guzietan laguntza ekartzea aurreikusten duen kolektibitatearen politika klimatikoaren ardatz azkarra da.

## 18. engaiamendua:

### > Denentzat eskuragarriak diren bizitegiak eskaini

Azkenik, publiko guzietan irekia izatea nahi du proiektuak. Pertsona ahulek, ahalmen urritasun egoeran daudenek, gazteek, adinekoak, jende ibiltariak, sasoilariak... usu bizitegi eskasetan eta ahultasun egoera handiagoan bizi dira. Bizitegia funtsezko eskubidea da Ipar Euskal Herriko biztanle bakoitzarentzat eta Tokiko Bizileku-Programak nahi izan ditu prekarioen lehentasunetan kokatu.



= Klima plana




## >> BIZITEGIEN ERAIKUNTZARAKO DIRULAGUNTZEN KONTROLA ETA EMAITZA SEGURTATU DENEK ETXEBIZITZA LOR DEZATEN

Bizitegien eskaintzan inbertitzeko eta Estatuak eskainitako laguntzen osagarri, bizitegi sozialen ekoizpena, baina ere jabegora heltzeko eskaintza soziala laguntzen duen esku-hartze araudi bat finkatu du Euskal Elkargoak (laguntza zuzenak, mailegu-bermeak...).

Gainera, bizilekua hobetzeko Interes Orokorreko Programa bat (PIG) jadanik plantan ezarri du Elkargoak, bizitegi indibidualen eta jabekidegoen berriztatze energetikoari, adineko edo ahalmen urriko egoeran dauden pertsonen bizitegien egokitzeari, bizileku ez-duinaren eta andeatuaren desagerrarazteari, alokairuzko eskaintza sozial pribatuaren garapenari diru eta teknika arloko laguntza ekartzeko asmoarekin. Bizitegian bizi diren jabeak baina ere alokatzen duten jabeak laguntzen ditu PIGak.

Gizarte, ingurumen edo ekonomia mailako berrikuntzak egiteko gunea da bizilekua. Horregatik du Elkargoak, bizitegien eraikuntzarako dirulaguntzek (« aides à la pierre ») oraindik laguntzen ez dituzten operazio berriztaileei eskainitako esku-hartze araudi bat finkatu nahi.



	Aloimendurako bizitegi publikoak	Jabegora heltzeko bizitegi publikoak	Bizitegi pribatuak
2021	604	156	413
2022	800	300	470
2023	840	400	510
2024	882	400	560
2025	926	400	610
2026	972	400	670



## >> JENDE IBILTARIEI HARRERA BALDINTZA DUINETAN BERMATU LURRALDEAN

Jende ibiltarien harrera, partez sedentario bilakatua dena edo bakarrik pasatzen direnak, aski minbera da azpiegitura egokien eskasa handia baita Ipar Euskal Herrian eta berezikiago Lapurdin. Jende Ibiltariei eskainitako Departamendu Eskema finkatu dute 2019an, Estatuak eta Departamenduko Kontseiluak. Lur-funtsei zuzenduriko atala duen elkargoko eskema nagusi bat burutzekotan dira, Departamendu Eskemak finkatu helburuei erantzuteko antolatu behar diren guneak identifikatzeko. Elkargoko eskemari esker, gune hauen antolatzeko inbertsio-programa bat plantan ezartzen ahalko da bai eta kolektibitateak hautaturiko kudeaketa moldeak zehaztu ere.



### EUSKAL ELKARGOAK BIZILEKUAREN ETA ENERGIAREN ETXEA SORTU DU

Tokiko Bizileku-Programaren (TBP) eta Lurraldeko Klima Aire Energia Planaren apostuei erantzuteko.



## >> ELKARGO-INTERESEKO ANTOLAKETA OPERAZIO PUBLIKOAK OBRATU

Gune estrategiko batzuen gainean biharko hiria eraikitzeak – erreberitzeko edo dauden zentralitateei lotu luzapen gisa – ekintza publiko azkarra inplikatzeko du: lur-funts birmoldaketak, eremu eta ekipamendu publikoak integratzea, hiri forma berriak, trantsizio energetikoaren erronkak kontuan hartzea, etab. Elkargoaren xedeak (5 eskumen mobilizaturik) eta herrienak gurutzatuz bizitegi sozialak hartzeko helburua duten operazio batzuk eramaten ditu jadanik Elkargoak. Aipatzen ahal dira, Aturri Eskuinaldea Baionan, Encan Ziburun, edo ere Montalibet gisako sektorea, zeina Tram'busaren 2 linearen antolaketa lanei lotua baita.

« Pays Basque Aménagement » Tokiko Sozietate Publikoaren (TSP) sortzearekin, Elkargoak, Mugikortasunen Sindikatuak eta Herriek oraindik sendotu nahi dituzte haien gaitasun operazionalak.

> **Zeharkakotasuna beste politika publikoekin:** Lurralde antolaketa, Klima, Kohesio sozial.

> **Urrunago joateko:** <https://www.communaute-paysbasque.fr/vivre-ici/cadre-de-vie/lhabitat/plh-pays-basque>


### PARTAIDE NAGUSIAK

**Habitat Sud Atlantic (HSA)**, zeina Hirigune Elkargoari lotua den alokatzaile soziala baita. HSA eta Office 64-k elkarren artean osatu dute koordinazio sozietate bat, gauzak mutualizatzeko asmoz.

OFFICE 64

COL





# HERRIEI eskainitako elkargo- ingeniaritza, HIRI- eta BASERRI-GARAPENA

Estatuak historikoki herriei ekartzen zien laguntza arrunt gibelka doa gaur egun, bereziki antolaketa eta hirigintza arloetan.



## EUSKAL ELKARGOAK ESKAINITAKO BALIO ERANTSIA

Ekintza publikoa eraginkorragoa izan dadin, Euskal Elkargoak nahi izan ditu kide dituen herriak lagundu ingeniari-tza zerbitzu bat eskainiz. Ingeniaritza eskaintza indartsua eta kalitate onekoa dauka Euskal Elkargoak, 10 herri elkargoen bateratze-ari esker. Bateratze horrek ahalbideturiko mutualizazioari esker herri ttipiak hobeki laguntzen ahal dira.

Zeregin hori betetzen duten partaide instituzionalen (Eskualdea; Departamendua) lekua ez hartzeko, bere laguntza lau ekintza eremutan kontzentratu du: fiskalitatea, helbideratzea, helgarritasuna eta antolaketa.

Aldi berean, politika berriak plantan ezarriak izan direnetik (besteak beste energia edo bioaniztasun mailan) eta araudi konplexuak agertzen direnetik, herrien gaitasun tekniko mailako beharrak emendatzen dira. Giza baliabide guti dituzten baserri gunee-tako herriak dira berezikiago hunkituak.

“

Bere kideen arteko mutualizazioa sustatzen du Euskal Elkargoak eta herriei zuzenduriko laguntza politika bat garatzen du, solidarioa eta eskala-ekonomiak sustatzen dituenak.

”



# engaiamenduak

Bere kideen arteko mutualizazioa sustatzen du Euskal Elkargoak eta herriei zuzenduriko laguntza politika bat garatzen du, solidarioa eta eskala-ekonomiak sustatzen dituenak.

## 19. engaiamendua:

> **Herriei laguntza ekarri fiskalitatea, helbideratzea, helgarritasuna eta antolaketa arloetan**

# ekintzak

## >> LURRALDEA KALITATEZKO HELBIDERATZE PLAN BATEZ HORNITU

Helbideratze planik ez duten herriak laguntzen ditu Euskal Elkargoak. Datu-base batean sartzen du herria eta etxe eta karriken izenen fidagarritasuna eta araberakotasunari buruzko lan bat burutzen du. Euskal leku-izenen eta/edo toponimo gaskoien baieztapen-zerbitzu bat eskainia da ere Euskaltzaindia eta Gaskoi Akademiekin loturan. Herrien « helbidea » basearen hedapena hogeita hamar bat erakunde publiko eta pribatuei (DGFIP, SDIS, Prefetura, sare-hornitzaileak, GPA datu-hornitzaileak...) segurtatua da ere. Diru laguntza bat ekarria da ere parte-hartze funtsaren bidez.



### **EUSKAL ELKARGOAK LUR-FUNTSEN**

estrategia abiatu du, beharrei ihardesteko eta bere politika publikoak obratzeko.



## >> ERAIKIN PUBLIKO GUZIETAN HELGARRITASUNA HOBETU

Eraikin ikuskatzeak antolatzen ditu Euskal Elkargoak. Informazio bilkurak antolatzen ditu herriko etxeetako idazkarientzat (auzapezaren ardura, helgarritasun agenda programatuen jarraipena, hirigintza eta helgarritasuna) eta Euskal Elkargoko eta hunkituak diren 144 herrietako helgarritasun batzordeak biltzen dituen sare bat plantan ezartzen du. Diru laguntza bat ekarria da ere parte-hartze funtsen bidez.

## >> HERRI TTIPIEI ZUZENDURIKO LAGUNTZA TEKNIKOA, INGENIARITZA FISKAL ARLOKO ADITU-AZTERKETA BAT ESKAINIZ

Tokiko zuzeneko fiskalitatearen gidaritza eta kudeaketa aktibo bat bermatzeko tresna bat sortu du Euskal Elkargoak, zeina herriekin partekaturiko zerga-behatokiaren baitan plantan ezarria izan baita. Formakuntzak eskainiak zaizkie herriei, zerga-tasa eta doktrina arloan erabakitzeko laguntza zerbitzua plantan ezarria da.



## >> SUSTENGU BAT ESKAINI HERRIEI ANTOLAKETA MAILAN

Zerbitzu- eta proiektu-ingeniariak bat ekartzen du Euskal Elkargoak. Obragintzarako laguntza segurtatzen du ideiatik projektura, behararen zehaztetik baldintza-agiriaren idazketara eta finantzatze txostenaren muntaketara pasatzeko. Diru laguntza bat ekarria da aitzin ikerketetarako bezainbat proiektu egituratzaileen finantzatzeko (parte-hartze funtsak).

Herriei eskainitako laguntza antolaketa edo ekipamendu proiektuen burutzeko ematen du Euskal Elkargoak. Hautetsiari ikuspegi orokor bat eskaintzea du xede herriko lurraldearen antolaketari koherentzia ekartzeko gisan.


> **Zeharkakotasuna beste politika publikoekin:** Lurralde antolaketa, garapen ekonomikoa, hizkuntza politikak.



= Klima plana







# KULTUR PARTAIDETZAK

~ Ipar Euskal Herrian, beste nehon baino gehiago beharbada, lurraldearen nortasunaren oinarria da kultura. Euskararekin batean lurraldearen ezaugarri nagusietariko bat da, ondasun komun bat.

Alta bada, molde progresiboan hartu behar du Euskal Hirigune Elkargoak. Lehenik Estatua, Eskualdea eta Departamenduarekin partekatzen duen eskumen bat baita. Ondotik, Ipar Euskal Herriko herriak, ttipienetik handienara, aktiboak baitira kultura mailan. Azkenik, elkarte eta profesional sektore naro eta sortzaile baten ezaugarria baita ere gaur egun.

“

Euskal Elkargoak ingurumen horretan duen zeregina minbera da. Instituzioen arteko lankidetzaren bidez, gizarte zibilarekin eta kultura eragileekin batera da Euskal Elkargoko kultura-proiektua ontzen eta lurralde-proiektua elikatzera etorriko da.

”



## EUSKAL ELKARGOAK EKARRITAKO BALIO ERANTSIA

Aldi berean tresna publikoetan (Kontserbatorioa, Museoak, Mediatekak, ikuskizun gelak...), hitzartu eszenatokietan (Malandain Ballet Biarritz Frantziako Zentro Koreografikoa, Atabal gaur egungo musiken eszenatokia, Hego Akitaniako Eszena nazionala...) eta lurraldeko maila desberdinetan jarduten duten amatur eta profesional eragile ugariengan bermatzen da Ipar Euskal Herriko kultura saila.

Zehazten ari diren politikak beharko du paisaia konplexu horrekin osatu Ipar Euskal Herriko herritar bakoitzari askotariko kultura eskaintza gogo-abetesgarria eskaintzeko eta Ipar Euskal Herriaren ospea lau haizetara hedatzen laguntzeko askotariko kultura eskaintza autentiko eta berritzaile bati esker.





## 20. engaiamendua:

### > Lurralde osoan bidezkoa den irakaskuntza artistiko eskaintza egituratu

Irakaskuntza artistiko berezitzen sektorea (musika, dantza, antzerkia) biziki garrantzitsua da Ipar Euskal Herrian. Eskaintza egituratzera engaiatzen da Euskal Elkargoa, biztanleek kalitatezko irakaskuntza artistiko bat segitzeko aukera ukan dezaten, haien bizilekutik ahal bezain hurbil. Lurralde mailan progresiboki hedatuko den Maurice Ravel Eskualde mailako Kontserbatorioaren eta Euskal Elkargoak sustengaturiko elkartearen inguruan antolatuko da eskaintza hau.

## 21. engaiamendua:

### > Haurrei arte eta kultura hezkuntza ibilbideak segitzeko parada eskaini

Arte eta Kultura Hezkuntza (EAC) ibilbidearen xedea da ikasle guztiak berdinean hel daitezkeen arera, kultura artistiko pertsonal bat erdietsiz. Euskal Elkargoa engaiatzen da, beste instituzioetako partaideekin batera, zeregin garrantzitsu bat betetzera Ipar Euskal Herriko EAC eskaintzaren egituratzean: gazteriari zuzenduriko ikuskizunen sorkuntzarako diru laguntzak, ikuskizunen hedapena, bitartekaritza proiektuak.



**EUSKAL  
ELKARGOAK  
HENDAIKO**  
eta Donibane  
Garaziko arte-  
irakaskuntzen  
etorkizuneko  
guneak sortu ditu.

## 22. engaiamendua:

### > Hurbileko kultura eskaintza segurtatu, lurralde-ekitatea zainduz

Kultura eskaintzaren lurralde-saretze hobea baten alde engaiatzen da Euskal Elkargoa. Lurraldeko kultura operadore batzuen egituraketan parte-hartuz eta itsasbazterreko zerrendan kokaturiko kultura eragile nagusiak Ipar Euskal Herri osoan hedatu daitezkeen lagunduz gauzatuko da engaiamendua hau.



## >> ARTE SORKUNTZA SUSTENGATU IKUSKIZUN BIZIAREN ARLOAN

Publiko gazteari zuzenduriko arte sorkuntza eta obren hedapena laguntzen du Euskal Elkargoak. 2021/2022 denboraldiaren garaian, 11 ikuskizunen sorkuntza eta 24 obren hedapena sustengatu ditu, hauetarik 10 euskaraz zirelarik. Arte eta Kultura Hezkuntza ibilbidea segitzen duten hurrei zuzendu eta eskolaldian eman ehun bat ikuskizunez osatua da Euskal Elkargoaren kultura denboraldia. Familiei zuzenduriko hamabost bat ikuskizun programatuak dira ere.

## >> IRAKASKUNTZA ARTISTIKOAK EGITURATU

Euskal Elkargoak bere kultura ekintzaren ardatza bilakatu ditu irakaskuntza artistikoak. Urte guzietan, Ipar Euskal Herri osorako milaka ikaslek dituzte Kontserbatorioan eta Euskal Elkargoak sustengatu herriarteko 6 musika eskolatan eskaini irakaskuntzak segitzen.

## >> STREET ART POINTS DE VUE FESTIBALA EUSKAL ELKARGOKO GAINERATEKO LURRALDEETARA ZABALDU

2021az geroztik, Point de Vue festibala antolatzen du Euskal Elkargoak eta honela argira ekartzen du street art-a Ipar Euskal Herrian, lurraldeko eta kanpoko artista batzuk hautatuz. Hemendik aitzina festibaleko artista batzuk gomiatuak izanen dira herri batzuetan, herritarrekin elkartzeak eta obra sorkuntza eremu publikoetan nahasiko dituzten sorkuntza-egonaldiak burutzeko. Honen formatua berriz ikusia izan da Baionako Hiritik Euskal Elkargoko gainerateko lurraldeetara zabaldua izateko.

## >> BERPIZTU, KULTURAREN SAIL PROFESIONALAREN BERPIZTEA SUSTENGATU

COVID-19 pandemiak kultura saila geldiarazi du zenbait hilabete luzez, eta oraindik zaila zaio berriz abiatzea. 3 urteko 1,2 M €-ko laguntza plan bat abian ezartzea erabaki du Euskal Elkargoak berpizte honen laguntzeko, Ipar Euskal Herriko artista profesionalen onurako. Programaziorako, komunikaziorako laguntzak, « café-culture » dispositiboa ikuskizun ttipiak Ipar Euskal Herriko ostatueta proposatzeko eta horrela artistak prekaritatetik ateratzeko... Zabala da Euskal Elkargoaren dispositiboa eta beste instituzioek proposatzen dutenaren osagarri dira.





## >> BEGIRADA BEREZIA:

### • Maurice Ravel Kontserbatorioa

Euskal Elkargoak zuzenean kudeatzen duen Maurice Ravel Eskualde mailako Kontserbatorioa (CRR), aldi berean amaturrei zuzendua den irakaskuntza artistikoei eskainitako tresna da bai eta goi-mailako irakaskuntza zentro bat ere. Musika, antzerkia edo dantza ikasten dute CRReko 1.900 ikasleek Kontserbatorioko 4 gunetako batean, Baionan, Biarritzen, Hendaian eta Donibane Lohizunen. CRReko irakaslez eta gomitaturiko musikariez osatu Iparraldeko Orkestrak kultura denboraldia

Euskal Elkargoko lurralde osoan hedatzen du orain. Pixkanaka, CRRa Ipar Euskal Herri osora hedatzen da, lehenik herriarteko musika-eskolekin, hitzarmenez loturiko eszenatokiekin loturan eta, hemendik urte batzuetara, Hego Lapurdiko gunetean, Hendaian eta Ipar Euskal Herri barnealdekoetan, Donibane Garazin, tokiko eragileekin eraikiak izanen diren kultura proiektuen kariatara.

[www.ospb.eus](http://www.ospb.eus)

### • L'Institut Culturel Basque – Euskal Kultur Erakundea

Euskal kulturaren babesa, transmisioa eta hedapena lantzen ditu Euskal Kultur Erakundeak (EKE) 1990az geroztik. Berezikiago sorkuntzaren aldeko ekimenak eta, nagusiki, euskal adierazpeneko ekintzak sustatzen ditu. Horretarako, euskal kulturaren baliabide-gune gisa hartua da eta zeregin garrantzitsua betezen du mugaz gaindiko harremanen arloan, besteak beste lehentasunezko partaidetza bati esker Eusko Jaurlaritzarekin. Ikuskizun bizia, literatura, ondarea edo ikus-entzunezkoak bezalako sailak animatzen dituzten kultur elkarteak egunerokoan laguntzen ditu Euskal kultur erakundeak.

EKEk 160 kultura eragile biltzen ditu eta bere gobernantzan Estatuak, Eskualdea, Departamendua eta Euskal Elkargoa biltzen ditu.

[www.eke.eus](http://www.eke.eus)

### • Baionako Euskal Museoa

Izenak dion bezala, aldi berean hiriko eta lurraldeko museoa izanki, Ipar Euskal Herria zer den ikustera, ulertzera eskaintzen duen gizarte museoa da gehienbat Baionako Euskal Museoa. Euskal eta gaskoi kulturei hertsiki loturik, Baionako Hiriaz, Pirinio Atlantikoetako Departamendu Kontseiluaz eta Euskal Elkargoaz osaturiko sindikatu misto batek du Museo hau kudeatzen. Datozen urteetan, tresna hau hedatuko da, XX. mendeari eskaini luzapen batekin Baionako gunean, adar batekin Maulen eta Ipar Euskal Herria eta beste eremu batzuk ere kurrituko dituzten erakusketa ibiltariak antolatuko dira, bildumak biziarazteko eta eginahala jenderi erakusteko.

[www.musee-basque.com](http://www.musee-basque.com)

> **Zeharkakotasuna beste politika publikoekin:** Hizkuntza politikak, mugaz gaindikoa, goi-mailako irakaskuntza (Ipar Euskal Herriko goi-mailako arte-eskola)

> **Urrunago joateko:** <https://www.kultura-paysbasque.fr/> et <https://www.pointsdevue.eus/>

# HIZKUNTZA POLITIKAK



**Bere hizkuntzez aberatsa da Ipar Euskal Herria. Lurraldearen berezitasunaren eta nortasunaren oinarrietarik bat dira.**

Berpizte bat ezagutzen du gaur egun euskarak, hiztun osoak sortzeko helburua partekatzen duten botere publikoen eta gizarte zibilaren ekintza bateratuari esker. Euskaldunen kopurua (51.000) ez da gehiago beheititzen eta belaunaldi gazteak euskara berreskuratzen ari dira: lehen mailako ikasleen % 41 euskaraz eskolatuak dira. Berreskuratze hau hala ere ahula da eta egunerokoan azkartua izan behar da.

“

**Okzitaniera-gaskoiaren datuek hiztun kopuru mugatua agerian jartzen dute (6.000 pertsona) baina gaskoiaren eremuko herrietan aldeko joera azkar bat badela ere erakusten dute.**

”

## engaiamenduak

### 23. engaiamendua:

#### > Zerbitzu publiko elebidunak eskaini

Lehen haurtzaroa, eskola, aisialdi zentroak, kultura, hondakinen prebentzioa eta bilketa, mugikortasunak... herritarrendako zerbitzuek euskara egunero erabiltzeko eta transmititzeko paradak eskaintzen dituzte. Elebitasuna bere zerbitzuetan garatzera eta herriek berdin egin dezaten laguntza bat ekartzera engaiatzen da Euskal Elkargoa.



### EUSKAL ELKARGOAK EKARRITAKO BALIO ERANTSIA

Sortzetik, Euskal Elkargoak euskara eta okzitaniera-gaskoiaren alde lanean aritzeko eskumena hartu du eta hizkuntza politiken obratzeko baliabideak eskaini ditu. Horri esker Euskararen Erakunde Publikoari ekarritakoa azkarki emendatu ahal izan du. Euskara eta okzitaniera-gaskoia, frantsesarekin batean, bere lurraldeko hizkuntz gisa ofizialki aitortu ondotik, herrietako eta herriarteko zerbitzu publikoen bitartez, transmisioa eta erabilera sustatzeko hizkuntza politika anbiziotsuak abian ezartzera engaiatu da Euskal Elkargoa. Euskal Elkargoak buruturiko ekintzak Euskararen eta Okzitanieraren Erakunde publikoek (zeinek mintzairaren transmiziorako bide nagusia den irakaskuntzaren garapenean esku-hartzen baitute) egin lanaren osagarri dira.



## 24. engaiamendua:

### > Herritarrek euskara erabiltzera sustatu

Lurraldeko biztanleei zuzenduriko sustapen ekintzak obratzen ditu Euskal Elkargoak, herritarrek zerbitzu elebidunak erabil ditzaten eta euskararen erabilpena bultzatzeko.

## 25. engaiamendua:

### > Okzitaniera-gaskoi hizkuntzaren eta kulturaren transmisio eta hedapen ekimenak sustengatu

Hiru sailetan hedatzen da Euskal Elkargoaren okzitaniera-gaskoi proiektua:

- Hizkuntza eta kulturaren transmisioa (haurtzaindegietan eta aisialdi zentroetan burutu esku-hartzeak sustengatuz, irakaskuntza elebidun eta helduentzako formakuntza arloko eskaerak instituzio eskudunei helaraziz),
- Hizkuntzaren hedapena (komunikazio euskarrien eta instituzioaren seinaletikaren bitartez, herriak eta elkarteak lagunduz),
- Kultura garapena (artistak haien sorkuntzetan lagundu, tokiko eragileak elkarren artean eta beste lurraldeetako eragileekin loturan eman).

## ekintzak

### >> PUBLIKO ZABALARI ZUZENDURIKO SENTSIBILIZATZE-EKINTZAK ERAMANAK IZANEN DIRA ERE, URTE OSOAN ZEHAR

Ipar Euskal Herrriko buraso berri guzietan Pack euskara bat eskuratzen dute. Sentsibilizatze liburuxka bat, kantuz osaturiko CD bat, autorako kolaki bat, bai eta eskolen, haurtzaindegien, aterperik gabeko aisialdi zentroen eta euskararen transmisiorako gainerateko eragileen aurkibide batez osaturiko opari gutun-azal ba da.

Udaberri guzietan, Kalakaño, haur gazteei eta haien familiei zuzenduriko animazio programak haurtzaindegietan proposaturiko euskarazko harrera argitan ematen du. Ekainean, euskara eta okzitaniera-gaskoia sustatzeko lan bat egiten duten herrien mintegi bat antolatua da. Eta, irailean, kanpaina instituzional batek helduak euskara ikastera bultzatzen ditu. Bukatzeko, azaroan, Euskal Elkargoak euskararen erabilera sustatzen du bi urtetatik behin Euskaraldiaren antolaketan parte-hartuz edo Euskararen urtaroa antolatuz. Bi ekitaldi hauek lurralde osoan eragile ugari mugiarazten dituzte.



**EUSKAL  
ELKARGOAK  
ATERPERIK  
GABEKO AISIALDI  
ZENTRO (AGAZ)**

elebidunen Euskaraz  
Josta labelizazio-  
programa sortu du.

## >> HIZKUNTZEN HEDAPEN EKINTZAK GARATUAK IZANEN DIRA EREMU PUBLIKOAN

- **Eleaniztasuna hedatzen du Euskal Elkargoak bere 21 politika publikoetan:** Mugikortasunak, ura, hondakinak, garapen ekonomikoa, turismoa, mugaz gaindiko ekintzak, kultura... Politika bakoitzerako, komunikazioan, herritarrei eman argibideetan, eremu publikoko seinaleketan eta elkargoko eraikinetan euskararen eta okzitaniera-gaskoiaren integrazioa segurtatzea izanen da xedea, egingarria izanen delarik. Horrez gain, urte guzietan, 40 langile inguruk dute euskarazko formakuntza profesionala segitzen. Euskara eta euskal kultura sustatzeko ateleriak ere proposatuak zaizkie langile eta hautetsiei.
- **Herriko etxeetako sustengua:** Herriak euskara eta okzitaniera-gaskoia sustatzera bultzatzeko, tresnak, itzulpenetarako laguntza edo hobekuntza-contratuak proposatzen dizkie elkargoak, besteak beste herriko langileak euskarara formatzeko gisan. Euskal Elkargoak 70 herri baino gehiago sustengatzen ditu.

### **Operadore pribatuei zuzenduriko**

- **sustengua:** Okzitaniera-gaskoiaren sustapenean parte-hartzen duten elkarte eta eragile pribatuen proiektuak laguntzen ditu Cap Tau Monderen deialdi publikoak urte guzietan. Euskarari dagokionez, EEPren bidez sustengatuak dira egitasmo hauek.

## >> HAURTZAINDEGIEK ETA AISIALDI HARREREK PARTE HARTUKO DUTE HIZKUNTZEN TRANSMISIOAN

LEHA dispositiboaren labela lortu duten 23 haurtzaindegi euskaldun eta elebidunei laguntza ekartzen segitzen du Euskal Elkargoak eta euskara erabiltzen duten aisialdi harrerak labelizatzeko « Euskaraz josta » abian ezarri berri du. Okzitaniera-gaskoiari dagokionez, gaskoi hizkuntza eta kulturaren sustapen ekintzak proposatzen ditu Aturri Beherean Euskal Elkargoak, Bidaxuneko eskola publiko elebidunarekin loturan.

### **PARTAIDE NAGUSIAK:**

**Herri-blokeko eragile guziak:** herriak, lurraldeko haurtzaindegiak eta aisialdi zentroak, etab.

**Euskararen eta okzitanieraren erakunde publikoak**

**Irakaskuntza, kultura eta aisialdietako elkarte eragileak**

**Euskaltzaindia eta Lo Congres Permanent de la Lengua Occitana akademiak**

Estatua, Akitania Berria Eskualdea, Pirinio Atlantikoetako Departamendu Kontseilua eta Euskal Elkargoaren artean osaturiko partaidetza tresna da EEP, euskararen aldeko hizkuntza politika partekatu bat eramateko. Euskarazko irakaskuntza garatzea, operadore pribatuak laguntzea (elkarteak, enpresak, etab.) Nafarroako eta Euskal Autonomia Erkidegoko gobernuekin lankidetzan euskararen egoera soziolinguistikoa jarraitzea dira haren zeregin nagusiak.

> **Zeharkakotasuna beste politika publikoekin:** Euskal Elkargoak eramanez politika publiko guziak

> **Urrunago joateko:** [https://www.communauté-paysbasque.fr/fileadmin/user\\_upload/mediatheque/Langue/HP\\_euskara/PROJET-POLITIQUE-LINGUISTIQUE.pdf](https://www.communauté-paysbasque.fr/fileadmin/user_upload/mediatheque/Langue/HP_euskara/PROJET-POLITIQUE-LINGUISTIQUE.pdf)

[https://www.communauté-paysbasque.fr/fileadmin/user\\_upload/mediatheque/Langue/Gascon-Gaskoia/Projet\\_e\\_-\\_Politica\\_linguistica\\_e\\_culturau\\_occitana\\_gascona.pdf](https://www.communauté-paysbasque.fr/fileadmin/user_upload/mediatheque/Langue/Gascon-Gaskoia/Projet_e_-_Politica_linguistica_e_culturau_occitana_gascona.pdf)

Euskkara



# LURRALDEAREN ANTOLAKETA NUMERIKOA ETA ERABILERA NUMERIKOAK

~ Sekula gertatu ez zen masifikazioa ezagutzen dute gaur egun herritarren eta enpresen egunerokoan teknologia, sistema eta zerbitzu numerikoak. Gure lurraldeak, gure instituzioak inarrotzen ditu horrek eta bakoitzaren praktikak bulkatzen aldi berean.



## EUSKAL ELKARGOAK EKARRITAKO BALIO ERANTSIA

Trantsizio energetikoak, mugikortasun iraunkorrak edo, molde orokorrangoan, gure bizimoldeen eta gure jendartearen bilakaerek agerian jarritako erronken aurrean, Ipar Euskal Herriarendako aterabide berriak irudikatzea ahalbidetzen du numerikoak, tokiko eragileak partaide izanez

Ipar Euskal Herri mailan gogoeta bat eramanez eta estrategia bat hedatuz, ez dira mutazio hauek jasaten, Euskal Elkargoko praktikak egokitzen ahal dira eta lurraldeko eragileak laguntzen ahal dira ere.

Euskal Elkargoak bereganatu duen aldaketa numerikoaren helburuak hauek dira: lurraldearen garapena laguntzea, tresna numerikoek ekartzen ahal duten guziaz baliatzea eta erabilera berriak egunerokoan txertatzea.

## engaiamenduak

### 26. engaiamendua:

> **Oso abiadura handiko internet denentzat bermatu 2023an**

Euskal Elkargoak bere antolaketa numerikorako politika publikoaren alde eraman lehen urratsa da Ipar Euskal Herriko herritar eta eragile guzietan oso abiadura handiko internet erabiltzeko aukera ukan dezaten hemendik 2023ra.

2018tik aitzina, Euskal Elkargoak horrela lan bat burutu du Pirinio Atlantikoetako Departamendu Kontseilua eta gainerateko herri elkargoekin Fibre 64 Sindikatu Mistoaren sortzeko, eta azpiegituren hedapena elkarren artean diruztatzeko. Zerbitzu publikoko ordezkaritza-hartzaile batek zuntz optikoko sarearen eraikitzea, ustiaketa eta merkaturatzea segurtatzen du, herritarren etxeetarako, operadoreek inbertitzeko gogorik erakutsi ez duten zonaldeetan.



## 27. engaiamendua:

### > Erabilera numerikoen bilakaera lagundu

**Estrategia numerikoaren arloan Euskal Elkargoak urrunago joan nahi du,** Elkargoari eta lurraldeko eragileei aukera ainitz eskaintzen dizkieten numerikoaren erabileren garapenari loturiko erronkei erantzunez.

**Izan ere, numerikoari esker, ezagutarako sarbide errazagoak eskaintzeaz gain, pertsona,** herritar eta erabakitzaile, bezero eta hornitzaileen arteko harremanak aukera biderkatuak, bai eta oraindik susmatzen ez diren datuen azterketa, herritar erabiltzaileen igurikatze berriei erantzunak eskaintzen ditu.

**Erabilera numerikoen garapena Euskal Elkargoak azkarki lagundu gogo duen heldu diren urteetako desafio nagusietako bat da.** Laguntza hau emanen du gainerateko eragile publiko eta pribatuekin partaidetzan eta instituzio- eta lege-esparruaren baitan, eraiki duen bide-orrian oinarrituz.

**Hiru nahikeritan bermatzen da Euskal Elkargoak erabilera numerikoez duen estrategia** (helgarritasuna eta inklusioa, numeriko arduratsua, aplikazio eta datuen interoperabilitatea) eta lau ardatzen inguruan egituratzen da: gobernantza numerikoa, zerbitzu numerikoak, datuak eta segurtasuna.

**Gai garrantzitsua da gobernantza numerikoarena, Euskal Elkargoak ezingo bailuke bere estrategia bakarrik aitzinarazten ahal.** Gakoetatik bat izanen da partaide publikoen (eskualdeetako plataformak, sindikatu mistoak, beste instituzioak...) zein pribatuen (besteak beste lurraldeko enpresak edota ere elkartearen sarea) ekosistemarekin harremanetan

jartzea. Xedeak ondokoak izanen dira: gobernantza azkar eta berritzaile bat jartzea, Euskal Elkargoko hautetsi eta langileak sentsibilizatzea eta kultura berri horretan sarraraztea, baita estrategia numeriko arduratsu bat onartzea eta PCAETeko erronkei erantzutea.

**Euskal Elkargoko zuzendarietako sustengu-zerbitzuak (GIS, etab.) edo zenbait lanbideeri bereziak zaizkienak (hondakinen bilketa, etab.)** eta, bistan dena, erabiltzaileendako zerbitzuak (informazio-ataria, dirulaguntza eskaerak, etab.) barne hartzen ditu erabilera numerikoen garapenak. Irekitzen den lan sailari esker, barne erabilera numerikoak oraindik gehiago garatzen eta harmonizatzen ahalko dira, eta in fine erabiltzaileei zerbitzu-atari bat proposatzeko balioko du ere.

**Azkenik, lurraldeko datuen kudeaketak estrategia numerikoaren pieza nagusi bat bilakatu behar du.** Euskal Elkargoak baliabide hau ekoiztu, bildu, sailkatu eta ustiatzeko gaitasuna ukan behar du haren eraginkortasuna hobetzeko bere politika publikoak obratzeko garaian. Ipar Euskal Herriko herritar erabiltzaile eta eragile sozioekonomikoei zuzenduriko datu publikoen irekitzeak elkargo-administratzaierako zeregin nagusietarik bat bilakatu behar du. Zerbitzu berri batzuk sortzeko berrikuntza bide izan daitezke, adibidez, datu hauek (laborantzako datuei buruzko Zabal ataria, Adresses datu-basea, Txik Txak mugikortasun datu jokoak...). Datuen kudeaketak inplikazioak ditu, datuak kudeatzearekin batera elkargoko informazio sistemekiko segurtasuna landu behar da eta arauen araberakoak direla zaindu behar da (RGPD).

# ekintzak



## >> AZPIEGITURA NUMERIKOAREN HEDAPENA BUKATU

Euskal Elkargoak bere eskumena Fibre 64 sindikatu mistoari transferitu dio eta sindikatua diruztatzen du. Sindikatu horren baitan eta beste instituzioetako partaideekin batera, lurraldeko garapen numerikoan (eta ondorioz ekonomikoan) parte hartzen du Euskal Elkargoak, jadanik dauden ekimen sare publikoen koherentzia bermatuz eta gaitasun numeriko mutualizatu bat bere dimentsio guzietan eraikitzen lagunduz.



## >> ESTRATEGIA NUMERIKOA HEDATU

Hainbat ekintza 2026 arte eramatea aurreikusten du Euskal Elkargoaren erabilera numerikoei buruzko bide-orriak, hauen artean:

- Langileak eta hautetsiak erabilera numerikoen, datuen segurtasunaren eta ustiaketaren kultura sarraraztea numerikoaren kultura bateratu bat sortzeko gisan,
- Datuaren zeharkako gobernantza bat plantan ezartzea,
- Datu batzuen bateratzea, ustiaketa eta, hala behar izanez gero, kanpoarekiko partekatzea ahalbidetzen duen datu azpiegitura bat plantan jartzea,
- Langileentzat, kutxa gotor numeriko bat plantan ezartzea




**EUSKAL ELKARGOAK**  
**INBERTITZEN** du guziendako  
Abiadura Handiko Internet  
eskuratzeko Ipar Euskal Herrian:  
%100 berantenez 2023an.

> **Zeharkakotasuna beste politika publikoekin:**  
Lurralde antolaketa, Garapen ekonomikoa, Gizarte  
kohesioa, klima-areia-energia.





# mendia



~ Lurren barnealdea Itsaso Atlantikoari lotzen dio euskal mendiak, baina baita Ipar Euskal Herria mugaz bestaldean diren Nafarroa eta Gipuzkoako lurraldeei ere.



## **EUSKAL ELKARGOAK EKARRITAKO BALIO ERANTSIA**

Euskal Elkargoak, bere partaideekin batera -herriak, mendi elkargoak eta Mendiko Lur-funtsen elkarteak- Mendiari zuzenduriko politika bat darama, zeinak 2007ko Euskal Mendiaren garapen iraunkorreko itunarekiko koherentzia zaintzen baitu.

Euskal Mendia Eskualdeko Parke Naturalaren sortzea prestatzen du Euskal Elkargoak, bere Mendiko politikaren zati bat obratzeko.

Badira mendeak laborantza-artzaintza trahumanteak (hazkuntza) eta oihangintzak (papertegi, energiako egurra eta obrako egurrarako) bazterrak eta lurraldearen artzain-nortasuna moldatzen dituela. Aktibitate tradizional dinamiko hauek mantentzea funtsezko erronka bat da tokiko ekonomiarako eta ingurumena zaintzeko.

Aberastasun natural eta bazter erakargarri hauek jarduera turistikoei, natura zabaleko aisialdiei, ondare naturalen, historikoen, meategietakoen ezagutzari lekua uzten diete ere.

Gero eta jende gehiagok kurrutzen duen funtzio askotariko mendi horretan (aldi berean lan eremu eta aisialdi gune dena) erabileren kohabitazioa hobetzea eta gatazkak eta istripuei aurre egitea da erronka nagusia. Jarduera ekonomikoen eta mendiko ingurumen hauskor horren zaintzaren arteko oreka atzematea da xedea.

Hirietako zentralitateak urrun izateak eta geografiak bizi baldintzak gogorak bilaka arazten dituzte haran gainaldean. Ondorioz, bertako biztanle kopurua molde jarraikian apaltzen ari da. Zerbitzuak eta gizarte lotura sortzen duen elkarte sare dinamikoa atxikitzea da joera honi buelta eman eta herri biziak atxikitzeko berme handiena.

Azpiegiturak eta sareak (bideak, ur ekartzeak, artzaintzarako eraikin ttipiak...) andeatzen dituzten eguraldiko gorabehera azkarrek (elurra, euriteak) ere hunkitzen ahal dute mendia.

“

**Erronkak askotarikoak eta interdependenteak izan daitezke, mendiaren kudeaketa kolektiboa eta mugaz gaindikoaren arloan eta bere bazter-, natura- eta kultura-ondareei dagokienez ekonomia arloan.**

”



# engaiamenduak

## 28. engaiamendua:

### ➤ Euskal mendia bizirik eta herritarrez beterik atxiki

Lurraldeko tokiko baliabideak laborantzaren, oihangintzaren eta turismoaren bidez balioan jartzen dituen garapen ekonomiko endogeno bati lehentasuna eman nahi dio Euskal Elkargoak, jarduera sektoreen arteko sinergia gehiago faboratuz.

Egitura kudeatzaileak, artzaintzarako eremuak kudeatu eta antolatzeko gaitasunean sendotzen segitzen du Euskal Elkargoak. Laborantza-artzaintzaren dinamika bat segurtatzea eta natura eremu desberdinak zaintzea, ingurune eta espezie arruntak bezainbat ohargarriak ere begiratzea, artzaingoaren nortasunaren trebetasun bereizgarriak azkartzea eta jardueren elkarbizitza ona antolatzea da lehentasuna.

Demografia apaltze bat jasaten duten

mendiko lurraldeei dagokienez, gazteei bertan egoteko, adineko pertsonei gehiago inguraturik eta biztanle berriei plantatzera etortzea ahalbidetzen dieten herri erakargarriak atxikitzea da xedea.

Aldaketa demografiko edo klimatikoen aurrean, Euskal Elkargoa engaiatzen da: herriak, profesionalak eta elkarteak lagunduko ditu egokitu daitezten eta trantsizio ekonomiko, ekologiko eta sozialean, Lurraldeko Klima Airea Energia Planari jarraikiz.

Azkenik, mugaz gaindiko eskala batean behar da gehiago pentsatu eta eraiki euskal mendiaren garapena, mendiko ipar eta hegoko bi mazelako haranen arteko lankidetzaz garatuz, eta hau, Euskal Elkargoaren Mugaz gaindiko lankidetzaz estrategiaren baitan.



# ekintzak

Kudeatzaileak mendiko eremuak kudeatzen eta antolatzen laguntzeko, baina ere mendi eremuko eta mendi eta inguruetako proiektu eramaileen ekimen kolektiboak sustengatzeko asmoz ere, ondokoan jarduten du Euskal Elkargoak:



## EUSKAL MENDIAREN ESKUALDEKO

Parke Naturala Euskal Elkargoaren ekimenez sortu da.




## >> « EUSKAL MENDIA » ESKUALDEKO PARKE NATURALA SORTU

Eskualdeko Parke Natural (EPN) bat mendi inguruko eta/edo mendi eta inguruetako 111 herrien eremuan sotzeko egokitasun eta egingarritasun ikerketa bat eramana izan da 2017/2018an. Ondoko urteetan, Ipar Euskal Herriko herri, profesional, elkarte eta herritarrekin batera EPNaren garapen iraunkorreko ituna apailatuko da: bide-orri operazional bat euskal mendiaren erronka nagusiei epe luzerako erantzun bat emateko.

Mendiaren garapen iraunkor bat bermatzeko bide egokiena eta, aldi berean, anbiziotsuena bezala agertu da Eskualdeko Parke Naturala, mendiko ingurumena errespetatzen duten giza jarduera integratuak honela iraunkorraziz.

111 HERRI

Bere mendi LURRALDEA mendi eremuan edota mendi eta inguruen eremuan SAILKATUAK DIREN 111 HERRITAZ ARI DA



IPAR EUSKAL LURRALDEAREN %78

BERE BIZTANLERIAREN 27%



## >> ASKOTARIKO ERABILERA / JARDUEREN KOHABITAZIOA KUDEAKETA SEGURTATU

Partaidetzan buruturiko ekintza enblematikoa, EHMEBekin, hots mendiko lau mendi elkargoen elkartearekin, askotariko erabileraren kudeaketa mendiko kudeatzaileak eta erabiltzaileak biltzen dituen lan talde baten animazioan bermatzen da, eta hainbat helburu ditu: erabilpen gatazkak aitzinetik ikusi/tratatu, kudeaketaren eta sentsibilizazioaren arloetan erantzunak ekarri tresna konkretu batzuen bitartez (informazio-kanpaina praktika onei buruz, « euskal mendiaren » eremuaren araberrako seinaletika homogenea, giza bitartekaritza, etab.).





## >> MENDIKO ETA MENDI ETA MENDI INGURUETAKO NATURA 2000 GUNEEN (GURE MENDIA ETA BAIGURA) KUDEAKETARAKO EUSKAL ELKARGOAK DUEN GAITASUNA ETA INGENIARITZA EKARRI

Helburu Dokumentuen (DOCOB) obratzea bi Natura 2000 gunetan eramaten du Euskal Elkargoak: « Lizarrietako lepoa » eta « Larrun eta Xoldokogaina mendi eta inguruak ». Laborariak eta herriak lagundu laborantza-ingurumen eta klima neurrien (LIKN) kontratuak izenpetzeko, publiko zabala biodibertsitateari sentsibilizatu, ezagutza maila emendatu ikerketen bidez, edo pentze loretuen lehiaketa antolatzea dira gunehorietan eraman ekintza konkretu batzuen adibideak.



## >> EUSKAL MENDIA LEADER PROGRAMA HEDATU

Leader europar programa (1,7M €) eramaten du Euskal Elkargoak, euskal mendiaren garapen iraunkorraren aldeko proiektu kolektibo eta berritzaileak sustengatzeko eta 2018tik urtero 200.000 euroko diru zama bat ekartzen du proiektu-dinamika laguntzeko mendialdean. Elkarte, herri edo erakunde profesional batzuek eraman 80 proiektu inguru jadanik sustengatuak izan dira 2017 eta 2020 artean. Hala nola bi janari-saltegi biologiko eta herriko Ezpeleta eta Donibane Garazin, Zalgizeko Gazitegi kolektiboaren garapena, energia-egur transformate plataforma baten sorkuntza Mendiben, artzain soldatapekoen enplegu-burtsa.

> **Zeharkakotasuna beste politika publikoekin:** Laborantza, Turismoa, Garapen ekonomikoa, Antolaketa, Trantsizio ekologiko eta energetikoa, Paisaiak eta Ondarea, Herritarrendako zerbitzuak, Ura, Mugikortasunak.

> **Urrunago joateko:** Leader euskal mendia 2014-2020 hautagaitza, Eskualdeko Parke Naturalaren egokitasun eta egingarritasun ikerketa (2018).

### PARTAIDE NAGUSIAK

**Estatua** (DREAL, DLZ, Prefetura eta suprefetura, Pirinioetako Mendi eta inguruetakoko Agentzia)

**Akitania Berria Eskualdea**

**Pirinio Atlantikoetako Departamendu Kontseilua**


**Mendi eremuetako kudeatzaileak: Herriak, Mendi elkargoak, Mendiko Lur-funtsen Elkartek**

**Instituzioetako, profesionalen ordezkariak, elkarte eta formakuntza mundukoak, mendiaren erabiltzaileak (lan sektoreak: artzaingoa, oihangintza, arrantza, ihizia, turismoa, ondareak eta paisaiak)**

**Nafarroako, Euskadiko eta Gipuzkoako partaideak:** municipios, consejos y juntas de valles, Nafarroako eta Euskadiko Gobernuak, Gipuzkoako Foru Aldundia, grupos de acción locales

**Mendi eremuetako Frantziako ordezkariak zein ordezkari transnazionalak, besteak beste EPN zonaldean.**

# HIRI- POLITIKA



Hiri-politikak hunkitzen duen Ipar Euskal Herriko herri bakarra Baiona da: Hiri Eremu Sentiberaren (ZUS) erdi-erdian (Breuer eta Mounédé) eta San Izpiritu auzoan (Zitadela/Bedat, Maubec/ Errepublikako Plaza, Santa Katalina Karrika).

Botere publikoen esku-hartzea, hiri-politikaren lehentasunezko auzoetan, partaidetza koadro batean formalizatua da, 2014-2022 garairako sartua den hiri-kontratua, garapen ekonomikoa eta hiri- eta gizarte-garapeneko erronkak kontuan hartzen dituen urrats integratu batean.

## engaiamenduak

### 29. engaiamendua:

➤ **Hiri-kohesio eta auzo behartsuenekiko elkartasun politikan aktiboki parte hartu**

Euskal Elkargoa lanean ari da elkargoko lurralde osoan, eta bereziki Hiri Elkartasunerako eta Berriztapenerako legepean (HEB legea) dauden herrietan, Bizitegi sozialen eskaintza orekatuagoa izan dadin. Bitarteko eskaintza bat garatzea du helburu (alokairuzkoa bezainbat jabegotzara heltzekoa ere) eskaintzaren dibertsifikazio batera heltzeko eta gizarte nahasketa bat garatzeko lehentasunezko auzoetan.

Bizilekuaren tokiko politika abian ezartzeko, bizileku pribatuetan esku-hartzen du, besteak beste bizileku ez-duinen aurkako borroka protokoloaren eta Interes Orokorreko Programaren bitartez (PIG) bizileku ez-duina eta prekaritate energetikoa tratatzeko.



### EUSKAL ELKARGOAK EKARRITAKO BALIO ERANTSIA

Euskal Elkargoaren nahitaezko eskumen honek obratze berezi bat eskatzen du, zeina GIP-DSUari (Interes Publikoko Taldea – Gizarte- eta Hirigintza-garapena) eskainia baita, eragile publiko eta pribatu desberdinen arteko lankidetzaz errazteko.

Haren hiri-politikaren bitartez, bi nahikeri azkar eramaten ditu Euskal Elkargoak: auzo behartsuenen eta lurraldeko gainerateko eremuen arteko tartea murriztea eta bertako herritarren bizi baldintzen hobekuntza, besteak beste diskriminazio forma ooren kontra borrokatuz.

Bestalde ere Euskal Elkargoak esku-hartze batzuk eramaten ditu auzo horietan daramatzan beste politika publikoen bidez: kohesio soziala, bizilekua, garapen ekonomikoa, auzoetara doazen joan-jinkari, autobus eta Tram'Busen estreina...



### 30. engaiamendua:

#### > Auzo horien garapen ekonomikoa lagundu

Aktibitateak hartzea eta zentralitate espazio honi oldar berri bat ematea ahalbidetuko duen Gaskoien Plazako Ekonomia Sozial eta Solidarioari (ESS) eskaini gunearen sortzea da xede nagusia. Merkataritzako gunetze baten baieztapen batean sartzan da berezikiago hautu hau, baina baita kulturako batean ere, proiektuaren baitan auzorako mediateka berri bat eraikitzea aurreikusia baita ere. Gaskoien Plaza balioan jartzeko estrategia oso bat - ekipamenduak, saltegiak, bizitegiak, mugikortasuna- eraikia da ere. Izan ere, mugikortasunen gaia funtsezkoa da eta, gisa horretara, lotura funtzionalak azkartuak dira lurraldearen gainerateko

eremuekin Tram'Bus eta beste autobus lineen hedapenarekin. Baionako Hiriak bestalde, Gaskoien plazaren birkalifikatzea programatua du.

Zitadela auzoan, Bedat-en zaharbertzearen ondotik, Habitat Sud Atlantiquek (HSA) eta Hiriak birkalifikatze eragiketa orokor bat eramaten dute.

Elkargoak auzo hauetan eramaten duen lana Tokiko Enplegu bidezko Gizarteratze Planean (PLIE) eta Ipar Euskal Herri mailan obratua izan den gizarteratze klausulan bermatzen da.



# ekintzak



## >> BERPIZTE EKONOMIKOA LAGUNDU

Euskal Elkargoa Gaskoien plazaren antolaketa-ikerketak pikoan emateko lanean ariko da, beste partaideekin batera, xede nagusia ESE gunea plantatzea delarik. Mugikortasunen (autobusak eta Tram'bus-a) merkataritzaren, kulturaren (eta abarren) gaiak lotzen dituen hiriko urrats zabalago batean sartzten da proiektu hau.

Aurreikusia da ere proiektu eramaileak laguntzea haien proiektuen garatzeko eta lur-funtsen atzemateko. Honela, Euskal Elkargoak auzo hauen indartze ekonomikoa aurreikusten du, besteak beste apirilaren 14ko etorbidean eta Done Eztebeko sektorean.



**EUSKAL  
ELKARGOAK  
EKONOMIA  
SOZIAL ETA  
SOLIDARIOAREN  
(ESS) GUNEA  
SORTU DU.**



## >> BERRITU, INGURUNEA HOBETZEKO

Gurutze Sainduko Gainei eskainitako obra handien ondotik, Euskal Elkargoak lagundu ditu Bedat eta Zitadela auzoetako birmoldaketarako hiriko ikerketak. Zitadelaren sektorean, sakoneko birmoldaketa du helburu antolaketak: bizitegien aurtikitze/berreraikitzeak eta ikastetxearen birmoldaketa gune bakar batean, guzia Maubec karrikako garraio publiko eskaintzari lotua zaiolarik.

### PARTAIDE NAGUSIAK

**Interes Publikoko Taldea** – Gizarte- eta Hirigintza-Garapena (GIP-DSU) da hiri-politikaren obratzeko hurbileko egitura.

**Estatua**

**Baionako Hiria**

**HSA**

> **Zeharkakotasuna beste politika publikoekin:** Bizilekua, garapen ekonomikoa, mugikortasunak, Gizarte kohesioa


> **Urrunago joateko:** [https://www.communaute-paysbasque.fr/fileadmin/user\\_upload/mediatheque/Documents/Deliberation\\_conseil/seance\\_du\\_1er\\_fevrier\\_2020/OJ\\_28\\_Avenant\\_Protocole\\_Contrat\\_de\\_Ville.pdf](https://www.communaute-paysbasque.fr/fileadmin/user_upload/mediatheque/Documents/Deliberation_conseil/seance_du_1er_fevrier_2020/OJ_28_Avenant_Protocole_Contrat_de_Ville.pdf)







# GIZARTE KOHEGIOA



Lurralde erakargarria da Ipar Euskal Herria, eta familia berriak etortzeak ekartzen du hazkunde demografikoaren zergatia baina errealitate kontrastatuekin jokatzen du.



## EUSKAL ELKARGOAK EKARRITAKO BALIO ERANTSIA

Euskal Elkargoak ekarri duen gizarte kohesiorako proiektuak politika publiko ugari estaltzen ditu eta lan bereziago bat eramaten du lehen haurtzarora, haurtzarora, gazteria, autonomia, prekaritatea eta osagarriaren inguruan. Lurralde zabal eta, aurkitu egoeretan heterogenoari zuzentzen zaiolako, aldi berean:

- Globala da, Ipar Euskal Herri mailan, Euskal Elkargoari, esperimentazioak, herriarteko mailako egitasmo kolektibo berritzaileak faboratzeko gizarte garapen arloko eskumena bat emanez.

- Tokikoa da, herritarrendako zerbitzuen kudeaketan, hurbiltasun- eta subsidiarioratasun-printzipioak erabiliz. Honela, Euskal Elkargoak eta EGEZek herriarteko zerbitzuetan baizik ez dute esku-hartzen, beste leku guzietan, herriek eta Gizarte Ekintzako Udal Zentroek (GEUZ) segitzen dute haien zerbitzuak kudeatzen.

Euskal Elkargoa sortuz, hainbat politika publiko sozial prismo batekin eramanak dira: bizilekuaren politika, mugikortasun eskaintzak, ur-prezioaren finkatzea, garraioena, ikuskizunena... Xumeenei ekarri arreta honetarako ere neurri bereziak ekarriak izan dira kolektibitateak ekarritako eskema estrategiko desberdinetan: prekaritate energetikoaren aurkako borroka Klima Planean, pertsona ahulen bizitegiak Tokiko Bizileku-Programan... Horri esker ere gizarte arazoak eskala onean lantzen ahal dira, adibidez, osagarria, pobrezia, autonomia eta prekaritatearen mailan, ez baitira bakarrik herriaren mailan landuak izaten ahal eta erantzun egokia atzematen baitute Euskal Elkargoaren Gizarte Ekintzako Zentroan.

Biztanleriaren hazkundeak eta familiak pertsonen kopuruak apaltzeak tentsioak sortzen dituzte bizitegi bat lortzeko garaian. Buraso bakarreko familien proportzioa emendatzen da, horrek behar berriak eraginez familiei ekarri laguntzaren mailan (haurren aktibitateak, zaintza molde desberdinak eta ordutegi dekalatuen egokitzea). Biztanleak gero eta zaharragoak dira, eta laguntzaile/lagunduen proportzioa apaltzen da. Enplegurik gabe eta formakuntzan ez diren gazteen kopurua goiti doa eta 36.000 pertsona inguru pobrezia mailaren azpian aurkitzen dira .

“

Ipar Euskal Herriko Gizarte Beharren Azterketak argira ekarri ohar hauen ondorioz, Euskal Elkargoaren gizarte kohesiorako proiektua plantan ezarria izan da 2018an eta Euskal Elkargoko Gizarte Ekintzako Zentroa (EGEZ) sortua izan da.

”



# engaiamenduak

Euskal Elkargoak ekarri gizarte kohesiorako proiektuak politika publiko ugari estaltzen ditu eta lan bereziago bat eramaten du lehen haurtzarora, haurtzarora, gazteria, autonomia, prekaritatea eta osagarriaren inguruan. Lurralde zabal eta, aurkitu egoeretan heterogenoari zuzentzen zaiolako, erantzun desberdinak ekarri behar zaizkio.

## 31. engaiamendua:

> **Gizarte kohesioa bilatzen duten egitasmo kolektibo berritzaileak sustengatu**

Ipar Euskal Herriaren mailan, Euskal Elkargoaren gizarte garapen arloko eskumenak esperimendazioak, herriarteko mailako egitasmo kolektibo berritzaileak faboratzen ditu.

## 32. engaiamendua:

> **Hurbiltasun- eta subsidiariotasun-printzipioen arabera ekin herritarrendako zerbitzuak kudeatzeko**

Hurbiltasun- eta subsidiariotasun-printzipioak erabiliz antolatua da herritarrendako zerbitzuen kudeaketa. Honela, Euskal Elkargoak eta EGEZek herriarteko zerbitzuetan baizik ez dute esku-hartzen, beste leku guzietan, herriek eta GEUZek segitzen dute haien zerbitzuak kudeatzen.



# ekintzak



## >> KALITATEZKO ZERBITZU BAT SEGURTATU GURE HAURTZAINDEGI ETA AISIALDI ZENTROETAN

Euskal Elkargoak, Departamendua eta CAFarekin batera, lehen haurtzaro eta haurtzaro arloko beharrak estimatzen ditu.

11 haurtzaindegi zuzeneko kudeaketan ustiatuz, 14 elkarte haurtzaindegirekin, 3 etxe-haurtzain sare eta 2 familia haurtzaindegirekin pasatu hitzarmenekin, Ipar Euskal Herriko lehen haurtzaroko harrera lekuen % 25ean esku-hartzen du Euskal Elkargoak. Aterpetzerik gabeko 9 aisialdi zentro kudeatzen ditu ere, bai eta gazteri harlekuak eta Bidaxuneko sukalde zentrala ere. Bere gizarte garapen misioaren bitartez, nerabe eta gazte helduei laguntza ekartzen dieten egiturak sostengatzen ditu ere Euskal Elkargoak, bai eta esperimendazio batzuk eta gazteek eraman elkarteak ere.



= Klima plana



## >> BIZTANLE GUZIEK OSAGARRI MAILAN DITUZTEN BEHARREI ERANTZUN

Diziplina Anitzeko Osagarri-etxeak eraikitzen ditu Euskal Elkargoak, medikuntza eskaintza eskasa duten zonaldeetan, Eskualdeko Osagarri Agentziako Eskualdeko Osagarri Proiektuaren arabera (Maule, Atharratze, Amikuzeko Osagarri-etxeak). Horrela, herritarren beharrei erantzuten zaie arta eskaintza oso bat eta jarraipena eta prebentzioa biltzen dituen « osagarri ibilbide » bat eskainiz.

Euskal Elkargoak Tokiko osagarri-kontratuaren gidaritza ARSarekin partekatzen du, prebentzioa eta herritarren osagarriko erabakigarrien hobekuntza azkartuz Euskal Elkargoko sailkako politika desberdinen bitartez (adib.: uraren eta airearen kalitatea, kirol-osagarria, elikadura sano eta iraunkorra...).

## >> MENEKO PERTSONAK ETXEAN ATXIKITZEAREN ALDEKO EKIMENAK SUSTENGATU, GEHZ-AN BERMATUZ

Meneko pertsonak etxean atxikitzea azkartzeko ekimen ugari sustengatzen ditu Euskal Elkargoak (esperimentazioak, pertsonari laguntzako lanbideak balioan ezartzea...). Haren TBP-ren bitartez, etxebizitzaren egokitzeko obren finantzatzea, Autonomia egoitzen eraikuntza (AGM: Alokairuzko Gizarte Mailegua), etxea eta EHPAD-aren arteko bitarteko bizilekuen garapena laguntzen du (kohabitazioa, bizileku sozial partekatua...).

Adineko eta ahalmen urriko pertsonendako mugikortasun aterabide berriak ekartzen ditu eta mugitzen da 60-75 urtekoen herritar bizian engaiamendua azkartzeko (bizi sozial esparruen bitartez, adibidez).

GEHZ-aren bitartez, herriarte mailako zerbitzuak kudeatzen ditu, jendea etxean atxikitzea erraztuz apairuak etxera eramanez Bidaxunealdean, Garazi-Baigorriin, Xiberokan, Amikuzen, Iholdi-Oztibarren, eta Hazparnealdean.

## >> PREKARIOENI ZUZENDURIKO EKINTZETAN INPLIKATU

Ipar Euskal Herriko lehen larrialdiko aterpetze eskema burutuko du Euskal Elkargoak bere Tokiko Bizileku-Programaren (TBP) baitan. Ipar Euskal Herri osoan prekaritate handiari loturiko ekipamenduak sortzen, kudeatzen edo jendearen esku uzten ditu.

Prezio sozialak plantan ezartzen ditu (ura, garraioak, kultura...).

Agertzen diren proiektuak, Jarduera Ekonomikoaren bidezko Gizarteratzean, elkartasunezko elkarten kolektibo baten egituraketa sustengatzen ditu eta prekaritateen behatoki bat plantan ezartzeko jarduten du.

Azkenik, epizeria soziala bezalako zerbitzuak sortzen, kudeatzen edo sustengatzen ditu (Garazi-Baigorriko eta Xiberoko lurraldeetan) eta herriak laguntzen ditu bizilekuteetarako edo laguntza sozial eskaera txostenak burutzeko Bidaxunealdeko lurraldean.



### EUSKAL ELKARGOAK PREKARITATE

handian direnentzat ostataleku modularren proiektuan parte hartzen du Human'isa XXI eta HSArekin. Euskal Elkargoak Amikuzeko Osagarri-etxea sortu du.

## Euskal Elkargoaren Gizarte Ekintzako Zentroari behako berezia

EGEZ , Euskal Elkargoari lotua den erakunde publikoak, autonomia eta prekaritatearen alorretan esku-hartzen du. Proiektu kolektiboak laguntzen ditu Ipar Euskal Herri osoan (adib.: bizi sozial eremuak, bizitegi partekatua, eguneko harrera gunek...) eta jendeak etxean atxikitzeari lotuak diren zerbitzuak kudeatzen ditu Ipar Euskal Herri barnealdean, 220 langile baino gehiagorekin, Departamendu kontseiluak bozkatu oreneko prezio baten arabera.

### PARTAIDE NAGUSIAK:

GEHZ

CAF

ARS

Departamendu kontseilua

Elkartek

#### > Zeharkakotasuna beste politika publikoekin:


Etxebizitza, mugikortasunak, garapen ekonomikoa, Trantsizio ekologiko eta energetikoa, elikadura iraunkorra.

#### > Urrunago joateko:

[https://www.communaute-paysbasque.fr/fileadmin/user\\_upload/mediatheque/Etre\\_accompagne/PROJET\\_DE\\_COHESION\\_SOCIALE\\_FRANCAIS.pdf](https://www.communaute-paysbasque.fr/fileadmin/user_upload/mediatheque/Etre_accompagne/PROJET_DE_COHESION_SOCIALE_FRANCAIS.pdf)  
[cadre-de-vie/lhabitat/plh-pays-basque](https://www.communautepaysbasque.fr/le-habitat/)



= Klima plana



# KIROL-, KULTURA- eta HERRITARRENDAKO ZERBITZU-EKIPAMENDUAK

Ipar Euskal Herria gaur egun ongi hornitua da orokorki ekipamendu eta zerbitzuetan. Herritarren eguneroko beharrak segurtatuak dira eta ekipamendu eta zerbitzu hauen erabiltzeko tartek aski laburrak dira.

Hala ere, lurralde mailako desberdintasunak agertzen dira ohar horretan eta ardatz egituratzaile hauetatik kanpo diren zenbait leku aski hauskorrak gelditzen dira.

Horrela, funtsezkoa da ekipamendu beharretan direnei erantzutea, bereziki biztanleria emendatzen ari den haietan, bai eta zenbait ekipamendu eta zerbitzu babestea eta garatzea lurraldeko zonalde ahulenetan.



## EUSKAL ELKARGOAK EKARRITAKO BALIO ERANTSIA

Euskal Elkargoaren sortzeari esker, molde koherentean ekiten ahal da lurralde osoan beharrezkoak diren berrorekatzeak gauatzeko. Nahikeria hau elkargoaren ekipamenduak eraikiz edo herrietako proiektu batzuk partehartze funtsen bitartez lagunduz gauzaten da. Euskal Elkargoaren finantza edo ingeniariaritza ahalmenak balioan ezarriak dira hemen beste behin ere, 10 herri elkargo ohien bateratzeari esker.

## engaiamenduak

### 33. engaiamendua:

#### > Ipar Euskal Herriko Publikoarendako zerbitzu-etxeen sarea hedatu

Honela, Euskal Elkargoa Estatuarekin batean, lurraldeko Publikoarendako zerbitzu-etxe/France Services guneen sarea hedatzera engaiatu da. Horren xedea da, zerbitzu publikoen helgarritasuna publikoari eta herritar bakoitzari hobetzea, leku berezitu eta desmarta administratibo desmaterializatuei banakako laguntza dispositibo batzuei esker.



## 34. engaiamendua:

### > Ipar Euskal Herriko haur guziei eskola denboran igeri egiten ikasteko parada eskaini

Ipar Euskal Herrian zerrendatuak diren hainbat kirol jarduera urari lotuak zaizkio. Izan daitezten ur biziko kirolak (canyoning, kanoa-kayak, rafting...), itsasokoak (surf, paddle, igeriketa librea, bela, arrantza, itsasbazterreko sokorria, urpekaritza...), espeleologia, gazte-gaztetik igeri egiten ongi jakitea beharrezkoa da mota hauetako diziplina batean aritzeko.

Haurren garapen fisikorako eta osagarrirako onura izanki, erronka ekonomikoa da ere igeri egiten ikastea Ipar Euskal Herrian. Erakargarritasun turistikoaren osagai nagusia dira ureko kirol aktibitateak lurralde osorako. Garrantzitsua da beraz Ipar Euskal Herriarendako, gaurko eta biharko profesionalen inguratzea (Igerizain salbatzaileak, Estatuko Brebetadunak, etab.).

Horretara heltzeko, igerilkuen Plan bat apailatu du Euskal Elkargoak, Ipar Euskal Herriko haur guzietan igeri egiten ikasteko parada ukan dezaten, eskola denboran, 6.a bukatu aitzin eta honela Segurtasun osoz Igeri egiten-Jakitearen Ziurtagiria balidatzeko.

Ondokoa zehazten du Igerilekuen planak:

- Elkargo-intereseko ekipamenduak hiru irizpideren arabera: ekipamenduaren eskola-hedapena, lehen mailako eskolako igeriketarako tarteen ematea eta ekipamendutik 5 minutura a bizi den biztanleriaren dentsitatea.
- Parte-hartze funtsei buruzko politika bat, lehen mailako eskolaren baitan igeriketa ikasketan parte hartzen duten ureko ekipamenduak berritzen dituzten herrientzat.



## 35. engaiamendua:

### > Kirola denentzat lagundu lurralde osoan

2.400 kirol ekipamendu eta gune baino gehiago zerrendatuak dira Ipar Euskal Herrian, eskaintza aski handia da jadanik baina osatua edo sendotua izateko beharra badu batzuetan. Kirol ekipamenduen antolaketa eskema bat apailatua izanen da zentzu horretara eta ur ekipamenduena osatuko du horrela.

## 36. engaiamendua:

### > Denei, kultura-ekipamenduen erabiltzeko aukera bera bermatu

Kirolarentzat bezala, kultura-ekipamenduen eskemaren gauzatzea abian ezartzen du Euskal Elkargoak, lurralde berdintasuna faboratzeko gogoarekin Ipar Euskal Herri osoko herritarrek kalitatezko eskaintzara hurbiltzeko aukera ukan dezaten.

## ekintzak

### >> PUBLIKOARENDAKO ZERBITZU-ETXEAK (MSAP) ETA FRANCE SERVICES HEDATU, HURBILEKO ZERBITZU PUBLIKOAK HERRITARREN ESKURA IZAN DAITEZEN

Euskal Elkargoak, zerbitzu publikoak hartzen dituzten France Services labelizatuak diren lau etxe ustiatzen ditu gaur egun Bardozen, Maulen, Atharratzen (Atharratzeko Herriko etxearen harlekuarekin mutualizatua) eta Donapaleun. Etxe horietan, bilkura gelak, internet erabiltzeko aukera, kopiak egiteko baliabideak herritarren esku emanak dira. Eta partaideen prozedurei (Pôle emploi, CAF, CARSAT...) eta laguntza numerikoari formatuak diren harrerako langileak baitaude bertan, France Services guneak, informazio eta zerbitzu publikoak erabiltzeko leku zentrala bilakatzen dira gero eta gehiago.

Gizarte- eta zerbitzu-gune proiektu bat abitua da ere Donibane Garazin (Esnetegia), France Services labela 2023an lortzeko helburuarekin. Donapaleuko France Services gunea Iholdi-Oztibarreko eremura luzatzea aztertua izanen da Bidaxunen bezala, Bardozekoarekin loturan.

Estatuarekin adosturik, Euskal Elkargoak France Services-eko kudeaketa eskaini die Angeluko eta Donibane Lohizuneko Herriko Etxeei eta Social Web Kolektiboa elkarteari Baionan (Gurutze Sainduko Gainak).



### EUSKAL ELKARGOAK EIHARTZEA ZERBITZU-ETXEA

ireki du Bardozen.





## >> IGERIKETA IKASTEA BERMATU

8 igerileku kudeatzen ditu Euskal Elkargoak (udako 7, Ipar Euskal Herri barnealdean, igerileku estali 1 Uztaritzen), eskolak bertan hartzen ditu eskola garaian, taldeak, publiko zabala igeriketa edo kirol-aisialdi (ur-gimnastika, ur-bizikleta, etab.) aktibitateetarako tarteetan.

## >> ESKAINTZA EGITURATU ETA LAGUNDU BESTE KIROL EKIPAMENDUENTZAT

Euskal Elkargoak, elkargo-intereseko kirol ekipamenduen garapena eramaten du, beharrak lurralde eskema baten bitartez aztertuak izanen dira, kirol munduari eta kirol irakaspen sareei beharrezkoak zaizkien bilakaerak kontutan hartzeko asmoz.

Igerilekuez gain, Donapaleuko kiroldegia kudeatzen du Euskal Elkargoak eta bertan kirol orotako gela bat eraikitzen du. Beste bat eraikitzen du ere Baigorri eta Atharratzekoaren berritzea/luzatzea burutuko du ere. Ezker pareta bat esku uzten du Frantziako Pilota Federazioari. Parte-hartze funtsen politika baten bitartez, 2017az geroztik herri andana bat lagundu du kirol ekipamenduak sortzen edo zaharberritzen.

> **Zeharkakotasuna beste politika publikoekin:** Lurralde antolaketa, Gizarte kohesioa, Kultura, Goi-mailako irakaskuntza, Hizkuntza politika










**IPAR eUSKAL  
HERRI  
engaiatu  
BATEn alde:**

**GURE GARAPEN  
EREDUAK BERRIZ  
ASMATU**

# GARAPEN ekonomikoa



**Bizitegi ekonomiak du leku handiena hartzen Ipar Euskal Herriko egitura ekonomikoan (zerbitzuen sailak enpleguen % 56a betetzen baitu) baina honen ezaugarri bat da ere laborantza munduaz eta industriaz osatu ekoizpenerako motor bizkorrak biziki presentzia adierazgarria duela oraindik. Enpresa kopuruaren hazkunde jarraikia du Ipar Euskal Herriak lurraldean, enplegu kopurua emendarazten duena ondorioz. Enpresen iraunkortasun tasa handiak eta enpresa sorkuntzaren dinamika azkarrak agerian ezartzen dute euskal enpresaritzaren sarearen bizkortasuna.**



## **EUSKAL ELKARGOAK EKARRITAKO BALIO ERANTSIA**

Lurraldean historikoki errotuak diren bi jardura zutabetan bermatzen da Ipar Euskal Herriko dinamika sozioekonomikoa: ekoizpen zutabe bat eta bizitegi zutabe bat. Ekonomiaren finkatzea, funtsezkoa da lurraldean balio erantsia sortzeko gai diren enpresen instalatzearen bitartez enpleguak molde iraunkorren segurtatzeko Ipar Euskal Herrian.

Nahiz eta orokorki « osagarri onean » izan, lurraldeak industriaren lehiakortasuna eta berrikuntzaren desafiokori aurre egin behar die, enpresen demografia eta beraz trantsizioaren arazoa zainduz. Formakuntza eskaintza eta langile kalifikatu mailako beharren arteko egokitzapena erronka nagusia da ere, ekoizpen eredu eta hornitzeko estrategia arloan zinezko erronkak agerian ezartzen dituzten iraultza numerikoa eta trantsizio ekologikoaren arabera. Bukatzeko, funts ekonomikoa eta, bistan dena, lurraldeen arteko desoreken arrangura iraunkorra, lehentasunez konpondu behar da.

« Ekoizpen » jardueraren zatia oraindik bizia bada ere, biztanleriaren, izan hemen bizi direnak edo bakarrik pasatzen direnak, hurbileko beharren asebetetzeari lotuak diren operadore batzuek dute nasaiki egituratzen Ipar Euskal Herriko sare ekonomikoa hala ere (janariari lotu lanbideak, eskulangintza, etab.). Gaurko egunean, ekonomia horrek Ipar Euskal Herriko enpresen eta enpleguaren 2/3 ordezkatzeko ditu.

Egoera honen ondorio bat da Ipar Euskal Herriko egitura sozioekonomiko « historikoa » auzitan emana dela, jardura sektore desberdinen orekei dagozkienez.

Izan ere, biztanleriak itsasbazterrean eta metropoletan biltzeak ekartzen du azken hauek metatzen direla eta, hortik landa, haien aktibitateak erakargarritasun handiko lurraldeetan eramatea, haren ekonomiaren hiperbizitegitze bat ezagutzeko arriskua sortuz horrela.

# engaiamenduak

## 37. engaiamendua:

➤ **Ekoizpen ekonomiari lehenetasuna eman gizarte, lurralde eta ingurumen nahikundeei erantzunez**

Jardueren, enpresen, enpleguen eta lurraldeko dinamiken aniztasuna bermatzen duen garapen ekonomiko orekatu baten alde engaiatzen da Euskal Elkargoa. Bizitegi ekonomiaren hazkundera ikusirik, ekoizpen ekonomiaren aldeko ekintza deliberatu bat beharrezkoa zaio nahikeria honi. Bestalde, Euskal Elkargoak bultzatzen ditu garapen ekonomikoko eragileak haien ardura sozial eta sozietalez ohar daitezzen eta lurralde mailako oreka hobea lortzeko ekiten du. Denen ondasunen kudeaketaz eta begiratzeaz arranguratua den trantsizio ekologiko eta energetikoaren eragile izanki, tokiko ekoizpen sarea lagundu nahi du Euskal Elkargoak aldaketa erabakigarri horretan.


“

**Ekoizpen ekonomia:** mozkin eta ekoizpen zerbitzu batzuen sorkuntza hunkitzen du eta aeronautika, mekanika, robotika, logistika eta osagarriaren gisako sailak elkarretaratzen ditu EOP-ez, merkataritzaz, zerbitzuez eta turismoaz osatu **Bizitegi Ekonomiari** kontrakotasunez.

## 38. engaiamendua:

➤ **Ekintza ekonomikoa 8 ekoizpen-saretan berezitu**

Bere lurralde osorako egituratu eta egituratzaileak diren eta garapen ahalmen azkar bat duten sail batzuen inguruan bideratzen du bere ekintza Euskal Elkargoak. Printzipio honi jarraikiz, baliabideak etorkizun handieneko sailetan kontzentratzen ahal dira, gure lurraldeak bertan baitaizka enpresen onurarako nahikoak dituen konkurrentziarako abantailak. Honela, haien pisu ekonomikoa eta/edo ukan dezaketen garapena ikusirik, ekoizpen ekonomiako 8 sare nagusi identifikatuak izan dira.



## 39. engaiamendua:

### > Eredu teknopolitanoan bermatu

Eredu teknopolitanoari esker, Ikerketako, formakuntzako eragileak eta enpresa batzuk uztartuz teknologia berritzaileak baliatzen dituen sail ekonomiko bikain bat bateratzen ahal da. Eragile guzi hauen arteko teknologia besterentzeak, « fertilizazio gurutzatua » (edo hibridazioa) erraztea du xede bai eta interakzioak faboratzea ere tokiko gaitasun eta trebetasunak balioan ezartzea ere. Animazioa eta saretzea, enpresa berriztagarrien sorkuntza, lurraldearen sustapena dira Ipar Euskal Herriko Teknopolokoak daramatzan dinamika teknopolitanoaren osagai desberdinak.

“

**Hibridazioa edo fertilizazio gurutzatua:** balio erantsi handiko mozkin eta zerbitzu berri eta berritzaileak sortu bikaintasuneko sare desberdinen artean. Adibidez: alga gorritzko bio-kosmetikako mozkin sorkuntza, ekonomia urdin sarea eta osagarri sarearen arteko gurutzaketa baten arteko emaitza da.

”



## ekintzak



### >> BIKAINASUNEN SAREN EGITURAKETA BIZKORTU IPAR EUSKAL HERRIKO TEKNOPOLOAREN INGURUAN

8 sareei propioa zaien bide orri bat apailatzen du Euskal Elkargoak, egitasmo egituratzaileak laguntzen ditu eta bikaintasuneko sailen animazioa eta saretzea segurtatzen. Enpresen zerbitzuko berrikuntzari sustengu baten bitartez agertzen da (ikerketa eta formakuntzari sustenguaz). Tresna eta zerbitzu egokien sorkuntza (mintegiak, plataforma teknologikoak, berrikuntzaren ingeniari, gaitasun mailako igoera, etab.) eta balio erantsi handiko enpresagintza eta enpleguari ekarri laguntzak egituratzen dute nahikeria hori.



**EUSKAL ELKARGOAK IZARBEL 2,** sail numerikoari eskainia den gune teknopolitanoa antolatu eta abiatu du.



### >> IPAR EUSKAL HERRIA, « ETORKIZUNEN ESKULANGINTZA & INDUSTRIA LURRALDEA » BILAKARAZI

Potentzial azkarreko TPE-PME-en diru mailako eskualdeko laguntza dispositiboak osotzen ditu Euskal Elkargoak eta ekiten du, hauek ekoizpen eskulangintzaren beharrei zabaltzeko. Enpresa higiezinari sustengu dispositibo nahikeria horren parte da. « Ipar Euskal Herria industria lurraldea » (nazio mailako labela) programari ekinez, Ipar Euskal Herriaren heineko lankidetzaren harremanetan sorturiko zinezko enpresagintza ekosistema eraikitzen du Euskal Elkargoak industrialariekin batera.



= Klima plana





## >> BERRIKUNTZA BERE GARAPEN EKONOMIKOKO ADNEAN SARTU

Enpresetan berrikuntza ekartzeko sustengua funtsezkoa da sentsibilizatzearen, detekzioaren eta diru mailako sustengu ziblatuaren bidez (Berrikuntzaren Ateleria edo Eko-Berrikuntza Deialdia bezalako deialdi publikoen bitartez, besteak beste). Ingurumen teknologikoa bizkortua da lurraldeko enpresen zerbitzuko diren zerbitzu desberdingarriak sortuz (plataforma teknologikoak, besterentze teknologiko tresnak, fablab). Molde berdinean, teknologia besterentzea sustatua eta lagundua da, ikerketa laboetatik enpresetaraino.



## >> ENPRESEN GARAPENA BERMATZEA AHALBIDETZEN DUEN LUR-FUNTS ETA HIGIEZIN ESKAINTZA ERAIKI

Apailatzekotan den helburu ekonomikoekiko zinezko lur-funts estrategia bat Ipar Euskal Herriaren izarian zehaztea da honen lehen egintza. Euskal Elkargoak bere lan eremuak garatzen ditu, bertako zerbitzuen kalitatea hobetuz enpresa ekoizleen beharrei erantzuteko. Araudi berri baten bidezko higiezin inbertsioen sustenguari esker, ekoizpen tresnak errotuko ditugu gure lurraldean.



## >> METROPOLI-EKIPAMENDU HANDIEN GARAPENA LAGUNDU

Biarritz Ipar Euskal Herriko Aireportua, Baionako industria-portua eta Mugerreko Europar pleita zentroa dira logistikari eskainiak diren ekipamendu handi batzuk. Hauek, lotuak zaizkien zereginen bidez, lurraldea metropoli-garapen dinamika batean sartzen dute. Hiriguneak estrategia bat eraikitzen du ekipamendu hauetako bakoitzarentzat eta tresna horiek garatzen ditu.



## >> IPAR EUSKAL HERRIKO ENPRESA EKINTZAILETASUNA BERE FORMA GUZIETAN LAGUNDU

Enpresen sorkuntza eta garapena hobesten ditu Euskal Elkargoak, enpresen bizi osoa estaltzen duen eskaintza orokor baten bidez (enpresa ekintzailetasunaren ibilbidea). Proiektu-eramaileen eskura ezarriak dira haien beharrei erantzuten dieten leku eta aretoak (hazitegiak, ateleriak, coworking esparruak).

Bestalde, Euskal Elkargoak laguntzen du hirugarren-guneen egituratzea Ipar Euskal Herri osoan (adib: Olha, Bankako hirugarren gunea). Gainera, enpresei ekarria den laguntza egituratzen da diru mailako tresna batzuen bitartez besteak beste. Enpresen transmisioaren gaia lan ardatz garrantzitsua da ere.



## >> TRANTSIZIOAK AITZIN- IKUSI ETA EGITASMO ARDURATSU BAT BERMATU


Garapen ekonomikoa da Euskal Elkargoak bozkatu PCAETean sartu nahikerien parte bat. Enpresa munduak eutsi behar dio denen ondasunen zaintzaren desafioari (ura, lur-funtsa, etab.). Hiriguneak laguntzen ditu enpresak haien trantsizio ekologikoan eta ekonomikoan eta ekologia industrialia eta ekonomia zirkularra bezalako hurbilpen berri batzuk sustatzen ditu, besteak beste Ekonomia Sozial eta Elkarkide politika publiko baten bitartez.

### INSTITUZIOETAKO PARTAIDE EKONOMIKO NAGUSIAK:

Akitania Berria Eskualdea  
Ganbera kontsularrak  
BPI, CDC

> **Zeharkakotasuna beste politika publikoekin:**  
Lurralde antolaketa, Klima, Goi-mailako Irakaskuntza eta Ikerketa, Laborantza, Hondakinen Prebentzioa, Bilketa eta Balorizazioa, Itsasbazterreko urak eta Ingurumen Naturalak

> **Urrunago joateko:** Garapen ekonomikorako eskema, Unibertsitate-garapeneko eskema, teknopoli-proiektua



# GOI-MAILAKO IRAKASKUNTZA, IKERKETA eta FORMAKUNTZA

Lurralde baten garapen ekonomikoa eta erakargarritasunaren funtsezko baldintzetako bat da goi-mailako irakaskuntzaren eta ikerketaren garapena. Horrela, azken hogeita hamar urteetan, Distrika eta, ondotik, Euskal Elkargoak zeregin nagusia jokatu dute unibertsitate eskaintzaren sendotzean bere campusetan.

Eskualdeko bigarren hiri eremua izanki, Euskal Hirigune Elkargoak, hala ere, unibertsitate mailako eskaintza biziki apalagoa du Arroxela, Poitiers, Limoges edo Pauekoak baino. Erronka nagusi honetaz jabeturik, Euskal Elkargoak erabaki du bere estrategia lurraldeko behar eta igurikatzeei egokitzea, Unibertsitateko Garapen Eskema baten bitartez (UGE).



## EUSKAL ELKARGOAK EKARRITAKO BALIO ERANTSIA

Gaur egun, Ipar Euskal Herrian dagoen goi-mailako formakuntza eskaintzak ez die oraindik nahiko erantzuten lurraldeko behar eta igurikatzei. Hauetara heltzeko, hemendik 2025era, 10.000 ikasle hartzeko (7.500 direlarik gaur egun) gai den Ipar Euskal Herriko Campus batean izari goititze bat garatzen ari da.



2026an, 10 000  
ikasleren izen emateen  
helburua Ipar Euskal  
Herrian.



# engaiamenduak

## 40. engaiamendua:

> **10.000 ikaslera heldu eta Akitania Berriko ingeniari formakuntzaren bigarren gunea bilakatu**

Euskal Elkargoak nahi du formakuntza eta ikerketa eskaintza hobetu lurraldeko potentzial demografiko eta ekonomikoari begira. Berrikuntzako eragileen (laborategiak, teknologia besterentze zentroak, enpresak) arteko interakzioak faboratzea du helburu eta goi-mailako irakaskuntzako, ikerketako eta berrikuntzako eragileetan bermatzen da horretarako. Estrategia honek laguntza ekarri behar du Ipar Euskal Herria desberdintzeko, epe batera Akitania Berriko bigarren ingeniari gunea bilakatzeko bikaintasun ardatzak garatuz, besteak beste ingeniari eskola berri bat sortuz numerikoaren arloan.

## 41. engaiamendua:

> **Ikasleei zerbitzu-kalitate handi bat eskaini gaikako Campus erakargarrietan**

Ipar Euskal Herriko goi-mailako irakaskuntza eta ikerketaren erakargarritasuna sendotzeko, garrantzitsua da ikasleek Ipar Euskal Herriko Campusean dituzten bizi-kalitate eta erosotasun arloan. Lurralde mailan, ikasleen kopuruaren geroko bilakaera garrantzitsuak bultzatu behar gaitu biharko campusa « gogoetatzera » eta gure partaide guzietan batera (unibertsitateak, lizeoak, ikerketa laborategiak, CROUS, etab.) honen eraikitzea, ikasleak desmarxan sarraraziz.

# ekintzak



## >> LEHENTASUNEZKO ARLOEN IKERKETA ETA BERRIKUNTZA LAGUNDU

Ikerketa sustengatzeko eta bere lurraldeko gizarte erronkei erantzuten dioten 4 arlo estrategiko batzuetako formakuntza ibilbideak laguntzeko hautua egin du Euskal Elkargoak:

- Nazioarteko ikerketak
- Ingeniaritza eta Numerikoa
- Eraikuntza eta antolaketa iraunkorrak
- Ingurumena eta itsasoa



**EUSKAL ELKARGOAK ISANUM SORTU DU,** arlo numerikoko ingeniari-eskola berria.



## >> GOBERNANTZA ANTOLATU ETA ERAGILEAK FEDERATU

Ipar Euskal Herriko Campusa izatez diziplina askotarikoa eta partaide desberdinez osatua da. Lurraldean ikasketak segitzeari lotutako erronken aurrean, garrantzitsua da hunkitu eragile guzietan mugiaraztea (hauen artean lizeoak) eta haien ekintzak koordinatzea. Ipar Euskal Herriko Campus baten egitasmorako beharrezkoa da lurraldean dauden goi-mailako eragileak egitasmo bateratu bat eta gobernantza partekatua baten inguruan biltzea. Horretarako, Ipar Euskal Herriko unibertsitate eztabaida animatzen du Euskal Elkargoak.

## >> ZINEZKO UNIBERTSITATE-CAMPUS BAT ERAIKI ETA OPTIMIZATU

Baxodun gazteen formakuntza beharrei erantzuteko parada emateko, zinezko Ipar Euskal Herriko Campus bat eraikiz, lurraldea bere errealitate demografikoa eta sozioekonomikoari dagokion formakuntza eta ikerketa eskaintza batez hornitzeko helburu anbiziotsua jarraitzen du Euskal Elkargoak. Bikaintasuneko arloetan nazio edo nazioarte mailako ikusgarritasun bat ematea ahalbidetzen duten gaikako berezitasunak garatzen dituen Ipar Euskal Herriko Campus hau gune desberdin batzuen inguruan antolatua izanen da (Errobi Baionan, Montauray Angelun, Izarbel Bidarten). Bukatzekotan den CPER bati esker lurraldea egituratzeko eta zinezko Euskal Campus bat ondoko egitasmoen inguruan sortzeko funtsezko lan bat segitzea ahalbidetuko du: ISANUM / Learning Center, Iker, Kirolen Campusa, Errobi 2025, ...

## >> IKASLE BIZIA LURRALDEAN EGITURATZEN DUTEN PROIEKTUAK LAGUNDU

Lurraldeko ikasleen engaiamendua sustengatu nahi du Euskal Elkargoak formakuntza ibilbideekin loturan dauden egitasmo pedagogiko, garapen kolektibo eta elkarkide ekimen, kultura sorkuntza aitzinera ekartzeko eta ondarea balioan jartzeko edota ere besteak beste osagarri ona kirola eta elikaduraren bitartez sustatzea helburu duten gertakizunen obratzea lagunduz.

## >> IPAR EUSKAL HERRIKO GOI-MAILAKO ARTE ESKOLAKO ERAGILE NAGUSIA DA EUSKAL ELKARGOA ETA APRENDIZEN FORMAKUNTZA ZENTROA KUDEATZEN DU.

## >> HASTAPENENKO FORMAKUNTZA ETA HONEN IKUSGARRITASUNA INDARTU

Ipar Euskal Herriak ezin du eskualdeko metropoliak bezainbat sare eskaini. Hala ere, lurraldeko baxodunek, formakuntza eskaintza anitza, egituratua eta koherentean atzemateko esperantza ukan dezakete zilegitasun osoz, eskualdeko 2. hiri eremuan. Euskal Elkargoak, formakuntza institutuak sustengatzea proposatzen du honela, ondoko helburuak jarraikiz:

- Ibilbideen jarraikitasuna abantailatu baxotik baxo+3ra, baxo+5era eta baita baxo+8rainoko eskaintza egituratu bat sortuz bikaintasuneko gaitan,
- Baxo-ondoko formakuntza eskaintza dibertsifikatu,
- Biharko formakuntzen gaiak garatu,
- Ekimen pedagogiko berriztagarriak lagundu.

### PARTAIDE NAGUSIAK:

UPPA

ESTIA

Akitania Berria Eskualdea


> **Zeharkakotasuna beste politika publikoekin:** Garapen ekonomikoa, Lurralde antolaketa, Mugaz gairikoa, Hizkuntza politika, Trantsizio ekologikoa eta energetikoa

> **Urrunago joateko:** Unibertsitate-garapeneko eskema





# azPIEGITURak eta mUGIKORTasunak



Ipar Euskal Herrian, joan-etorrien % 77ak autoz egiten dira. Beste izari bereko hiriguneetan baino askoz gutiago erabiltzen dira garraio publikoak (% 4), bizikleta (% 1) edota oinezko ibilaldia (% 15).



## EUSKAL ELKARGOAK EKARRITAKO BALIO ERANTSIA

Euskal Elkargoak mugikortasunak bizi eremuen heinean aurreikusten ditu, hauek herriarteko perimetroak gaintzen dituztelarik. Bere tresna eraginkorraren bitartez, Ipar Euskal Herri-Aturriko mugikortasunen Sindikatuak (mugikortasunak antolatzen dituen agintea), Euskal Elkargoak bere eskuhartze eremua 161 herrira hedatzen du, hauetako hiru Baiona hirigunera buruz itzuliak diren Landetako hiru herri direlarik (Tarnose, Ondres eta Saint-Martin-de-Seignaux).



2020-2030eko Mugikortasunen Plana (PdM) aplikatuz, banakako autoari alternatiboak zaizkion zerbitzu multzo bat proposatzen die bere 335.000 biztanleei Sindikatuak, Txik Txak marka bakarraren bitartez: autobus, tram'bus, autokarrak, hurbileko joan-jinkariak, eskaera bidezko garraioa, etab.





# engaiamenduak

## 42. engaiamendua:

### > Banakako autoaren alternatiba den mugikortasun-eskaintzaren eskuragarritasuna hobetu

2019az geroztik, txarteldegi berri bat, modernoa eta ekologikoa, pixkanaka hedatua da autobus eta autokar linea nagusietan. 2022ko uztailaren 4tik goiti, txartel berdin bati esker Txik Txak sare osoan bidaiatzen ahalko da, tarifakazio harmonizatua eta elkarkidea aplikaturik. Covid-19 pandemia garaian, 2020tik aitzina garatu SMS-ez bidezko txartel erosketatik at, funtzionalitate berriak proposatuak dira bestalde, hala nola smartphone edo kontakturik gabeko bankuko txartel eta post-fakturazioaren (hilabete bukaeran kontsumoaren arabera, prezio hoberenean egin fakturazioa) bidezko ordainketa.

## 43. engaiamendua:

### > Banakako autoaren erabiltzea murriztu

2022ko martxoaren 3an onartua izan den Mugikortasun Planaren nahikeria da, banakako autoaren erabilpena heren batez murriztea hemendik 2030era. Horretarako lehenesten du garraio publikoaren, bizikletaren, oinezko ibilketaren eta autoaren erabilpen partekatuaren garapena. Lurralde guziak eta mugikortasun-molde guziak hunkitzen dituzten 114 neurritan antolatzen da plan hau. Honen helmena handia da, Tokiko Bizileku Programarekin (TBP), Ipar Euskal Herriko Klima Aire Energia Planarekin (LKAEP) antolatua baita eta tokiko hirigintza dokumentuetan sartuko baita bortzax (hTHP).

# ekintzak



## >> GARRAIO PUBLIKOAK GARATU

**Tram'bus proiektuak:** biTram'Bus linea sortuak izan dira. 1 linea 2019ko irailean estreinatua izan da. 2 linea, oraindik antolaketa garaian dena, partzialki indarrean da Tarnosetik Baionara (Marrac) 2021eko apiriletik. Basusarriraino (Makila) luzatua izanen da 2024rako. Zinezko arrakasta publikoa lortzen du Tram'busak, 3 milioi bidaiarirekin 2021ean.

**Gune multimodalak:** Gune intermodalei eta hurbileko guneei esker, Txik Txak zerbitzuak beste garraio eskaintzekin konektatzen dira (linea handietako trenak, TER, distantzia handietako autokarrak, taxiak, bizikletak, etab.). 2017az geroztik, mota horretako ekipamenduak eginak izan dira Baionan, Hendaian, Arrosan eta Haltsun. Donibane Lohizune/Ziburuko eta Biarritzeko gune multimodalen antolaketa aurreikusia da ere.



**EUSKAL ELKARGOAK BERE TXIK TXAK SAREA ZABALDU DU,** tarifakazio sinpleago eta solidarioago batekin.



= Klima plana

**Aldiriko aparkalekuak:** aldiriko aparkalekuei esker, auto-gidariak garraio publikoak hartzeko eta beren ibilgailua urririk aparkatzeko parada ukanen dute. 400 leku jadanik sortuak izan dira ipar Baionan (Baionako Gainaldeak, T1 linearen terminala) eta Tarnosen sartzean (Garròs, T2 linearen terminala). Saretze hau osatua izanen da baionar hiriguneko hegoaldean, besteak beste T2 linea luzatzerakoan, bai eta autobideko lotune nagusien mailan (Urruña, Donibane Lohizune, Biarritz, ...).


**Mugaz gaindiko zerbitzuak:** Txik Txak sarea pixkanaka konektatuko zaie Hego Euskal Herrian dauden eskaintzei.

**Errepideko materiala:** % 100 elektrikoak diren 2 Tram'Bus lineekin (18 Tram'bus), hiri barneko 11 joan-jinkari elektrikoekin eta 8 autobus elektrikoekin, Txik Txak ibilgailu parkearen % 18a elektrikoa da, LKAEPko nahikerien arabera.

**Erabiltzaileendako argibideak:** eleanitzeko argibideak garatuak dira geldiguneetan, ibilgailuetan eta interneten. Webgune bakar bat, irakurgarria eta erakargarria, bai eta Txik Txak aplikazio bat hedatuak izanen dira 2022an.



**GARRAIO PUBLIKOKO SARE GUZIAK TXIK TXAK BILAKATZEN DIRA, IPAR EUSKAL HERRIAREN MAILAKO SARE BAKARRA, TARIFIKAZIO SINPLEAGO ETA SOLIDARIOAGO BATEKIN.**



## >> MUGIKORTASUN AKTIBOAK GARATU (BIZIKLETA, OINEZKO IBILKETA)

**Bizikleta-bideen antolaketak:** bizikletaren garatzeko, ibilbide segurtatuak garatu behar dira. Urtean 1,2 M €-ko diruzamaz hornitu 2022ko martxoaren 29an finkatua izan den eskuhartze araudi berriari esker, zentzu horretan bideen kudeatzaileek burutu antolaketen % 30 diruz lagunduak izan dira. Mota horretako antolaketak jadanik kofinantzatuak izan dira Baionan, Bokalen, Urruñan, etab.

**Bizikleta elektrikoak erosteko laguntza:** 2019an plantan ezarria izan zen Bizikleta Elektrikoak erosteko laguntzak arrakasta ederra ukan du, 700.000 € baino gehiago emanak izan baitzaizkie 3 urtez 2.500 pertsona baino gehiagori.





## >> LURRALDEKO BIDE ESTRATEGIKOAK ANTOLATU

**Elkargo-intereseko bideak:** Euskal Elkargoak beregain hartu bide sare bat zehaztuz, elkargoaren eskumenak eramateko beharrezkoak diren herrietako bideetan antolaketa eta zerbitzu maila homogeneoa segurtatzen ahalko da (haiei eskaini bideak garraio publikoetarako, jarduera ekonomikoko guneetako bideak, etab.).



## >> LANGILEAK ETA ENPRESAK BANAKAKO AUTOARI ALTERNATIBOAK ZAIZKION MODUETARA BIHURTZERA LAGUNDU

**Mugikortasunari buruzko animazioa eta aholkua:** mugikortasun-planak gauzatuak dira enprekin lankidetzan, soldatadunei banakako autoz baino beste molde batez etortzeko lanera.

### PARTAIDE NAGUSIAK

#### Estatua

**Akitania Berria Eskualdea eta Akitania Berria Eskualdeko Mugikortasunen Sindikatua** (mugikortasun aginte antolatzaileen arteko lankidetzaz egitura)

**Pirinio Atlantikoetako eta Landetako Departamendu kontseiluak**

#### Herriak

#### SNCF

**ASF** (A63 eta A64 autobideen kontzesionarioa)

**Mugaz gaindiko Bidasoa Txingudi Kontsorzioa** (Irun, Hondarribia eta Hendaia lotzen dituen kooperatiba egitura)

**Akitania Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdea**

> **Zeharkakotasuna beste politika publikoekin:** Lurralde antolaketa, Gizarte kohesioa, Turismoa, Hizkuntza politika, Klima, Ingurumena

> **Urrunago joateko:** <https://www.communaute-paysbasque.fr/vivre/se-deplacer/le-plan-de-deplacements-urbains>



= Klima plana



# LABORANTZA, ELIKAGAIGINTZA, ARRANTZA

~ Laborantza, arrantza eta elikagaigintzaren sarearen begiratzean eta garapenean datza politika publiko horren erronka.



## EUSKAL ELKARGOAK EKARRITAKO BALIO ERANTSIA

Sortu denetik, Euskal Elkargoak laborantza, arrantza eta elikagaigintza arloan politika publiko bat eramatea hautatu du, lurraldearekiko duen nahikeria horrela erakutsiz. « Gobernantza, laborantzako lur-funtsaren zaintzaren aldeko estrategia eta ekintza » eskumena hartzeko hautu azkarra egin du. Honen xedea da Ipar Euskal Herriko laborantzako lur-funtsaren gobernantza bat animatzea eta tokiko laborantzaren beharrei erantzunez, laborantzako lur-funtsaren zaintzeko tresna berriak proposatzea.

Azkenik, Lurraldeko Elikadura Proiektuaren bitartez, Euskal Elkargoak lurraldeko kalitatezko laborantzaren aterabideetako bat osatzen duen elikadura sano eta iraunkorraren sustapena eta sustengua bultzatzen du.

Ipar Euskal Herria biziki dibertsifikatua da, laborantzari dagokionez, animalia- edo landare-ekoizpen arloan eta duela zenbait hamarkadaz geroztik laborantzako esperientzia berriztagarriak burutzeko lurralde bat izateko gaitasuna duela erakusten du, besteak beste zirkuitu laburrak plantan emanez, salmenta zuzena antolatuz edo tresna ekonomiko berriztagarriak sortuz. Berrikuntza hauei esker, laborari lanbidea balioan ezartzen ahal da, bizigarria bilakatzen ahal da, euskal laborantzari irudi baikor bat emanez.

Lurraldeko ekoizpen ekonomia funtsezko zutabe batean bermatzen da besteak beste: kalitatezko laborantza eta elikagaigintza, lurraldeko 4 Sormarka sareek ordezkaturik (Ossau Irati gasna, Irulegiko arnoa, Kintoa haragia, Ezpeletako biperra). Ardi esnari azkarki dedikatua zaion laborantza sistema honek, moldatu du lurraldearen nortasuna: bistan dena laborantzako jarduerak moldatu bazterren nortasuna, baina, haratago, lurraldearen eraikitze soziala, ekonomikoa eta kulturala ere.

Laborantza azkar bat badago beraz lurralde honetan, azken hamarkadetan zinezko baserri guneko laborategi bat bilakatu dena. Jarduera kolektiboak berriz asmatzekoak dira testuinguru berri horretan, tentsioan ez den ardi esne merkatu batean bermatuz.

“

Bere partaide guziekin, Euskal Elkargoak laborantzako soldataren hobekuntzaren, etxaldean transmisioaren eta instalatzearen, ura eta lur-funtsa, denen ondasunak diren zaintzaren desafioei eutsi nahi die eta laborantzaren lekua azkartu nahi du ere lurraldean. Ingurumena zaintzeko Lurraldeko Klima Aire Energia Planean parte hartzen du ere praktika bertutetsuak sustatuz.

”

# engaiamenduak

## 44. engaiamendua:

### > Laborarien diru sartzeak hobetu

Laborantzako diru sartzeak hobetzeko, etxaldeko mozkinaren emendatzea osatzen duen tresna nagusi bat erabili behar da. Hau dena egingarri bilakatzen du tokiko laborantzako ekoizpenak balioan emateak. Ekoizpen bat balioan emateko funtsezko tresna osatzen du haren transformatzeak, bereziki etxaldetik atera mozkin landuago baten bitartez. Kalitatezko seinale ofizialei esker balio erantsia ematen zaie mozkinari. Anitz badira Ipar Euskal Herrian eta Euskal Elkargoaren helburua izanen da haien garapena, merkatuei eta gaur egungo erronkei egokituz, ekintza kolektiboen bitartez laguntzea.

Balorizazioa, gorabidean dauden sareak hasiz eta egituratuz egiten da ere, bai eta haranaren eta mendiaren arteko osagarritasunaren bitartez ere.

Diru sartzearen hobetzeko, diru erakarleak diren tokiko ekoizpenen banaketa-zirkuitu berri batzuk bilatzen ahal dira ere (hurbileko zirkuitu laburretan, baina ez bakarrik). Azkenik, jardueren dibertsifikazioa ere lagungarri izan liezaioke.

## 45. engaiamendua:

### > Etxalde-instalatzeari eta transmisioari lehentasuna eman

Ipar Euskal Herrian instalatze dinamika azkar bat gertatzen baldin bada ere, aitzin ikusi behar da laborantzako demografia, sustengua ekarriz eta bestalde abian ezarri ekintza batzuk lurralde osoan areagotuz. Lur-funtsaren arazoa funtsezkoa da etxaldeen transmisioa segurtatzeko eta laborari gazteen instalatzea errazteko.

## 46. engaiamendua:

### > Denen ondasunak diren lur-funtsa eta ura zaindu

Laborantzako eremuen galera handiko eta hirigintzaren presio testuinguruan, ezinbestekoa da laborantzako eremua denen ondasun gisa zaintzea. arazoan erdian kokatu behar da ur baliabidea, gure gerorako erronka nagusia; etxaldeak lagundu beharko dira ere uraren kalitatea lurraldean bermatzeko gisan.





## 47. engaiamendua:

### > Laborantzaren eta laborarien lekuak lurraldean sendotu

Idea da hemen laboraria – eta laborantza egintza – euskal gizartearen bihotzean kokatzea, laborantza gaur egungo erronkekin egoki egoten lagunduz aldi berean. Laborarien arteko lotura eta laborari eta beste eragileen arteko lotura garatzea da helburua.

## 48. engaiamendua:

### > Arrantza sare bizkor bat atxiki lurraldean

Oraindik zehazki definitzekoa da arrantzaren politika publikoa. Erronka batzuk jalgitzen dira hala ere: mozkinen balioan ezartzea eta belaunaldien berriztatzea. Ibai behealdeko enpresak elikatzeko Donibane Lohizune/Ziburuko portuan arrantza ontziak mantentzea eta lurraldean arrantza sare bizkor bat atxikitzea ahalbidetzen duten tresnetan datza gaur egungo gogoeta.



## ekintzak



### >> DIRU SARTZEAK ETA TRANSFORMATZEA

Laborantza eta elikagaigintzako eragileen garapena eta ekimenak (transformatze, teknologia edo ikerketa besterentze tresna kolektiboak) laguntzea da Euskal Elkargoaren xedea. Enpresetan elikagaigintzako transformatzeko ekoizpen inbestizamenduetarako laguntza dispositibo bat edo laborari batasunak plantan ezarriak izan dira. Egitasmoetarako deialdi publikoak irekiak dira urte guzietan (mozkin berriak, sare berriak, etxalde esperimentalak, banaketa zirkuitu berriak). Sareen bide orri bat finkatua izan da, etxaldeetako mozkinen eta laborantza biologikoari lehentasuna emanez. Arreta berezi bat ekarria izanen zaio ere hilketa-tresnen etorkizunari, besteak beste Ipar Euskal Herri barnealdean, hauek baitira tresna erabakigarriak balio katean eta lehen tresna hazkuntzaren zerbitzuko.



### EUSKAL ELKARGOAK

elikagaigintzarako  
mintegia sortu du  
Amikuzen.





## >> INSTALATZEA ETA TRANSMISIOA

Helburu konbenioen bitartez belaunaldiak berriztatzea eta instalatze dinamika azkarra mantentzea helburu duten animazioak plantan ezartzen dituzten lurralde, eragile eta sareak sustengatu eta koordinatzen ahalko ditu Euskal Elkargoak. Gainera, bio baratzegintzari eta hazkuntzari eskaini laborantza entsegu lekuak, hazitoki edo inkubagailu moduan, garatuak izan dira. Eredu honi jarraipena emana zaio.



## >> DENEN ONDASUNAK

Puntu horretan, Euskal Hirigune Elkargoak aitzinirudikatzen du laborantzako lur-funts estrategia baten aldeko tresnak plantan ezartzeak. Urari dagokionez, lurraldeko ur baliabideen egoera-akta bat eguneratzea, etxaldeak eta laborantzako praktikak lehentasunezko ekintza zonaldeetan ezagutaraztea eta laborariendako ekintza programa bat proposatzea da ekintzaren helburua.



## >> LURRALDEA

Ekintzek, laborantzari tokia sendotzea dute helburu mendi lurraldean, besteak beste abelzaintzako jardueri sustengua ekarriz. Gainera, Ipar Euskal Herriko laborantza, praktika agronomikoen aldaketei eta zoruaren zaintzari egokitzea, haren eraginak apalarazteko lurraldeari egokiak zaizkien landare eta abere espezieak mantendu eta birgaitzea, klima aldaketei eta energia berde eta berriztagarriak erabiltzeari egokitzea da xedea.



## >> ESTRATEGIA/BEHAKETA

Euskal Elkargoak bere laborantza estrategia garatzen du gobernantza, komunikazio eta behaketa arloetan. **Datuak hunkitzen ditu ardatz azkar batek, ZABAL, Ipar Euskal Herriko laborantzako datu irekien ataria plantan ezarriz.**



= Klima plana


### PARTAIDE NAGUSIAK

SAFER, LFEP, Lurzaindia

Laborantza garapeneko eragileak (64 Laborantza Ganbera, Ipar Euskal Herriko Laborantza Ganbara, BLE, APFPB, Kudeaketa Erakundeak, sare elkarteak, ...)

Sindikatuak (ELB, FDSEA, ...)

Estatua, Akitania Berria Eskualdea, Pirinio Atlantikoetako Departamendu Kontseilua



# mugaz GAINDIKO eta EUROPAREKIKO LANKIDETZA

2017ko urtarrilaren 1ean sortu denetik, Euskal Elkargoak bere arduren eta euro-eskualde mailan duen pisuaren izaria hartu du. Geografia baino gehiago, historia bat, nortasun bat, hizkuntza eta kultura bat partekatzen du HEGOALDEAREKIN.



## EUSKAL ELKARGOAK EKARRITAKO BALIO ERANTSIA


Bere 150 km-ko mugekin eta Mendebaldeko Europan duen kokapen geografikoarekin, mugaz gaindiko lankidetzaren esperientzia luzea dauka gure lurraldeak.

Euskal Hirigune Elkargoaren sortzeak bihurtu gure markatzen du mugaz gaindiko harremanetan.

Kolektibitateen eta Estatuaren solaskide nagusia izanki arlo horretan, lankidetzaren aukerak honela izari berri bat hartzen dute eta Arku Atlantikotik zabaldu behar dute (Nantesetik Bilbora) Pirinioetako Piemontera (Tolosa) euro-eskualdeko izarira heltzeko.

Gisa berean, aurrean ditugun ingurumen eta gizarte mailako desafio handiek erantzun egokiak elkarren artean eraikitzen behartzen gaituzte. Europar izarian dira, eta Lurraldeko Klima Aire Energia Plana obratzearekin batera, aterabideak marrazten hasiko dira, klima aldaketaren aurkako borroka gure lankidetzaren guzietan sartzeko lehentasuna bilakatzeko.

Lurralde proiektuaren eta, bortsaz, elkargoarenaren markatzaile azkarra da mugaz gaindikoa. Bere politika publiko guzietan osagaietan adierazpen bat ukan behar du, ez bakarrik europar eskakizun bat bezala, baina bai abantaila bat bezala lurralde honen osperako eta garapen ibilbideen ikuspegi partekatua baten eraikuntzarako.



“

Mugaz gaindiko lankidetzaren gorpuztea du xede Euskal Elkargoak, europar eszenatokian bere zeregina asumituz eta mugaz gaindiko europar kolektibitatea osatuz, muga administratiboa baizik bilakatu ez den bizi eremu honen isla izanki.

”

# engaiamenduak

## 49. engaiamendua:

### ➤ **Trantsizioa eta kohesioa gure lankidetzaren guzietan sartu**

Bi nahikeriri jarraikiz da mugaz gaindiko Lankidetzaren Estrategia apailatua izan:

- Trantsizio ekologikoa eta ingurumenaren alde ekin LKAEP-rekin egokiturik, lankidetzaren oso eta bete baten bitartez bizi eremu eta izari egokietan;
- Gizarte eta lurralde kohesioa lortu mugaz haratago partekatu beharreko balio batzuen bitartez.

Erantzunak ekarri behar dituzte desafio hauek mugaz gaindiko izaria eta europar norabideetako oinarriek esker.

## 50. engaiamendua:

### ➤ **Gehiago igurikatu gabe mugaz gaindiko eta europar mailan ekin, ondokoa lortzeko:**

- **Herritar eta enpresen bizi errazteko gure mugaz gaindiko lurraldeetan** mugikortasun arloan (ad: bizikleta sareen konexioa, Ipar aldetik Hegoaldera erabil daitekeen txarteldegi bat...), enplegu / jarduera ekonomiko arloan (adib.: mugaz gaindiko enplegurako enpresek egin urratsak erraztu) bai eta denek zerbitzu eta ekipamenduetara heltzeko ahala ukaiteko (adib.: migratzaileendako ekintza partekatua, zahartze aktiboaren aldeko praktika onen truketzea, jantegi kolektibo edo sukalde zentrala bezalako ekipamendu eta zerbitzu partekatua, kultura eta kirol zerbitzuak erabiltzeko sarbide partekatu eta koordinatua: igerilekua, liburutegia...) eskuhartuz.

- **Mugaz gaindiko herritartasuna sustatzeko balio eta irudikapen bateratuak garatu** sorkuntza sustengatuz eta kultura garatuz (adib: hedapen/programazioko eragileak saretu, museoak saretu, mugaz gaindiko festibala), mugaz gaindiko gizarte praktikei ekarri laguntza eta herritarren parte hartzea (adib.: ESS-aren ekimenen sarezea) eta, azkenik, eleaniztasunaren garapena (adib.: heldu diren belaunaldiak formatu formatzaileek jarduera sail guzietan dituzten beharrak aitzin ikusiz).

- **Trantsizio ekologikoaren eta gure baliabide eta eremu partekatuen desafiorei elkarren artean eutsi:** mendian (adib.: PNR-aren mugaz gaindiko zatia eraiki, jarraipen ekologikoak zaindu, borroka koordinatua suteen kontra), itsasbazterrean eta arro hidrografikoetan (adib.: bainatzeko uren kalitateari buruzko informazio eta komunikazio tresna bateratua,

besteak beste turismoko profesionalei zuzendua, itsasbazterreko naturagune babestuen sarezea, ur-goititzea gisako gai orokorreko buruzko diagnostiko partekatua), eta gure baliabideak balioan eman eskualdearen mailan: ekonomia zirkularra, zirkuitu laburrak, energia berriztagarriak (adib.: jadanik idatziak dauden dokumentuetan bermatzen den mugaz gaindiko PCAET bat apailatu, tokiko kontsumoa errazteko mugaz gaindiko plataforma).

- **Mugaz gaindiko lurraldearen bikaintasuna eta ospea sustatu, ondokoari kasu emanez:**

- Trebetasun eta ondare mailan ditugun abantailak nazioarte mailan balioan ezarri (adib.: sustapen tresna bateratuak, Ipar Euskal Herri marka bat sortzeko galdera berriz pausatu, sare berezia balioan jarri),

- Mugaz gaindiko eta europar sinergiak eraiki ikerketa, berrikuntza, goi-mailako irakaskuntza eta bikaintasuneko sare ekonomiko mailan (adib.: mugaz gaindiko berrikuntzaren agentzia bat sortu, ziblatutako bikaintasuneko sareei buruzko lankidetzak areagotu, mugaz gaindiko teknopolo bat sortu, irakasle ikerlarien mugikortasuna sustengatu),

- Gure ospearen eta goi-mailako funtzioen eskaintzaren zati diren ekipamendu nagusien eta hedadurazko azpiegituren hoberentzea eta garapena (adib.: gure ekipamenduei helgarritasun hobea antolatu, elkarren artean salgaien garraiatzea trenbidera eraman CEF-aren garapen proiektuaren inguruan).

## 51. ENGAIAMENDUA:

➤ **Gure ambizioen lortzeko baldintzak sortu ondoko helburuak finkatuz**

- **Mugaz gaindiko gobernantza berritu batera buruz jo: irakurgarriagoa, herritarrengandik hurbilagoa, eraginkorragoa.**

Erronka hauei erantzuteko, Euskal Elkargoa herritarren boz-goragailua bilakatzen den mugaz gaindiko elkarrizketa eremua da, hurbilekoa eta irekiduraren arteko lotura den partaidetza dispositibo baten plantan jartzea dugu lankidetzak sendotzeko beharrezkoa den aurrekoa. Mugaz gaindiko gobernantza sinplifikatu eta europar politikak gure lurraldeetan antolatzea dira Europako herritarrei helgarria bilakatuko dizkieten helburuak.

- **Partaidetza estrategikoak izari guzietan azkartu**

Gure proiektuak, gure lurraldea argira ekartzeko ezinbestekoa da mugaz gaindiko, eskualdeko, nazio mailako eta europar sareak mantendu eta biziartztea. Horrek laguntzen du euskal lurraldeen berezitasunen irakurketa eta kontutan hobeki hartuak izateko, hurbiltasun eta irekiduraren arteko lotura hori segurtatzen du.

- **Elkar hobeki ezagutzeko tresna partekatua eraiki**

Gure eskumena arlo guzietan, auzokoaren antolaketa administratiboa gaizki ezagutzeak, lurralde mailako datu harmonizatu eza, bai eta fluxu eta elkarmendekotasunena dira gure arazoei erantzuteko egitasmo egokiak eraikitzeke oztupoak dakartzaten eskasak. Behaketa azkartu eta partekatua behar da erabaki politikoa laguntzeko.

- **Barne eta kanpoko baliabideak proiektuaren aitzinarazteko baliatu**

Lankidetzan aritzeko gogoia sarrarazteko langileen europar eta mugaz gaindiko kultura hobetuz, proiektuak aurkezteko gogoia piztuko da eta lankidetzaren modalitateak ongi ulertzea ahalbidetuko du.

Europako norabide handiei erantzuten dieten proiektuak eraikiz, helburu bikoitz bat kausitzea segurtatzen dugu: Europa herritarrengana hurbilaztea, haren kofinantzeak ikusgarriagoak bilakaraziz eta gure lurraldearen garapena lasterragoz, europar diruztatze hauen palanka-efetuari esker.

## 52. ENGAIAMENDUA:

➤ **Anbizio handiko mugaz gaindiko lankidetzaren bat eraiki, egitasmo bateratuak garatzeko**

Ipar Euskal Herriaren ospea eraiki behar da, gure lurralde eta bazterretako (itsasoa, itsasbazterra, mendia, laborantza, bizi ingurunea), kultur (hizkuntza, ondarea, trebetasuna), baina ere ekonomikoen (eskumenak, sareak) berezitasunetan bermatuz.



### **EUSKAL ELKARGOAK ETA BERE PARTAIDEEK**

Transfer-mugarrekin proiektua eramaten dute, mugaz gaindiko mugikortasunaren eskaintza sendotzeko.





## >> EUSKAL ELKARGOAREN MUGAZ GAINDIKO ESTRATEGIAREN APAILAKETA JARRAITU, EUROPAR NAZIO MAILAKO ETA ESKUALDEKO NORABIDEEI EGOKITZEN ZAIEN EKINTZA ESTRATEGIKO ETA ERAGINKOR PLAN BAT ZEHAZTUZ.

- Gure lehentasunen eta Europako eta mugaz gaindiko finantza partaide eraginkorrek finkatutako en arteko sinergiak atzeman norabide nagusietara heltzeko,
- Lehentasuneko norabide guzi hauek antolatzen dituen sektore- eta lurralde-ekintza plan bat apailatu.



## >> MUGAZ GAINDIKO, EUROPAKO ETA NAZIOZ GAINDIKO EGITASMOEN MUNTAKETA, KUDEAKETA ETA SEGIPENA EUSKAL ELKARGOAREN BAITAN LAGUNDU

- Norabide sektorialekin loturan dauden egitasmo berriak muntatu,
- Mugaz gaindiko ekintzak, mugaz gaindiko eta nazioz gaindiko egitasmoen baitan koordinatu,
- Formakuntzak eta tresnak proposatu europar finantzatze tresnez hobeki jabetzeko,
- Egitasmoen kudeaketa prozeduren harmonizazioa eraginkortasun handiagoa lortzeko dirulaguntzen bilketan.



## >> MUGAZ GAINDIKO LANKIDETZA BULTZATU ETA LAGUNDU LURRALDEAN

- Lurraldeko eragileak haien lankidetzara asmoan laguntzea xede duen ekintza programa bat eraiki,
- Laguntza honen modalitateak eskuhartze araudi baten baitan zehaztu.



## >> 2021-2027 EUROPAR PROGRAMA LURRALDEKATUAK GIDATU ETA ANIMATU

- Lurralde estrategia integratuak apailatu, lurraldeetako europar dirulaguntzen programaziorako dokumentu koadroak: FEDER-FSE, LEADER, POCTEFA, FEAMPA programen lurralde mailako aleak
- Programa hauen segipen eta programazioari eskaini aginteak animatu eta gidatu,
- Estrategia biziaraztea ahalbidetzen duen lurralde mailako aleari eskaini animazio bat plantan ezarri (lurraldeko eragileak federatu, sinergiak sortu eta zeharkakotasun gehiago eman sustengatu ekintzei) diruztatze tresnak baino gehiago, tokiko garapen tresnak,
- Egitasmo ekarleak egitasmoen muntaketa eta kudeaketan lagundu,
- Programa hauen komunikazioa segurtatu.





## >> EUSKAL ELKARGOAREN OSPEA ETA HONEN POLITIKA PUBLIKOEN GARAPENA LAGUNTZEN DITUZTEN MUGAZ GAINDIKO ETA EUROPAR PARTAIDETZAK ETA SAREAK SORTU ETA SENDOTU

- Partaide berriak identifikatu eta aliantza estrategiak eraiki,
- Europar mailako partaidetza-harremanak garatu eta azkartu, lurraldearen ikusgarritasuna hobetzeko,
- Euskal Elkargoaren garapen lehentasunei egokitzen zaizkien lankidetzak sareak abiatu edo sartu.



## >> EZAGUTZA PARTEKATU

- Ezagutza partekatu oinarri bat eraiki (mugaz gaindiko datuak, mugaz gaindiko lurraldearen behaketa),
- Euskal Elkargoaren erronka nagusiei buruzko behaketa-tresna partekatu eta partaidetzako apailatzen jardun.

**150 KM-KO MUGA, MILIOI BAT BIZTANLEKO EUROPAR HIRIGUNEA**

> **Zeharkakotasuna beste politika publikoekin:** Lurralde kohesioa, Klima, Garapen ekonomikoa, Antolaketa, Mendingi, Mugikortasunak

> **Urrunago joateko:** [https://www.communaute-paysbasque.fr/fileadmin/user\\_upload/mediatheque/Europe\\_transfrontalier/SCT/BROCHURE\\_TRANSFRONTALIERE\\_FR-EUSK-WEB.pdf](https://www.communaute-paysbasque.fr/fileadmin/user_upload/mediatheque/Europe_transfrontalier/SCT/BROCHURE_TRANSFRONTALIERE_FR-EUSK-WEB.pdf)

### PARTAIDE NAGUSIAK

#### Frantzian:

Estatua

Eskualdea

Departamendua

Herriak

Gizarte zibil antolatua

AUDAP

Eragile ekonomikoak, unibertsitatekoak, lurraldekoak...

#### Espanian:

**Eusko Jaurlaritzaren eta bere agentziak** (Ura, AZTI, Hazi, Tecnalia, ...)

**Nafarroako Gobernua eta bere agentziak** (Nilsa, Nasuvinsa, Gestión Ambiental de Navarra, ...)

**Gipuzkoako Foru Aldundia**

Herriak

Unibertsitateak (EHU-UPV, Arrasate, UPN...)

**Garapen ekonomiko eta turistiko agentziak** (Bidasoa activa, Oarsoaldea, Cederna-Garalur,)

Clusterak

...

#### Mugaz gaindikoak:

**Pirinioetako Lan Elkargoa** (POCTEFaren Kudeaketa Agintea)

**Akitania Berria – Euskadi – Nafarroa Euroeskualea GECT**

**Pirinioez gaindiko Konferentzia Atlantikoa**

**Euskal Eurohiria**


**Bidasoa Txingudi Kontsorzioa**

...



= Klima plana





# HONDAKINEN PREBENTZIOA, BILKETA, BALORIZAZIOA ETA TRATATZEA

~ Bizimoduen eta kontsumo usaien bilakaerak eragin azkar bat ukan dute familiek ekoiztu hondakinen kantitatearen emendaketan, hau bikoiztu baita azken 40 urteetan.



## EUSKAL ELKARGOAK EKARRITAKO BALIO ERANTSIA

Sortua izan denetik, Euskal Elkargoak hondakinen kudeaketa koherente eta emankorraren alde ekin eta ekonomia zirkularra errealitate bihurtu nahi izan du, bere Klima Plana eta bere Garapen ekonomiko eskemari jarraikiz.

Hondakinen tratamendua Ipar Euskal Herriko lurralde osoan harmonizatuz, eraginkortasun handiagoa, antzeko nahikeria eta zerbitzuaren kalitate hobea kausitzen dira.

Turismo aktibitateak eta honek eragin turisten presentzia azkarrak markatu lurralde batean, Ipar Euskal Herriko biztanle batek 620 kg etxe-hondakin inguru ekoiztu ditu 2020an, orohar nazio mailako batez bestekoa baino % 8 gehiago. Hondakinen arazoa usu sailkapenari lotua zaio. Alta, arazo askoz zabalagoa da eta murrizketa, bilketa tratamendua edota balorizazioa ere barne hartzen ditu.

Politika publiko hau Ipar Euskal Herriaren heinera ekartzeko, Euskal Elkargoak eraman bilketa-ekintzak osotzen dituzte Bil Ta Garbi Sindikatu mistoarenek. Etxe-hondakinen prebentzio, balorizazio eta desagerrarazte politika koordinatzen du honek, ekonomia zirkular dinamika bati jarraikiz. Gure hondakinek ingurumen mailan duten eragina mugatzeko gisan, kontsumo-ondasunen fabrikatzeko kontsumitzen diren baliabide naturalak ikusirik, baina ere gerta daitezkeen kutsaduren menderatzea ikusirik, Euskal Elkargoak ondoko helburuei jarraikiz oinarritu bide orria finkatu du:

**Prebentzioa:** Familia bakoitzak ekoizten duen hondakinen kopurua molde esanguratsuan apalaraztea baita gure kudeaketa politikaren erronka nagusia;

**Bereizketa:** balorizazioari leku handiena emateko, gure herritarrak gehiago sailkatzera bultzatzen dituzten dispositibo teknikoak hedatu (bilketan bezainbat hondakindegietan ere);

**Optimizatzea:** gure erabiltzaileei zerbitzuaren irakurgarritasuna errazteko, zerbitzu koherenteak, harmonizatuak eta lurraldeko

bizileku tipologiei egokituak hedatu beharko dira;

**Ekonomia zirkularra:** gure hondakinak gure lurralderako baliabide bilakatu behar ditugu;

**Praktiken aldaketa:** herritarrak haien jarrera aldatzera laguntzea ezinbestekoa da gure proiektua kausitzeko;

**Eredugarritasuna:** Euskal Elkargoak trantsizio ekologikoarentzat duen engaiamendua irudikatzen du.



# engaiamenduak

## 53. enGaiamendua:

### > Hondakinen politika, trantsizio energetikoan eta ekonomia zirkularrean sartu

Hondakinen kudeaketak osoki lagundu behar du aldaketa klimatikoaren efektuak mugatzeko, ondoko hauen bidez:

- Prebentzio ekintzak azkartuz xahuketaren eta baliabide naturalen gainkontsumoaren aurka borrokatzeko eta beste molde batez kontsumitu beharraz sentsibilizatuak izanen diren herritarren erosteko ahalmena zaintzeko;
- Ekonomia zirkularra garatuz gure hondakinen transformatze aktibitateak birkokatze eta honela balio erantsia sortzeko gure lurraldearen baitan.

Bil Ta Garbi Sindikatuak tokika eraman duen asmo handiko politikari esker, « Zero hondakin, zero xahuketa » lurralde aitortpena lortu du ekologia eta garapen iraunkorraren ministerioarengandik. Bestalde ere gure lurraldea goretsia izan da « Ekonomia Zirkularra » labelaren lorpenarekin.

## ekintzak



### >> BILKETA ZERBITZUAK HARMONIZATU ETA HOBERENDU

Bilketa molde desberdinak badaude Ipar Euskal Herrian, bateratuak izan aitzin, lurralde bakoitzak ukan historiaren ondorioz. Proposatutako edukiontzien, bilketa maiztasunen eta bildutako fluxu moten arabera desberdintzen dira. Azken urte hauetan Xiberoan, Garazi-Baigorri, Bidaxunealdean eta Oztibarren hedatu erreformen gisara, bilketa molde bizileku tipologiaren arabera harmonizatua izanen da, ahal bezainbateko murrizketa eta balorizazioa bultzatzeko.

Bukatzeko, estrategia bat plantan ezarria izanen da, Euskal Elkargoaren karbono aztarna apalarazteko bere bilketarako ibilgailu-multzoaren bitartez.

## 54. enGaiamendua:

### > Bereizketa garatu eta hondakinen balorizazioa lagundu

#### Bilketa zerbitzuak optimizatuz

Trantsizio hau kausitzeko, beharrezkoa da bilketaren antolaketa osoa hobetzea. Zerbitzuaren lurralde koherentzia hobe bat beharrezkoa izanen da horretarako, bilketa moldeak bizileku tipologiaren arabera berriz zehaztuz, erabiltzaileari irakurgarritasun hobea segurtatzeko gisan. Hondakinen balorizazioa lehenesteko gisan, atez-ateko bilketa maiztasunak hondakinen kopuruari egokituak izanen zaizkie, bereizketa kontsignak plastikozko estalki guzietan hedatuko zaizkie, eta zerbitzu eskaintza optimizatua izanen da. Baina sustapena ez da soilik teknikoa izanen, eta zerbitzua finantzatzeko sustapenen garapena (familien partetik edo profesionalen partetik) aztertuak izanen dira.

#### Hondakindegien sarea modernizatuz

Hondakindegien saturazioari erantzuten jarduten du elkargoak, hauek modernizatuz eta instalatze gune berriak aurreikusiz. Hondakindegia hauek, Euskal Elkargoaren hondakinen kudeaketa-politikaren erakuslehoak bezala pentsatuak izanen dira.



= Klima plana




## >> HONDAKINEN EKOIZPENA AITZIN IKUSI

Euskal Elkargoak, ekintzak gaika antolatzen dituen Tokiko Prebentzio Programa baten bitartez antolatu ekintza andana bat hedatzen du eta besteak beste laguntzen ditu:

- Hurbileko kudeaketa organikoaren garapena, baratzegintza naturalaren bitartez hondakin berde gutiago ekartzeko hondakindegira, eta molde guzietako hurbileko konpostatzearen bidez: norbanako konpostatzea, zizare konpostatzea, konpostatze kolektiboa (eraikin beherekoa, auzotegikoa), konpostatzea eraikin batean;
- Elikadura xahuketaren kontrako borroka,
- Berbaliatzea, berrerabilpena, konponketa mozkinen erabilpen-epea luzatzeko (bilketa berezia oihalak berbaliatzeko, berrerabiltzeko eta balorizatzeko, birziklategi proiektuak lagundu, hondakindegietan berrerabilgarriak diren objektuak berreskuratzeko partaidetzak, emaitza-etxolak plantan ezarri);
- Kaltegarriak izan daitezkeen hondakinen bilketa (pilen edo hondakin lanjeros desberdinen bilketa);
- Erabilpen bakarreko objektuen erabilpenaren kontra borrokatzeko kontsumo-jarrera aldaketa (ekitaldietarako baso berrerabilgarrien zerbitzuak, xatar garbigarrien zerbitzuak, stop pub kolakiaren banaketa).

**BILDUTAKO ETA  
BALORIZATUTAKO  
HONDAKINEN  
Tasa OROKORRA**



= Klima plana



## >> HONDAKINDEGIEN SAREA MODERNIZATU

Euskal Hirigune Elkargoak, familien hondakin lodi edo lanjerosak biltzeko plantatu 25 hondakindegia kudeatzen ditu. Helburua, hala izan daitezkeen hondakinak berriz erabiltzea, birziklatzea edo konpostatzea baita, hondakindegien sarea beti aldatuz doa.

Objektuen berrerabilpena faboratzeko asmoz, erabiltzaileei zuzenduriko eta tokiko elkarteentzat diren emari zonaldeak edo ere « emazu - har ezazu » zonaldeak plantan ezarriak izan dira hainbat gunetan, tokien konfigurazioak halako aukera eskaintzen zuen orduko.

Bestalde, bereizketa sailen kopurua beti emendatuz doa. Altzari-iraulkiak orokortu izan ondotik azken urte hauetan, sail berri batzuk entseatuak dira zenbait gunetan (igeltsuaren bilketa, zuztarren bilketa) eta zenbait hondakin berezi batzuen bilketari buruzko gogoetak eramanak dira (hondakin amiantodunak).



**EUSKAL ELKARGOAK** bilketaren antolakuntza aldatzen du, bereizketarako agindu berriekin.

### PARTAIDE NAGUSIAK

**BIL TA GARBI**, hondakinaren prebentzioaren politikarako eta balorizazioaren garapenerako

**Lurraldeko herriak**, hurbileko operazio guzietarako ekintzen bitartekaritza eta osagarritasunerako

**ADEME**, laguntza tekniko gisa

> **Zeharkakotasuna beste politika publikoekin:** Garapen ekonomikoa, trantsizio ekologikoa

> **Urrunago joateko:** [www.communaute-paysbasque.fr](http://www.communaute-paysbasque.fr) (rubrique « déchets ») et [www.biltagarbi.com](http://www.biltagarbi.com)



# TURISMO IRAUNKORRA



**Pisu handiko sektorea da turismoa euskal ekonomian. Klima gozoa urte osoan, itsaso eta mendi arteko aniztasun geografiko bikaina, aparteko arkitektura, kultura eta natura ondarea, sekulako norabide turistikoa bilakarazten duten abantailak badauzka Ipar Euskal Herriak.**



## **EUSKAL ELKARGOAK EKARRITAKO BALIO ERANTSIA**

Antolaketa berezi bat plantan ezarria da Ipar Euskal Herrian turismo arloan, garapen turistikorako eta eremu turistikoen sortzea, antolaketa, mantenua eta kudeaketarako 158 herritan eta turismoaren sustapenerako 7 turismo bulegorako eskumena duen Euskal Elkargo batekin. Izan ere, 153 herri turismoaren sustapena Euskal Elkargoari eskualdatu diote, elkargoko 2 turismo bulego, Euskal Elkargoko Turismo Bulegoa (152 herri biltzen dituena) eta Baionako herriko perimetroko elkargoko Turismo Bulegoa sortuz, turismoko sailkatu 5 estaziok erabaki dutelarik sustapena atxikitzea. Orotara, urte osoan irekiak diren 24 turismo harrera-bulego eta sasoiko 4 harrera bulego daude lurraldean. Bisitarien eta tokiko biztanleen zerbitzurako zeregin desberdinak betetzen dituzte, turismoko sozioprofesionalekin lankidetzan.

Lurraldeko 158 herri guzietan, estrategia turistiko arloko eskumena dauka Euskal Elkargoak eta, diagnostiko eta Euskal Herriko eskema estrategiko bateratu baten desmarxa abian ezarri du 2019an.

Nazio eta nazioarte mailan ezaguna eta aitortua da Ipar Euskal Herriaren irudia. 7.000 milioi euroko negozio zifra, 2036 enpresa (orohar Ipar Euskal Herriko enpresen % 7,7) eta 9.000 enplegu-zuzen inguru (orohar Ipar Euskal Herriko enpleguaren % 10) irudikatzen duen ekonomiaren sektore esanguratsua bilakarazteko. Itsasbaterrekoa, mendikoa, kultura, kirola, ondare arlokoa, profesionala, ongizatekoa... mota desberdinetakoa da turismoa Ipar Euskal Herrian, aktibitatearen gorenaren udan gertatzen delarik.

Turismoak, punpa efektuz, aztertu behar diren externalitate batzuk sortzen ditu, erantzunak ekartzeko, edota erregulatzeko. Izan ere, biziki sasoikoa gelditzen da turismoa, eta aldi bateko biztanle berri batzuen presentziak kargua handitzen du hondakin ekoizpen, edateko uraren kontsumo eta tratatu beharreko ur zikinen kantitateari dagokienez. Zailtasunak ekartzen ditu ere zirkulazio ardatzetan auto ilara handiak sortuz, natura eremuen zaintza eta erabilpen gatazka arloan. Turismoko mublaturaren garapenak lehia sortzen du tokiko biztanleen etxebizitzaren merkatuan, euskal itsasbaterrean.



**Erronka hauei erantzuteko, jadanik abian ezarriak izan diren ekintzak osotzeko, zehazten ari garen estrategia bat abiatuko da 2022an. Hainbat arlotan orain arte sekula plantan ezarria izan ez den estrategia: Ipar Euskal Herriko perimetroa, urteko turismo iraunkorraren aldeko hautu anbiziotsua eta herritarren inplikazio azkarra.**





# engaiamenduak

2022an zehaztua izanen den estrategiak, nahitaez kontutan hartu beharko ditu turismoaren externalitate negatiboak eta hauei erantzun, bere biztanleen bizi ingurunean, natura eremuak bai eta bisitariak eta tokikoek lurraldea ezagutzeko kalitatea zaintzeko ekintza batzuen bidez. Beste politika publikoekin koherentea den turismo iraunkorra segurtatzea da xedea (trantsizio energetikoa eta ekologikoa, bizilekua, mugikortasuna, laborantza, ondarea, bazterrak, mendia, kultura eta hizkuntza, mugaz gaindikoa, ura, hondakinak, antolaketa...).

**Estrategia berriak, fluxuak Ipar Euskal Herri osoan hobeki banatzea izanen du helburu, gune bisitatuenak ibilbide ez hain ezagunetara bidaliz, bai eta fluxu turistikoak urte osoan gaindi hobeki banatzea bisitariak sasoiz kanpo hartzea ahalbidetuko duten aktibitateak sustengatuz. Ezingo zaie desafio hauei eutsi lurraldeko eragile guztiak federatzen dituen gobernantza turistikorik gabe.**

Biztanleak, gizarte zibil antolatuaren ordezkariak, turismoko profesionalak, hautetsiak bai eta Euskal Elkargoko zuzendaritza teknikoak eta instituzio partaideak inplikatzeko dituzten urrats estrategikoak. Turismoaren onargarritasuna, aterpetze turistikoa eta bizilekuarena, mugikortasunarena, natura eremuen zaintza, lurraldearen harrera eta lurraldearen partekatze eta ezagutzeko modalitateena, edota ere profesionalen ekarri laguntza eta politika turistikoa gobernantza hunkitzeko parada eskaintzen dute elkartzeko hauek.

## 55. engaiamendua:

➤ **Turismo iraunkorra bermatu, biztanleen bizi ingurunea errespetatzen duena**



# ekintzak

Apailatzekotan den estrategiaren idazketa lanaren ondotik zehaztuak eta hedatuak izanen dira ekintzak.

## **Mementoko, 2017tik aitzina 4 zereginen inguruan antolatu politika turistiko bat eraman du Euskal Elkargoak:**

- Lurraldeko egitasmo turistiko bat zehaztu eta lurralde mailako politika turistiko bat eraman: turismoaz diagnostiko bat burutua izan da lurralde osoan 2019 eta 2021 artean, ekintza partekatuak elkargoko eta herrietako turismo bulegoekin 2020az geroztik...;
- Elkargoko Turismo Bulegoak lagundu: Elkargoko Turismo Bulegoen sortzea eta 2019tik aitzina ekintza plan partekatu baten obratzea;
- Aisialdiko aterpetzeetarako hirigintzari laguntza dispositibo bat, Ipar Euskal Herriko ibilaldirako Elkargoko Eskema Estrategiko bat eta Tokiko Ibilaldi Plan bakar bat obratu;
- Elkargoaren ekipamenduak antolatu, garatu eta haien kudeaketa segurtatu: Bidaxunealdeko baratzeen eta Lizarrietako lepoaren antolaketa, Gixune eta Bidaxuneko jauregien garapena eta kudeaketa, Baigurako aisialdi gunearena...

> **Zeharkakotasuna beste politika publikoekin:** : Trantsizio energetikoa eta ekologikoa, Bizilekua, Mugikortasuna, Laborantza, Ondarea, Bazterrak, Mendia, Kultura eta Hizkuntza, Ura, Hondakinak, Lurralde antolaketa





# engaiamenduak



Ipar Euskal Herriaren antolaketa eta bizkortasun orekatuen alde ekin

Baliabideak eta ondareak zaindu

Lur-funtsen estrategia apailatu, lurralde-proiektuaren zerbitzuko

Elkargoko eta herriko etxeetako politika publikoak plantan ezartzea ahalbidetzen duten hirigintza-dokumentuak finkatu



Lurraldeko familien diru sarreraren araberako bizitegiak ekoiztu

Dagoen parke eraikia zaharberritu

Denentzat eskuragarriak diren bizitegiak eskaini



Ekoizpen ekonomiari lehentasuna eman gizarte, lurralde eta ingurumen nahikundeei erantzunez

Ekintza ekonomikoa 8 ekoizpen-saretan berezitu

Eredu teknopolitanoan bermatu



10.000 ikaslara heldu eta Akitania Berriko ingeniari formakuntzaren bigarren gunea bilakatu

Ikasleei zerbitzu-kalitate handi bat eskaini gaikako Campus erakargarrietan




**Energia positiboko** lurraldea bilakatu

**Karbono apaleko** eta gutiago kutsatzen duen lurraldea bilakatu



Klima aldaketari egokitu Ipar Euskal Herriko herritarrak, jarduerak eta baliabideak zaintzeko



Banakako autoari alternatiboak zaizkion mugikortasun-eskaintza guziei helgarritasuna erraztu

Banakako autoaren alternatiba den mugikortasun-eskaintzaren eskuragarritasuna hobetu

Banakako autoaren erabiltzea murriztu



Laborarien diru sartzeak hobetu

Etxalde-instalatzeari eta transmisioari lehentasuna eman



Denen ondasunak diren lur-funtsa eta ura zaindu

Laborantzaren eta laborarien lekuak lurraldean sendotu

Arrantza sare bizkor bat atxiki lurraldean



Zerbitzu publiko elebidunak eskaini



Herritarrak euskara erabiltzera sustatu

Okzitaniera-gaskoi hizkuntzaren eta kulturaren transmisio eta hedapen ekimenak sustengatu



Lurraldeko Elikadura-Proiektua obratu



Herriak lagundu beren ostalaritza kolektiborako politika abian ezartzeko

Publiko zabala ongi/hobeki jateari sentsibilizatu







Gizarte kohesioa bilatzen duten egitasmo kolektibo berritzaileak sustengatu

Hurbiltasun- eta subsidiarotasun-printzipioen arabera ekin herritarrendako zerbitzuak kudeatzeko



Hondakinen politika trantsizio energetikoan eta ekonomia zirkularrean sartu

Bereizketa garatu eta hondakinen balorizazioa lagundu



Euskal mendia bizirik eta herritarrez beterik atxiki



Turismo iraunkorra bermatu, biztanleen bizi ingurunea errespetatzen duena



Bainatzeko uren kalitatearen alde ekin

Higadura eta urperatze arriskuen aurka borrokatu



Herriei laguntza ekarri fiskalitatea, helbideratzea, helgarritasuna eta antolaketa arloetan

Bioaniztasuna zaindu



Ipar Euskal Herriko Publikoarendako zerbitzu-etxeen sarea hedatu



Trantsizioa eta kohesioa gure lankidetzaz guzietan sartu


Gehiago igurikatu gabe mugaz gaindiko eta europar mailan ekin, ondokoa lortzeko

Ipar Euskal Herriko haur guzietan eskola denboran igeri egiten ikasteko parada eskaini

Kirola denentzat lagundu lurralde osoan



Hiri-kohesio eta auzo behartsuenekiko elkartasun politikan aktiboki parte hartu



Denei, kultura-ekipamenduen erabiltzeko aukera bera bermatu

Auzo horien garapen ekonomikoa lagundu



Oso abiadura handiko internet denentzat bermatu 2023an



Denei kalitatezko edateko ura eskuratzeko aukera bermatu

Erabilera numerikoen bilakaera lagundu

Erreken kalitatea hobetu

## ARGAZKI KREDITUAK



- Carolepro
- SMBVN
- JP.Plantey
- Eric Borda
- Komcebo
- G.Meziat
- L.Tomassi
- M.Prat
- Erwan Mesry
- Coté Sud Photo



**pays  
Basque  
euskal  
HERRIA**

COMMUNAUTÉ  
D'AGGLOMÉRATION  
—  
HIRIGUNE  
ELKARGOA